

Descartes



**METODOARI
BURUZKO
DISKURTSOA**

Fondo documental **EHK** Dokumentu fondoa
Euskal Herriko Komunistak


Metodoari buruzko diskurtsoa

Rene DESCARTES

Lan hau liburu digital bihurtu da
EHKko militanteek,
barne erabilerarako eta zati bat da
lanerako materiala,
ikerkuntza eta prestakuntza
pentsamendu marxista

<http://www.ehk.eus>

<http://www.abertzalekomunista.net>



Hitzaurrea

1. *Descartesen bizitza eta obra*

Nahiz eta filosofo baten pentsamendua egoki epaitu ahal izateko, normalean bere obra osoa kontuan hartzea ezinbestekoa den, zenbait kasutan obra bakan batzuk egokiak izaten dira kontzepzio filosofiko baten funtsa ezagutzeko. Horixe gertatzen da Descartesen *Discours de la méthode* obrarekin; 1637an lehen aldiz agertu bazen ere, ikuspegi orokor bat ematen du Descartesen kontzepzio natur filosofikoaz eta metafisikoaz, autobiografia intelektual baten markoan. Metafisika cartesiarra, *Discours*-ean zirriborraturik baizik ez dagoena, 1641eko *Meditationes de Prima Philosophia* (1647an agertu zen autoreak berak baimenduriko frantsesezko itzulpenean) obran proposatzen da era umotuan. Bi obra horiek batera beren baitan daukate sistema cartesiarraren oinarria, eta horri dagozkio natur filosofia, matematikaren filosofia eta zenbait teoria zientifiko partikular (fisika, astronomia, fisiologia, anatomia, psikologiaren eremukoak).

Discours-ek eta *Meditationes*-ek Descartesen bilakaera izpiritualetan izan duten betekizuna zehazteko beharrezkoa da filosofoaren biografiako datarik garrantzizkoenak gogora ekartzea¹. Descartes La Hayen (gaur egun La Haye-Descartes), Tourainen jaio zen 1596an. Oso txikitik galdu zuen ama, eta ez zen oso osasun onaren jabe izan. Horregatik, La Flècheko jesuiten ikastetxean sartu zelarik, bere ikaskideak baino beranduago jaikitze baimena eman zioten. La Flèche hezkuntza bikaina jaso zuen. Berehala eta denboraldi batean Poitiersen jurisprudentzia ikasi zuen (1615-1616), baina ez zitzaion lanbide horri lotu, baizik eta "grand livre du monde"-n² irakurtzea erabaki zuen. 1618-1619 bitartean boluntario (volontaire) gisara zerbitzatu zuen Moritz von Nassau printzearen armadan Herrialde Beheretan. Bertan egin zuen Isaac Beeckmanen ezaupidea, eta horrek natur zientzia garaikidearen pentsamoldearen berri eman zion. 1619ko udan Frankfurt am Mainen izan zen Ferdinand II. enperadorearen koroatzean. Hurrengo negua Danubio garaian, Hego Alemanian, igaro zuen, Neuburgen edo inguruetan segur aski³.

Hurrengo bederatzita urteetan bidaia luzeak egin zituen eta zientzia matematiko unibertsal bat eraikitze-egitasmoan jardun zuen, nahiz eta hori burutzerik ez lortu. Bere ahaleginen emaitza, "Regulae ad directionem ingenii" osatzeke gelditu zen.

Hogeigarren urtearen bukaera aldera Descartes Herrialde Beheretan kokatu eta bertan bizi izan zen hurrengo hogeita urteetan. Garai horretan argi zeukan fisikak oinarri metafisikoa behar zuela, zeren printzipio fisikoekin errealitatea bera eta bere egitura deskribatzea ez zientzia horren bitartez, baizik eta diziplina orokorrako baten laguntzarekin bakarrik —hau da, metafisikarekin— justifika baitzitekeen. Bere metafisikaren zirriborroa 1630 urte aldera egin zuen gaur egun galdurik dagoen bozeto

¹ Biografia berriena Geneviève RODIS-LEWISENA da: Descartes. Biographie. Paris. 1995.

² *Discours de la méthode*, I. Atala, Oeuvres, edd. Ch. Adam eta Paul Tanney, Nouvelle éditions Paris 1996: [aurrerantzean: AT], VI libkia, 9. or.

³ Suposizio horren aldekoa da honako ohar hau: A. BAILLET: *Abrégé de la vie de M. Descartes*. Paris 1692, 39 or.

batean. Hogeita hamargarren urteen lehen erdian natur filosofiako obra bat agertu zen (*Le monde ou Traité de la lumière*), Descartes argitaratzera ausartzen ez zena, barrenean kontzepzio kopernikarra zuena, eta horregatik eliza katoliko-erromatarrak kondenatua. Hala ere, optika eta geometriaren eremuan egindako lorpen zientifiko partikularren demostrazio batzuk argitaratzea erabaki zuen eta horiei sarreratzat *Discours de la méthode* ezartzea. 1637an argitaratutako obrak izenburu hau zeukan: *Discours de la méthode pour bien conduire sa raison, et chercher la vérité dans les sciences. Plus la Dioptrique, les Météores et la Géométrie, qui sont des essais de cette méthode*. 1644an latinezko itzulpen bat agertu zen⁴.

Discours agertu eta handik lau urtera Descartes-en obra metafisiko nagusia agertu zen eta izenburu hau zuen: *Meditationes de Prima Philosophia. In qua Dei existentia et Animae immortalitas demonstrantur* (Paris 1641). Testu guztiz laburrarekin batera aldikideen objekzioak (*objectiones*) —besteak beste Hobbes, Arnauld, Gassendirenak zetozen— eta horiei autoreak emandako erantzunak (*responsiones*) inprimaturik. Bigarren edizioan aldatu egin zen izenburua; orain honela zuen: *Meditationes de Prima Philosophia, In quibus Dei existentia, et animae humanae a corpore distinctio, demonstrantur*. Amsterdam, 1642 ("*Objectiones et Responsiones septimae*"-ren gehipenarekin). 1647an Descartesek baimenduriko frantsesezko itzulpen bat agertu zen Parisen⁵.

1644an "*Principia philosophiae*" etorri ziren, eta bertan natur filosofiaren printzipioak, hau da, natur zientziarenak, zeinaren oinarriaren gainean garai batean era murriztuan proposaturiko metafisika garatu zuen, eta 1649an, Christine erreginak gonbidaturik, filosofoa Stokholmera joan zelarik, bere azken obra agertu zen, *Passions de l'âme* deritzona. Descartes hil eta gero lan zientifiko eta filosofiko txikiago batzuk ere argitaratu ziren.

Christine erreginaren gonbitea onartzeko erabakia ez zitzaion erraza gertatu Descartesi. Aieru beltzez beterik ekin zion bidaiari, eta egiaztatu ere laster egiaztatu ahal izan zituen: 1650, urtearen hasieran filosofoa pulmoniaz gaixotu eta otsailaren 11n hil zen. Aurrena Suedian ehortzi zuten gorpua eta 1667ra arte ez zuten Parisa eraman. Descartes-en eskuizkriburik garrantzitsuenak, aldean Suediara eramana, hil ondoren inbentariatu⁶ eta Frantziara ekarri ziren.

2. *Discours de la méthode autobiografia intelektual gisara*

Discours de la méthode obran Descartesek bere bilakaera intelektualaren urrats erabakigarriak deskribatu zituen, hasi eskola garaitik eta hogeita hamargarren urteen lehen erdira artekoak⁷. Izaera autobiografiko hori bereziki argi nabari da lehen partean. Hemen Descartesek La Flèche bizi izandako ikasketa-garaiaz hitz egiten du, zeinen gutxi

⁴ *Specimina Philosophiae: seu Dissertatio de methodo rectae regendae rationis, et veritatis in scientiis investigandae: Dioptrice et Meteora*. Amsterdam 1644. [E. de Courcellesek itzulia, Dioptrika eta Meteoroeekin batera.] Beraz frantsesezko eta latinezko edizioak AT VIIan sarturik daude.

⁵ *Meditationes*-en latinezko edizioa AT VIIan sarturik dago, frantsesezko itzulpena AT IX/1ean dago.

⁶ Inbentarioa AT X, 5-12 orrialdeetan berriz emana dago.

⁷ Descartes-en bilakaera zientifiko-filosofiko osoa hemen dago deskribatua: Stephen GAUKROGER: *Descartes. An Intellectual Biography*. Oxford 1995.

ase izan zuen ikastetxeko irakaskuntzak, nahiz eta bere garaiko eskola hoberenetako bat izan. Baina ondorengo parteak ere Descartes bilakaera intelektualaren atzerako begirada legez irakur daitezke; bertan tarteka egindako kanpoko gertaeren aipamenek denboran kokatzea errazten dute. Bigarren partearen hasieran, Descartes lehenagoko metodo matematikoaren zirriborroa egiten den gunean, filosofoak Alemanian 1619/20 bitarteko neguan egindako egonaldia aipatzen du. Hirugarren partean, kontsiderazio filosofiko-moralak aipatzen dituenean, Descartesek dio negu horren bukaeran, 1620. urteko lehen hilabeteetan, berriro bideari lotu zitzaioa⁸, eta bederatzi urtez hala ibili zela, geroxeago jakinarazten du ordurako zortzi urte bazeramatzala Holandan (1629tik beraz). Laugarren partearen lehen esaldietatik agertzen da gogoeta metafisikoak egin dituela Herrialde Beheretan egoitza ezarri zuen lehen garaitik. Eta azkeneko bi parteetan Descartesek berrogeita hamargarren urteen lehen erdian landutako lan zientifikoaren aipamena egiten da, hau da, 1633an ia bukatutako *Le monde ou Traité de la lumière* obrarena, zeinean natur filosofiaren printzipio orokorretatik abiatutik bere kosmologia aurkeztu zuen. *Discours*-ean bere kontzepzioaren zirriborroa ematea besterik ez du egiten eta hipotetiko ezaugarria ezartzen dio lanari⁹. Descartesek *Discours*-en, denboran zehar bilakaera izan duten iritzien berri ematean, obratik ez dago ondorioztatzerik Descartes hogeita hamargarren urteen erdian lehenago defendaturiko kontzepzio guztiekin bat zetorren ala ez, izan ere ez baitirudi horrek egiantzik izan lezakeenik bere jatorrizko metodo-ideala kontuan hartzen bada behintzat.

3. Natur zientziako pentsamenduaren eragina cartesiar filosofian

Discours-ek natur zientzia matematikoen Descartes gazteari egin zioten zirrara sakona agerian jartzen du. Garai hartako natur zientzialariek bezala Descartesek ere gauzen propietate kuantitatiboak, hau da, kuantifikagarriak bakarrik kontsideratu nahi zituen, bolumena, figura, kokagunea eta kokagune-aldaketaren determinazioak, matematikaren bitartez deskribatzen direnak. Zientzia edukikor bat garatzeko asmoa zuen, kuantitatiboki determinaturiko objektu guztiak bere baitan hartuko zituen eta matematika unibertsal baten —*Mathesis universalis* baten— bitartez adierazgarria izango zena¹⁰. Zientzia horrek sistema itxia, axioma nabarrietan oinarritua izan behar zuen eta antzinatik zetorren ezagutza erabat ziurraren ideala asebeten. Arrazionalismoarentzat tipikoa den zientzia- eta ezagutza-ideal hori gauzatu ahal

⁸ *Ibid.*, III atala; AT VI, 28 or.

⁹ *Discours de la méthode*, V atala; AT VI, 42. or.

¹⁰ Hurrengo urteetan Descartes horrelako zientzia baten egitasmoarekin lanpeturik ibili zen eta horren berri ematen du osatu gabe gelditu zen zatiaren pasarte batek, "*Regulae ad directionem ingenii*", *Regula IV B*; AT X, 374-379 lehenik postumoki argitaraturiko obran. Susmoa dago pasarte hori 1620raino iristen ez bada ere, askoz beranduagokoa ez den une batekoa dela.

izatearen itxaropenak suharrez betetzen zuen hogeita hiru zeuzkan Descartes¹¹, nahiz eta hori lortezina zela frogatuko zen¹².

Discours de la méthode-n Descartesez oso laburturik eman zituen matematikaren metodoari buruzko bere gogoetak. Hemen ezarri zituen erregelak¹³, hain daude orokorki formulatuak, non susmoa har daitekeen, natur zientzietan eta matematikan erabilgarria zen metodo bat nahi zuela, nahiz eta lehenik kontsiderazio matematikoekin zerikusia duten. Erregela horietako lehenean postulatuak da printzipio perfektuki ebidenteak soilik axiomatzat onartzea; ondorengo erregelek zerikusia dute printzipio konplexuak axioma arartegabeko ebidente eta elementaletara murriztearekin, axioma horietatik printzipio konplexuak ondorioztatzearekin. (Erregela horien erabilpen-kasutzat goren graduko berdintzak behe-gradukoetara eta azkenik faktore linealetaraino erreduzitzea eman liteke, zeinen produktuak jatorrizko berdintza errepresentatzen duen.)

Metodo-auziek ere badute betekizuna Discours-en azkeneko bi parteetan. Premisak, zeinen laguntzarekin Descartes Dioptrique-n eta Météores-en fenomeno optikoak argitzen ahalegindu zen, ez dira axiomatik deduzitzen, baizik eta dagozkion teoriaren, esplikazio-balioarekiko justifikatzen dira. Esplikazio zientifikoaren premisak eta esplikatu beharreko gertakariak buruzko enuntziatuek halako harremana dute elkarrekiko, "non, azkenak lehenen bitartez horien kausa bezala, lehenak alderantziz azkenen bitartez haien efektu gisara demostratzen diren [que, comme les dernières sont démontrées par les premières, qui sont leurs causes, ces premières le sont réciproquement par les dernières, qui sont leurs effets]"¹⁴. Hemen circulus vitiosusik ez dago, itxuraren kontra, Descartesen arabera, zeren kausek (hau da, kausa-legeek), zeinetatik deduzitzen diren efektu behagarriak, ez baitute balio horiek frogatzeko (prouver), esplikatzeko (expliquer). Bakarrik¹⁵ argi eta garbi egiten du Descartesez matematikako metodoaren eta natur zientziaren arteko bereizkuntza: matematikariak axioma ebidenteetatiko dedukzioaren bitartez proposizioak frogatzen dituen bitartean, natur zientzialaria faktua horren bidez esplikatzen ahalegintzen da, eta horiek erregulartasun-kasu bezala aurkezten ditu.

Descartesez esplikazio zientifikoari buruz esaten zuena bat dator, natur zientzia aldikidearen ordezkariak defendatzen zuenarekin. Haien matematikoki formulaturiko lege-adierazpenekin gertakariak esplikatu nahi zituzten, eta ez, natur filosofia zaharrak bezala, gauzen esentzien (essentiae) eta forma substantzial (formae substantiales) bezala agerpen bezala. Galileik erorkera askearen legea, Huygensez argi-errefrakzioaren legea edo Keplerrek planeten higiduraren legea formulatu zituztenean, ez ziren ari gauzen izaeraz, baizik eta matematikoki deskriba zitezkeen prozesuen arteko erlazioez.

17. mendean geometria analitikoa aurkeztu zen gorputz fisikoak deskribatzeko bitarteko gisara, eta Descartes horren sortzaileetako bat izan zen. Descartesez ez zuen ikusten

¹¹ Hori erakusten dute A. BAILLET in: La vie de M. Descartes. Paris 1691 (Hildesheim eta New Yorken 1972an berrinprimatua), II libkia, 51 or. (baita AT X, 179 or) 1619ko azaroaren 10etik 11rako gauean izandako bere pentsamenduari buruzko apunteak.

¹² Descartes matematika unibertsal baten idealetik pixkanaka nola urrundu zen jakiteko ikusi John A. SCHUSTER: "Descartes' Mathesis Universalis, 1619-28" In: St. GAUKROGER (Edit.): Descartes. Philosophy, Mathematics and Physics. Brighton 1980, S. 41-96.

¹³ Discours de la méthode, II atala; AT VI, 18hh. or.

¹⁴ Ibid.

¹⁵ Konparatu Descartesez Morini egindako gutuna 13.VII. 1638; AT II, 198, et bertan dio: ...il y a grande différence entre prouver et expliquer.

geometrian errealitatearen alderdi kuantitatiboa deskribatzeko bitarteko bat soilik, baizik eta geometriaren proposizioetan errealitate naturalaren natura atzeman zitekeelakoan zegoen. Gorputzak, bere iritiz, hedadura-dimentsio hutsez ezaugarriturik zeuden, hau da, geometriak tratatzen dituen erlazioez bakarrik.

4. *Natur filosofiaren ideia nagusiak*

Descartesek, lehenago esan denez, teoria zientifiko partikularren premisak, adibidez, optikarenak, suposizio (suppositions)¹⁶ hipotetiko izendatzean, ez zuen bere azken hitza esan. Argiaren errefrakzioa edo azpian ostadarra erakusten duen angelua bezalako gertakariak esplikatzeko zituen printzipioak, zeinen menpean ostadarra agertzen den, behin behineko soilik kontzebitzen ziren hipotesizat; sistema osoaren barruan dira frogagarriak. Descartes arabera ez da eskandalizatu behar, Dioptrique eta Météores-en hasieran suposizioez (suppositions) hitz egiteagatik, zeren eta osotasunaren koherentziari begiratzeko gero, gauzak asebetegarri gertatzen baitira¹⁷. Horrek gauza bakarra esan nahi du, proposizio horiek behin betiko egiazkotzat jo daitezkeela. Argiagotzek adierazi zuen Descartesek korrespondentzian, zeinean "Essais" eta Discours-ekiko erlazioan azpimarratu zuen, han hipotetikoki suposaturiko printzipioak a priori demostratu ahal izango zituzkeela, bere filosofia osoa, ez soilik fisika, baita metafisika ere aurkeztu izan balu. Baina a posteriori erakusteko konformatu behar izan zuen suposizio horien laguntzarekin, eta horien laguntzarekin bakarrik, beharrik gertakariak esplikatu zitezkeela¹⁸. Descartes sinetsirik zegoen halaber esplikazioak aurkitu zituela, zeinentzat alternatibarik ez zegoen. Behin betiko ezagutza zientifikoa posible zelakoan Descartesek zeukan sinesmena bere pentsamenduaren tradiziozko elementuetako bat da. Descartesek pentsatzen zuen, halaber, nahiz eta kontserbadorea izan, hau da, dogmatikoa, suposizio zientifiko naturalen baieztapen empirikoan biderik hoberenetako bat begiesten zuela; konbentziturik zegoen, fisikako printzipio orokorrenak —eta horiek bakarrik— a priori deduzi zitezkeela, eta dedukzio-mota horretan ikusten zuen berak oinarritapenerako biderik hoberena.

Printzipio filosofiko naturalei Descartesek "Lois de la nature" deitzen zien. Unibertso mugimendu-kantitatea edo inertzia printzipioa bezalakoak dira, eta ez eskuarki "natur lege" deitzen direnak (hau da, erorketa-legearen edo argi-errefrakzioaren moduko legeak).

Natur filosofia cartesiarra, mekanika modernoa orokorrean bezala, fisika aristoteliarrak ezagutzen ez zuen mugimenduaren kontzeptu batean oinarritzen da. Aristoteliarrek ez bezala ikusten zituen Descartesek espazio eta denborazko determinazioak ez gorputzen propietate bezala: gorputzak mugitzeko gai dira beren propietateak aldatu gabe. Mugimendua, Descartes arabera, hitz batean da erlatiboki era egonkoian loturiko materia-partikulazko kantitate baten espaziotan batetik beste baterako translazioa, hau da, garraioa. Descartesengan kontzepzio hori, bere aldetik, premisa metafisikoen menpean legoke, hau da materiaren esentzia hedaduran soilik dagoelako kontzepzioarenean. Horregatik gorputzei geometriaren bitartez deskriba daitezkeen

¹⁶ Discours de la méthode, VI atala; AT VI, 76 hh.

¹⁷ Ibid.

¹⁸ Descartesek P. Vatier-i, 22. II. 1638; AT I, 563.

propietateak bakarrik dagozkie; horren ondorioz horien mugimendua ere posizio-erlazioen aldaketa soil, hau da, translazio bezala errepresenta daiteke.

Natur filosofia cartesiarraren oinarritzko beste printzipio batek dio unibertsoko mugimendu-kantitatea konstantea dela. Printzipio hori ere premisa metafisikoetan oinarriturik dago, hau da, Jainkoaren esentziari eta munduak Jainkoarekiko duen erlazioari buruzko printzipioetan. Mundua izaki finituen osotasun gisa Jainkoak sortua da eta Jainkoak iraunarazten du, hau da, uneoro berriro sortzen du. Jainkoak, izaki perfektua delarik, ez du aldatzen berak sortu eta atergabe iraunarazten duen munduaren ordena, zeren erabakien berrikuspena inperfekzio-seinale izango bailitzateke. Beraz mugimenduaren kantitatea (*quantitas motus*), Jainkoak materiari emandakoa ere, ezin liteke alda. Kontzepzio horri loturik dago inertzia printzipioa ere. Baldin eta gorputz batek, beste gorputz baten eraginik gabe, bere mugimendu-egoera aldatuko balu, orduan halako kantitate jakin bat desagertu edo gehituko litzaioteko mugimenduari, hau da, unibertsoko mugimenduaren kantitate orokorrak aldaketa bat izango luke, eta hori, esan denez, bazterturik dago.

5. Zalantza metodikoa

Discours-en laugarren parteak Descartesek 1630ean landutako kontzepzio metafisikoen zirriborro labur bat dauka. Jabeturik zegoen arimaren esentziari eta gorputzarekiko haren erlazioari eta Jainkoaren existentziari buruzko bere teoria ez zuela behar bezain argiro adierazi¹⁹. Bere kontzepzio metafisikoen arrazoiketa xehea *Meditationes de Prima Philosophia*-n aurkeztu zuen lehen aldiz.

Descartesek metafisika arrazional huts, enteleguaren ezaguera autonomoetan oinarritua, beraz aurreuposiziorik gabea eta tradizioarekiko independentea den zientzia bezala ulertzean, tradiziozko kontzepzio guztiak jokoan utzi behar izan zituen. Tradizioarekiko haustura erradikala egiteko ahalegina arriskugarritzat har zitekeen, eta izatez praxiaren eremuko iraultzak hain arriskutsuak dira, non Descartesek saihestu egin zituen. Baina iraultza teorikoetan bestela jokatu zuen²⁰. Iraultza politiko eta sozialak arbuigarriak diren bitartean, zientzian beharrezko da hasiera erradikal berri bat ezagutza ziurraren mesedetan. Iraultza filosofiko-zientifikoak zalantzarik gabe ondorioak izango ditu etikarentzat, baina burutua ez dagoen eta ezagutza ziurrik eskura ez daukan bitartean, behin behineko moral batekin konformatu beharra dago, zeinak alde batetik halako konformismo bat eta bestetik ziurgabezia hartutako erabakiei atxikitzea gomendatzen duen. Behin behineko moralaren maximak Discours-en hirugarren partean formulatzen dira. Praxi arrazional baten oinarri filosofiko-zientifikoak ezarri bitartean, behin betiko moral baten maximak saihestu egin behar dituzte.

Zalantza metodikoa xehetasunez garatzen da *Meditationes*-en. Lehen Meditazioan bitarteko gisa ezartzen da, ziurtasunik gabeko proposizio guztiak ezabatzeke. Zalantzari

¹⁹ Descartesek Mersenne-ri, 1637ko apirilean (AT-ren arabera: 1637ko martxoan); AT I, 349 or eta hh. Gutun horretan aditzera ematen du, zortzi bat urte lehenago idatzi bat latinez hasia zuela metafisikari buruz eta bertan demostrazio xeheagoak ematen zituela.

²⁰ Discours de la méthode, II atala; VI, 11-15.

"metodiko" deitzen zaio, zeren ez baitu eszeptizismora eraman behar, baizik alderantziz, erabat ziurra den printzipio bat aurkitzera. Pentsamendu gidaria da filosofiak eta bereziki metafisikak horren erdigune gisara proposizio erabat ziur, inola ere zalantzan ezin jarrizkotan euskarritu behar dela. Baldin eta proposizioak zalantzan jarriko balira, ez lukete filosofiaren abiapuntu izateko balioko.

Zalantza metodikoan urrats bat baino gehiago bereizten dira. Lehenik judizio enpirikoekiko eta judizio arrazional hutsekiko zalantzen arteko bereizkuntza egin behar da; ondoren bi planoetan objektuen propietateei buruzko zalantzekiko judizioak eta objektuen existentziari buruzko judizioekiko zalantzak bereizi behar dira.

Plano enpirikoan pertzepzio-judizioekiko fidagarritasuna zalantzan jar daiteke, zeren pertzepzio-iruzurrak gertatzen baitira. Zentzuek noizbait iruzur egin badigute, orduan ez zaizkigu fidagarri, zeren "zuhurtziazko agindu batek dio, osoki inoiz ez fidatzeko, behin bederen iruzur egin digunaz"²¹. Pertzepzio-iruzurretan gauza erreal bat berez denaz bestetara hautematen da (adibidez, eguzkia pertzepzioari ilargia bezain handi agertzen zaio); gertatzen dira halaber kasuak, zeinetan gauzak hautematen ditugula sinesten dugun, halakorik egon gabe. Hori da haluzinazioen kasua; aldiz, ametsetan uste izaten dugu gauza errealekin dihardugula, gure kontzientziako edukiak baizik ez direlarik. Descartesen arabera ez dago bazterterik errepresentazio guztiak--baita gauza errealean pertzepziotzat dauzkagunak ere— amets-errepresentazioen modukoak direnik. Descartesek ez zuen esan nahi beti amets egiten dugunik; bakarrik azpimarratu nahi zuen ez dela zentzugabea, ernai gaudela behaturiko objektuak, ametsetan begiztatuak bezalaxe, irudimenaren errepresentazio soil gisa kontsideratzea.

Posible da pertzepzioetan oinarrituriko judizioekiko zalantza justifikatutzat edukitzea, ezagutza arrazionalen oinarrituriko judizioak —adibidez, judizio matematikoak— funtsean zalantzakotzat eduki gabe. Descartesek uste zuen ordea, azken era horretako judizioak ere (adibidez, $2 + 3 = 5$) jar zitezkeela zalantzan. Horrela irakurleari eskatzen dio printzipioen faltsutasuna kontuan hartzeko, nahiz eta subjektiboki hain ziurrak diren, non beraientzat ezin dugun inolako alternatibarik pentsatu. Horiek zeharka baizik ez dira zalantzan jartzen, hain zuzen ere, gure arrazoimenaren fidagarritasuna zalantzan jartzen delako. Hori kontsiderazio baten bitartez gertatzen da Descartesengan, alegia balitekeela gu izaki guztiz ahaltsu eta aldi berean makur baten menpean egotea, zeinak gure izpiritua hainbesteraino maneiatu duen, non huts egin dezakegun, nahiz eta gure judizioa subjektiboki erabat ziurra izan.

Izpiritu guztiz ahaltsu eta makur baten, etengabe iruzur egiten digunaren suposizioa²², Descartesek onartu zuenez, ez da oso txalogarria. Horregatik suposizio horri loturiko zalantza ere bitxia gertatzen da. Hala ere, genius malignus batek egindako iruzurraren metafora horren atzean bada benetan hartzeko ideia bat, cartesiar filosofiaren supostu ontologikoekin zerikusia duena, hau da, natura egiazko eta aldaezinen doktrinarena. "Naturak" esatean Descartesek entitate abstraktuak ulertzen zituen, halakoak diren heinean gauza konkretuez bestelakoak, baina hala eta guztiz ere izate modu bat dutenak²³. Askozaz konplexuagoak diren egiazko naturen oinarrian (adibidez, triangeluaren edo zirkuluarenean) natura bakunak dautza, esaterako gorputzaren

²¹ Meditationes de Prima Philosophia, I; VII, 18. or.; Konparatu Discours de la méthode, IV; VI, 32 or.

²² Ibid.; VIII, p. 21; cf. p. 22: "Suppono... genium aliquem malignum, eundemque summe potentem et callidum, omnem suam industriam in eo posuisse, ut me falleret".

²³ Ibid.; VII, 20 or.

"natura" (natura corporea), hedaturak (extensio) eratzen duena, natura izpirituala (natura intellectualis)²⁴ "res cogitans"-aren "natura" gisara. Bi natura horiek desberdinak dira esentziaz, halako moldez, non prozesu izpiritualak natura hedatuaren teoriaren esparruan ezin diren ulertu eta, kontrara, prozesu korporalak natura izpiritualaren teoriaren bitartez ere ez. Descartesek, beraz, jarrera dualista bat hartu zuen errealitate izpiritual eta materialen arteko erlazioari buruz.

Era naturalean, pertzepzioaren bitartez gauza errealak hautematen ditugula uste dugun bezala, horrela konbentziturik gaude, geure kontzeptuekin (hau da, ideia bereiziek) egiazko naturak atzematen ditugula; baina pertzepzioak objektu errealekin erlazionatzen direla zalantzan jar daitekeenez, horrelaxe jar daiteke zalantzan gure kontzeptuak objektuei (kasu horretan objektu idealak izan behar dutenei) dagozkiela ere. Kontzeptuak pertzepzioak bezalaxe kontzientziako edukiak dira lehenik; suposatzen dugu gure pentsamenduarekiko independente den zerbaitekin erlazionaturik daudela, baina ezin dugu suposizio hori justifikatu. Baliteke egiazko naturak guk zuzen ez atzematea; baina baliteke, egiazko naturarik ez egotea ere, halaber, gure pertzepzioak gauza errealezko ezein munduri ez dagozkiola bazterterik ez dagoen bezala. Horrelako zalantza baten posibilitatea Descartesek Jainko iruzurgile baten (dieu trompeur) eta gero demonio makur (genius malignus) baten ideien bitartez adierazi du. Metafora kuasi-teologiko horren atzean ideia bat dago, ez dela zentzugabea, gauzen gure kontzeptuak eta gauzei buruzko judizioak eta horien arteko erlazioak subjektibo soiltzat edukitzea, hau da, horiei baliozkotasun objektiboa ukatzea. Batez ere natur zientzia ideia-erakin guztiz subjektiboa izan litekeela. Nahiz eta bere proposizioek sistema kontraesanik gabe eta perfektua eratu, zalantzan gelditzen da, ea horiei faktu errealak dagozkien.

6. Zalantzaren gainditzea²⁵

Descartes konbentziturik zegoen natur zientzialariek arrazoiz sinesten dutela beren teoriaren baliozkotasuna, gutxienez natur zientzien oinarriko printzipioei dagokienez. Sinesmen hori justifikatzeko, erakutsi behar da, badirela proposizioak, zeinen baliozkotasun objektiboa inola ere zalantzan jartzetik ez dagoen. Descartesek uste zuen proposizio horiek aurkitu zituela, hau da ni pentsatzaileari, Jainkoari eta Jainkoa eta munduaren arteko erlazioari buruzko proposizioak.

Lehen proposizioa, zalantza erradikalari kontrajartzen zaiona eta horregatik zalantzan ezin jarrizko proposiziotzat kontsideratzen dena, ni pentsatzailearen existentziari buruzkoa da: nahiz eta nik objektu konkretu eta abstraktuei buruzko proposizio guztien egia zalantzan jarri, ezin dut zalantzan jarri, ni neu, zalantzan nagoen eta ondorioz pentsatzen ari naizen bitartean, banaizela. "Je pense donc je suis", Discours-en esaten denez²⁵. Asmo beraz baieztatzen da Bigarren meditazioan, "Ego sum, ego existo proposizioa enuntziatzen dudan edo pentsamenduz atzematen dudan heinean, derrigor egia dela"²⁶.

²⁴ Meditationes, Synopsis; VII, or.

²⁵ Discours de la méthode, IV; VI, 32 or.

²⁶ Meditationes, II; VII, 25 or.

Lehen proposizioak zer izaera duen galderari erantzun desberdinak eman zaizkio, eta segur aski ez dago filosofia berrian beste galdera bat hori bezain biziki eztabaidatu denik. Azkena aipaturiko pasartearen proposizio batez (pronuntiatum) hitz egiten den bitartean, badirudi "donc" horrek Discours-en formulazioan (latinezko itzulpenean: "ergo"²⁷) adierazi nahi duela ondorio bat dela. Nola lehen printzipioaren formari buruzko Descartes adierazpen errepikatuak izendatzaile komun bakar batera biltzerik ez dagoen, bere kontzepzioa ez dago behar adinako ziurtasunez baieztatzerik.

"Cogito ergo sum" eta gero "ego sum, ego existo" zehaztugabeegia da, forma horretan proposizio metafisiko gehiagoren dedukzioa onartu ahal izateko. Descartesek osatu egin zuen hori ni horren esentziaren determinazioarekin, zeinaren existentzia inolako zalantzarik gabe berrezagutzen den. Niaren existentzia zalantzan ezin jarrizkoa bada ere, gorputzaren existentzia eta ondorioz errealitate korporala orokorrean zalantzan gelditzen bada, orduan niak ez-korporal bezala balio behar du, eta bere existentzia pentsatuz ziurtatzen duenez gero, bere esentzia pentsatzean datza: res cogitans da, eta noski res cogitans finitua, hortik sortzen denez, zalantzak dituena eta desiratzen duena, baina gauza asko ez dakizkiena eta ez dauzkana. Kontsideratzen bada, gainera, Descartes arabera, pentsamenduak (cogitationes) substantzia baten, zehatzago, substantzia izpiritual baten aktotzat kontzebitu behar direla, orduan lehen proposizioaren formulazio perfektuago hau sortzen da: "Zerbait pentsatzen dut, orduan substantzia izpiritual finitu bat naiz".

7..Jainkoaren frogak²⁸

Ni finitua substantzia izpiritual gisara zalantzan ezin jarrizkotik abiatu Descartesek substantzia infinitu baten, hau da, Jainkoaren existentzia ondorioztatu zuen Hirugarren meditazioan argudiatu zuen Jainko ideia substantzia infinitu, ondorioz infinituki perfektu baten ideia ezin litekeela ez ni finitutik sortu, ez gauza finituen esperientziatik eskuratu, beraz onartu beharra dago, Jainkoak eman diola izpiritu finituari: jatorrizko ideia bat da (idea innata). Jatorrizko ideiarene suposizioa metafisika arrazionalistaren kritikarietzat etengabeko tupustarri izan da. Jadanik Descartes aldikide enpiristikoki orientatuek arbuiatu egin zuten, eta geroago enpirismoaren ordezkari guztiek baztertu. Kritika batez ere jatorrizko kontzientzia-eduki aktualen kontra jarri zen, eta suposizio hori ez dago Descartesi egozterik. Berak ideiak batez ere "jatorrizko" deitu bazituen, printzipioz esperientziatik independenteki eratuak izan zitezkeelako izan zen (baina inola ere ez beti eta gizaki guztiek eratu beharrekoak zirelako).

Cartesiar frogatze-ahaleginari justizia egiten zaio, baldin eta bere premisa adierazigabeak kontuan hartzen badira soilik, infinituari finituaren aurrean nagusigoa dagokiolako suposizioa batik bat²⁸. Gainera Descartesek suposatu zuen izaki finituen kontzeptuak infinitu ideiarene murrizketaz soilik era daitekeela. Nola guk niaren kontzeptu bat substantzia finitu gisara daukagun eta nola hori infinituaren ideiarene bitartez soilik posible den, nahiz eta gehienetan potentzialki soilik, infinituaren (eta era berean, Jainkoaren) ideiaz jabetzen gara.

²⁷ Dissertatio de methodo, IV; VI, 558 or: Ego cogito, ergo sum, sive existo.

²⁸ Meditationes, III; AT VII, p. 45: intelligo... priorem quoddammodo in me esse perceptionem infiniti quam finiti...

Bosgarren meditazioan Descartes Jainkoaren existentzia Jainko kontzeptuaren definiziotik deduzitzen ahalegindu zen. Jainko kontzeptuari izaki absolutuki perfektua den heinean perfekzio guztiak dagozkio, baita existentziaren perfekzioa ere. Hortik ondorioztatu zuen Descartesek "Jainkoa existitzen da" judizioa derrigorrezkoa dela. Geroago "ontologiko" deitu zitzaion frogara horrek, lehen aldiz Anselmo Canterburykoak proposatu zuenak, beti tupust egin zuen kritikarekin, baina defendatzaileak ere beti aurkitu zituen. Metafisika arrazionalistarentzat ezinbestekoa da, beraz ez da harritzekoa Descartesek geroagoko idatzietan Jainkoaren frogara kausalaren aurretik aipatzea.

Jainkoaren frogara horren garrantzia nabarmentzen da, kontutankontuan hartzen bada metafisikak, ez Descartes iritzian soilik, baizik eta filosofia arrazionalistaren defendatzaile guztienean, behaketatik independentea den errealtatearen beraren zertzeladen ezagutza izan behar duela. Horregatik kontzientziatik independentea den errealtate bat dagoelako arrazoi-egia hutsen bitartez demostratu behar da. Pentsazetik izaterako pausoa, zioten metafisika arrazionalistaren defendatzaileek, Jainkoaren ideiatik abiatu eta bere baitan den izaki baten ideia dela erakutsiz gero bakarrik egin zitekeela. Spinozaren kasuan kontzeptzio horrek eraman zuen metafisika zientzia axiomatikoko gisara aurkeztera eta bere proposizioak definizioetatik eta axioma ebidenteetatik ondorioztatuz, Descartesek *Meditationes*-i buruzko debatearen markoan zirriborro gisara eta erreserba handiekin²⁹ egin zuenez. Matematikaren edo logikaren sistema axiomatikoko batek kontraesanik ez izatearen eta perfekzioaren baldintzak soilik bete behar ditu; metafisikan, horrezaz gainera frogatu behar da, oinarriko kontzeptu eta proposizio metafisikoak objektu errealekin erlazionaturik daudela, eta frogara hori sistemaren bitartez demostratu behar da, Jainkoaren frogara ontologikoan gertatzen denez, zeinarekin metafisika arrazionalistaren defendatzaileek pentsazetik izaterako zubi bat ezarri nahi zuten³⁰.

8. Jainkoaren egiazkotasuna eta kanpoko munduaren ezagutza

Jainkoa, hau da, izaki absolutuki perfektu bat existitzen dela eta finitu oro haren menpean dagoela frogatu den bezain laster, Jainkoak iruzur egin lezakeen suposizioa balio gabe gelditzen da: Jainkoa, bere perfekzioarengatik, ezin liteke iruzurgile izan. Jainkoak iruzurrik egin ezin duen ideiarekin, zalantza erradikalari oinarria kentzen zaio; Jainkoak era berean gure judizioen egia bermatzen du —jakina ez edozeinena, baizik eta judizio ebidenteena (eta ebidenteetatik ondorioztatuen)---.

Judizioak ebidenteak dira, baldin eta ideia bereziak bakarrik bere baitan badauzkate, hau da, osagai guztiak argi dauzkaten ideiak. Ideia bati "argi" deitzen zaio, baldin eta bere edukia izpirituari nabaria izateko beste presente zaion. Bestela ideiarik "ilun" deitzen zaio. Ideiak, osagaia erabat argi dituztenak, beste ideia guztietatik behar bezain bereziak dira; distinktuak (latinezko "distinguere"-tik) dira; bereziak ez diren ideiei "nahasi" deitzen zaie. Argiro kontsideratzen zituen Descartesek matematika, natur

²⁹ *Meditationes, Secundae responsiones: rationes Dei existentiam et animae a corpore distinctionem probantes more geometrico dispositae*; AT VII, 160 hh. or.

³⁰ Wolfgang Röd: *Der Gott der reinen Vernunft*. München 1992.

zientzia matematikoaren eta metafisikaren ideiak bereizi gisa. Eredu horretan posible da Jainkoak bermaturiko behin betiko ezagutza ere.

Idea bereizi eta nahasien arteko bereizkuntzak, Laugarren meditazioan, izaera teologikoa duela dirudien arazo bat konpontzeko balio du. Descartesek ikertu zuen auzi bat, ea zergatik Jainkoak ez duen giza izpiritua sortu inoiz ez erratzeko eran; zeren eta absolutuki perfektua bada, hori bere ahalmenean ezarria izan behar baitu. Descartesen arabera, Jainkoa ez da gizakien errakuntzen erantzule, zeren gizakiak berak bakarrik erabakitzen baitu, ideia nahasi edo ilunen baitan judizio bat adierazten duen ala ez; epaitzen badu, orduan ebidentzia gabe egiten du eta ezin du Jainkoaren egia-bermea izan.

Gainazal teologikoaren atzean zailtasun bat dago ezkutaturik, filosofia arrazionalistarentzat tipikoa dena: alde batetik ez dago ukatzerik, behin eta berriz erratzen egiten dugula; bestalde, iritzi arrazionalistaren arabera, gure kontzeptuak eta gauzen esentziak berak Jainkoagan euskarrituriko ordenakoak dira, beraz errakuntza pentsatze- eta izate-ordenaren arteko desadostasun gisara badirudi ezin litekeela posible izan. Descartes saiatu zen zailtasuna suposizio baten bitartez gainditzen, pentsatzearen eta izatearen konkordantzia pentsatze arrazionalera mugatzen dela, izatearen ordena arrazionalari dagokiola. Errakuntzak hitz batekin soilik sor daitezke, baldin eta arrazionaltasunaren mugak gainditzen badira.

Pentsamendutik independentea den gauza materialik badagoen, zeinekin judizio zientifiko naturalak erlazionatzen diren, oraindik demostratu beharra dago, eta arazo hori Descartes Seigarren (eta azken) meditazioan konpontzen saiatzen da. Xede horrekin gogoeta egiten du sentazioez, baita argitasuna, atsegina, oinazea eta abar bezalako inpresioez ere. Sentazioen aurrean pasiboki portatzen garenez, ez da suposatu behar, subjektuak sortuak direnik; baizik eta kanpoko gauzen efektutzat kontzebitu behar dira. Sentazioak, normalean uste izaten dugunez, ez kausa materialek baizik eta kausa materiagabe batek eraginak direlako ez dago onartzerik: joera naturala baldin balitz gure sentazioak kausa materialekin faltsuki erlazionatzea, orduan Jainkoa, gure natura joera horrekin eratu duena, iruzurgile izango litzateke eta hori, egiazko Jainkoaren existentziarekin frogatu denez, bazterturik dago³¹. Gainerakoan sentazioek ez dituzte gauzak kopiatzen, baizik eta horien funtzio datza gu natura materialarekiko harmonia batean portatzera bultzatzean; beraz ez dira ezagutzaren teoriaren ikuspuntutik soilik epaitu behar, baita biologiaren ikuspuntutik ere.

9. *Meditationes eta Metafisika modernoa*

Nahiz eta cartesiar metafisikan ideia tradizional asko dagoen³², ez da behar bezala ulertzen, baldin eta bertan kontzepzio zaharren jarraipena bakarrik begiesten bada. Ez da ere aski bere garaitik begiratuta ulertzea, baizik eta beharrezkoa da, bere elementu

³¹ Meditationes, VI; VII, 79 or. eta hh.

³² Horri buruz, adibidez, Etienne GILSON-ek berri eman du: *Etudes sur le rôle de la pensée médiévale dans la formation du système cartésien*. Paris. 21930 (Berrinprimatua Paris 1951)

jakin batzuen bilakaera ondorengo filosofian, batez ere filosofia transzendentalean kontsideratzea³³.

Descartesek egindako filosofia transzendentaleko ideien aurrerapena bigarren meditazioko argizari-zatitxoan adibide sonatuarekin frogatzen da. Hor saiatzen da Descartes erakusten niaz eta bere arrazoimenaz aparte ez dagoela ezer objektu gisa atzematerik. Nik gauza bat, adibidez, argizari-zati bat, hautematen badut, hori ez da ikuste bat (visio), ukitze bat (tactio), irudimenezko errepresentatze bat (imaginatio), baizik eta begieste arrazional bat (solius mentis inspectio)³⁴. Ikusten, haztatzen, entzuten duguna eta abar entzuna, haztatua, entzuna eta abarren baitan dagoenarekin erlazionatzen dugu, eta erlazio hori judizioan izpirituaren akto gisa ekoizten da³⁵. "Cogito ergo sum" honako gogoeta honen laburbilduma gisara kontzebitzen da: nik objektuak esperimendatzen ditut, eta hori ni izpirituaren baten judizioaren indarrez bakarrik da posible; beraz existitzen da nia³⁶. Aldi berean argizari-zatitxoan adibideak argi utzi behar du, gauzen esperientzia ezin dela hartze soil baten modura kontzebitu, baizik eta niaren akto bat inplikatzeko duela, geroko filosofia kantiar eta postkantiarrean sakonago erakutsi zenez.

Baldin eta cartesiar filosofian filosofia transzendentalerako bidetik emandako lehen urrats bat ikusten bada, orduan prest egongo gara printzipio filosofiko naturaletara (inertziaren printzipioa bezalakoetara) ez murrizteko, baizik eta horren gainetik esperientziaren teoria bezala berrezagutzeko. Horrela ikusita, natur zientziak baliotasun objektiborako dituen uziak justifikatzeko funtzioa du. Nia, Jainkoa eta naturak Jainkoarekiko duen menpekotasunari buruzko printzipioak teoria bati dagozkio, zeinaren laguntzarekin objektuen ezagutza ulergarri bihurtu daitezkeen³⁷. Horrek munduari buruzko gure judizioak, hau da judizio zientifiko naturalak objektiboki baliozkoak direla frogatzen duen bitartean, baztertu egiten du natur zientzien kontzepzioa eraikuntza subjektibo, zeinukiko joko soil gisara

Natur filosofiaren, baita natur zientzien oinarritapen aprioristiko baten kontzeptu arrazionalista zaharkiturik gelditu da; aldiz, filosofia baten kontzeptua, esperientzia (zientifiko)aren teoriak badu gaurkotasuna. Descartesengan bi kontzepzioak ez daude oraindik argiro bereizirik, baina kontzepzio tradizionalak badirudi lekua prestatu diola metafisikaren kontzepzioaren nagusigoari esperientziaren teoria gisara. Bigarren kontzepzioa ere Descartesengan aurkitzen delako faktua tradizio batean kokatzeraino iristen da, zeina Kant eta kantiarren gainetik 20. mendeko filosofia transzendentaleraino eramaten duen, hau da, Edmund Husserlenganaino kontzepzio baten defendatzaile gisara, zeina cartesiar kontzepzioaren jarraipen legez argiro berrezagatu ez ezik, halakotzat ulertu ere egin behar den. Husserlek "Ego cogito"-an jakitearen azken oinarria begietsi zuen eta eta idea horretan Descartesekiko adostasunean, zeinari aurpegiratzen zion Egoa artean gauza (res) mota bat bezala, beraz mundu-zati bat bezala kontzebitu izana, nahiz eta hori izan gauzen esperientzia munduan ahalbidetu duena.

³³ Hori egin zuen Edmund HUSSERLEK, adibidez, in: Vorlesungen über "Erste Philosophie". Den Haag 1956/1957 (Husserliana, voll. VII-VIII).

³⁴ Meditationes, II; VII, 31 or.

³⁵ Ibid. 32 or.

³⁶ Meditationes, IV; AT VII, 58 or: "...cum examinarem... an aliquid in mundo existeret, atque adverterem, ex hoc ipso quod illud examinarem, evidenter sequi me existere...".

³⁷ Metafisikaren kontzepzio horretarako ikusi Wolfgang RÖD: Erfahrung und Reflexion. Theorien der Erfahrung in transzendentalphilosophischer Sicht. München. 1991.

Gainera "Cogito ergo sum" ezin zitekeela axioma bezala kontzebi pentsatzeari ekin zion, zeinatik teorema ondoriozta zitezkeen. Ideia horretan Husserlen kritikak ez du Descartesekin zerikusirik, baldin eta cartesiar metafisika hemen adierazitako eran ulertzen bada.

Descartesengandik hasi eta Kantengan zehar 19. eta 20. mendeetako filosofia transzendentaleraino daraman bidea ez da Husserlekin amaitzen. Konkreterik Descartesena ez ezik, Kant eta Husserlen ideiak ere jadanik ez dira gureak. Teoria bezala ulerturiko metafisika batek, zeinaren marko barruan esperientzia, baita objektuen ezagutza ere, posibletzat uler daitezkeen, badu gaurkotasuna lehen eta orain. Descartes behar bezala interpretatu nahi izanez gero, ez da ahaztu behar, bera ideia horren bide-atontzaile izan dela.

Wolfgang RÖD

Bibliografia

Edizioak

Oeuvres, edd. Ch. Adam et Tannery. Paris 1897 hh. (21964 hh.)

Oeuvres philosophiques, I-III, de. F. Alquié. Paris 1963, 1967, 1973.

Biografiak

BAILLET, Adrien: Vie de M. Descartes, 2 libki. Paris 1691. (Hildesheim eta New Yorken 1972an berrinprimatua).

ADAM, Charles: Vie et oeuvres de Descartes. Etude historique. Paris 1910 (= libkia XII Oeuvres, edd. Ch. Adam et Tannery).

RODIS-LEWIS, Geneviève: Descartes. Biographie. Paris 1995.

Bibliografiak

Bulletin Cartésien, urtero in: Archives de Philosophie, 35 hh. (1972 hh.)

SEBBA, Gregor: Bibliographia Cartesiana. A Critical Guide to the Descartes Literature 1800-1860. Den Haag 1964.

CHAPPELL, Vere eta DONEY, Willis: Twenty-Five Years of Descartes Scholarship, 1960-1984. New York 1987.

Baliabideak

ARMOGATHE, Jean-Robert eta MARION, Jean-Luc: Index des Regulae ad directionem ingenii de René Descartes. Roma 1976 (Lessico intellettuale europeo, 10 = Corpus cartesianum, 2)

ROBINET, André: Méditationes métaphysiques, Cogito 75. Tableau alphabétique des formes lexicales. Tableau fréquentiel. Concordances. Paris 1976.

Bigarren mailako bibliografia

Descartes-en Filosofia.

(artikulurik gabe):

ALQUIÉ, Ferdinand: Descartes, l'homme et l'oeuvre. Paris 1956.

-, La découverte métaphysique de l'homme chez Descartes. Paris 1950.

ARMOGATHE, Jean-Robert: Theologia Cartesiana. L'explication physique de l'Eucharistie chez Descartes et Desgabets. Den Haag 1977.

BECK, Leslie J.: The Metaphysics of Descartes. Oxford 1965.

-, The Method of Descartes. Oxford 1952.

BELGIOIOSO, Giulia et al. (edd.): Descartes: Il metodo e i saggi. Roma 1990 (Acta Encyclopaedica, 18)

BEYSSADE, Jean-Marie: La philosophie première de Descartes. Paris 1979.

CRAPULLI, Giovanni: Introduzione a Descartes. Bari 1988.

CATON, Hirman: The Origin of Subjectivity. An essay on Descartes. New Haven und London 1973.

CURLEY, Edmund M.: Descartes against the Skeptics. Cambridge (Mass.) 1978.

FRANKFURT, Harry G.: Deamons, Dreamers and Madmen. The Defence of Reason in Descartes' Meditations. Indianapolis 1970.

- GARIN, Eugenio: Vita e opere di Cartesio. Roma eta Bari 21986.
- GAUKROGER, Stephen: Descartes. An Intellectual Biography. Oxford 1995.
- , (de.): Descartes. Philosophy, Mathematics and Physics. Brighton 1980.
- GILSON, Etienne: Etudes sur le rôle de la pensée médiévale dans la formation du système cartésien. Paris 1930 (21951).
- , Index scolastico-cartésien. Paris 1913.
- GOUHIER, Henri: Le pensée métaphysique de Descartes. Paris. 1962.
- GRENE, Marjorie: Descartes. Minneapolis 1985.
- GUEROULT, Martial: Descartes selon l'ordre des raisons, I-II. Paris 1953.
- HUSSERL, Edmund: Cartesianische Meditationen und Pariser Vorträge. Den Haag 1950 (Husserliana, I).
- JASPERS, Karl: Descartes und die Philosophie. Berlin 31956.
- KENNY, Anthony: Descartes. A Study of His Philosophy. New York 1968.
- LEROY, Maxime: Descartes, le philosophe au masque, I-II. Paris 1929.
- , Descartes social. Paris. 1931.
- MARION, Jean-Luc: Questions cartésiennes. Méthode et métaphysique. Paris 1991.
- , Sur la théologie blanche de Descartes. Paris 1981 (21991).
- , Sur l'ontologie grise de Descartes. Savoir aristotélicien et science cartésienne dans les Regulae. Paris 1975.
- , Sur le prisme métaphysique de Descartes. Paris 1986.
- MESNARD, Pierre: Essai sur la morale de Descartes. Paris 1936.
- PACHO, Julián: Ontologie und Erkenntnistheorie. Eine Erörterung ihres Verhältnisses am Beispiel des Cartesianischen Systems. München 1980.
- PERINI, Roberto: La metafisica cartesiana dell'infinito. Napoli 1993.
- RODIS-LEWIS, Geneviève: L'oeuvre de Descartes. Paris 1971.
- RÖD, Wolfgang: Descartes. Die Genese des Cartesianischen Rationalismus. München 1995.
- , Descartes' Erste Philosophie. Bonn 21987.
- SPÈCHT, Rainer: Descartes. Reinbek 1966 (61992).
- WILLIAMS, Bernard: Descartes. The Project of Pure Inquiry. Harmondsworth 1978.

Metodoari buruzko diskurtsoa

Norberaren arrazoia ondo zuzentzeko eta zientzietan egia bilatzeko

Diskurtso honek dena batera irakurtzeko luzeegia badirudi, sei zatitan bana daiteke. Lehenengoan zientziei buruzko zenbait gogoeta aurkituko da. Bigarrenean egileak bilatu duen metodoaren araurik nagusienak. Hirugarrenean metodo honetatik atera dituen moralari dagozkion arau batzuk. Laugarrenean metafisikaren oinarriak diren Jainko eta giza arimaren existentzia frogatzeko erabili dituen arrazoiak. Bosgarrenean aztertu dituen fisika arazoan ordena, eta batik bat, bihotzaren higiduraren azalpena eta baita medikuntzari dagozkion beste zenbait zailtasunena ere, eta gainera, gurearen eta animalien arimaren arteko aldea. Eta azkenengoan, bere iritziz, naturaren ikerketan bera heldu dena baino areago heltzeko bete behar diren urratsak, eta hau guztia idaztera bultzatu duten arrazoia.

LEHEN ZATIA

Sen ona¹ da munduan ondoen banatuta dagoen gauza; izan ere, guztiok uste dugu guztiz aski hornituak gaudela berataz, eta hori dela eta, gainerako gauza guztietan asegaiztenak direnek ere ez dute nahi izaten sen on horretatik badutena baino gehiago izatea. Eta ez da egiantzekoa horretan mundu guztiak bere burua engainatzea. Aitzitik, honek lekukotzen du ondo irizteko [juzgatzeko] eta egia eta faltsuaren artean bereizteko ahalmena -berez sen ona edo arrazoia deritzoguna- gizaki guztiengan berdina dela. Eta honela, gure aburuen arteko ezberdintasuna ez da sortzen batzuk besteak baino arrazonagarriagoak izatetik, euren jatorria zera baino ez da izango: gure pentsamenduak bide ezberdinetatik zuzentzen ditugula eta gauza ezberdinak hartzen ditugula kontutan. Ez baita nahikoa adimena azkarra izatea, haatik bera ondo erabiltzea da lehena. Arimarik handienak biziorik handieneterako gai dira, bertuterik handienetarako gai diren bezalaxe, eta oso astiro abiatzen direnek, beti bide zuzenari jarraitzen bazaizkio, askoz arinago aurrera dezakete lasterka eta bidetik urrunduz doazenek baino.

Niri dagokidanez, ez dut sekula nire adimena gehiengoarena baino perfektuagotzat jo. Izan ere, sarritan eduki nahi izan dut nire pentsamendua beste batzuen bezain azkarra, edo irudimena garbia eta bereizia, edo oroimena zabala eta arina. Eta ez dut ezagutzen beste nolakotasunik adimenaren perfekzioerako balioko duena. Zeren arrazoimenari, edo senari, dagokionez, animalietatik bereizten gaituen gauza bakarra bera denez, nahiago baitut pentsatu bakoitzarengan oso-osorik dagoela, eta horrela filosofoen² iritzi

¹ Sen ona, egia eta faltsuaren artean bereizteko ahalmena da Descartesengan, hau da, arrazoimena. Hau ez da nahastu behar Meditazio Metafisikoetako *sens commun* delakoarekin, sentigarritasun orokorrari dagokiona.

² Hemen filosofo eskolastikoez ari da.

komunari jarraituko natzaio. Hauek zera diote: gehiagoa edo gutxiagoa akzidenteei dagokiela, eta sekula ere ez espezie bateko banakoen formei edo naturei.

Alabaina, ez dut eragozpenik esateko zori handikoa izan naizela nire burua gaztarotik bide jakin batzuetan murgildua aurkitu dudala eta. Bide hauek zenbait gogarketa eta arauetara eraman naute euren bidez metodo bat sortu dudalarik; eta iruditzen zait beraren bidez nire ezagupena mailaka gehitu ahal izango dudala, eta pittinka-pittinka eta nire gogoaren eskaskeriak eta nire bizitzaren iraute laburrak zilegiko didan neurrian punturik gorenenera ailegatuko naizela. Metodo horretatik dagoeneko hainbat fruitu atera dudala eta, asetasun galanta besterik ez dut jasotzen egiari buruzko ikerketetan egin dudan aurrerabideari buruz pentsatzen dudanean; nahiz eta nire buruaz daukadan iritzian mesfidantzara jotzen dudan harrokeriara baino gehiago, eta, filosofo ikuspegitik begiraturaz gero, gizakien ekintza eta eginkizun guztiak alferrikakoak iruditzen zaizkidan arren. Eta, etorkizunari begira bururatzen ditudan itxaropenak direla eta, nire iritzia da gizaki hutsei dagozkien eginbeharren artean ona eta garrantzitsua den bat izatekotan nik aukeratu dudan haxe izango dela.

Baliteke, hala ere, ni oker egotea, eta urre eta diamantetzat hartzen dudana kobre eta kristal pittin bat baino ez izatea. Badakit benetan lotuak gagozkiola hutsegiteari gure buruari dagozkion gaietan, eta baita susmagarriak izan behar zaizkigula adiskideen irizpenak gure aldeko direnean. Baina nahikoa izango dut diskurtso honetan zein bideri jarraitu natzaion erakutsita, eta nire bizitza koadro batean bezala irudikatuta, horrela bakoitzak bere iritzia eman ahal izan dezan. Berari buruz jendearen artean sortuko diren zurrumurruetatik iritzia jasoz, nire burua eskolatzeko bide berri bat izango dut horrela, orain arte erabili ohi ditudan besteei gaineratuko diedana.

Honela ba, nire asmoa ez da bakoitzak bere arrazoa ondo zuzentzeko zein metodori jarraitu behar dion irakastea, baizik eta erakustea nirea nola saiatu naizen zuzentzen. Arauak ematera sartzen direnek arau horien jasotzaileak baino trebeagotzat jo behar dute euren burua, eta gauzarik txikienean huts egiten badute gaitzesgarriak izango dira. Baina nik idazki hau istorio baten gisa edo, nahiago baduzue, alegia baten gisa besterik ez dut proposatzen -bertan jarraigarriak diren adibide batzuen artean, arrazoiz jarraituko ez zaien beste zenbait aurkituko direlarik- eta espero dut norbaitentzat baliagarria izango dela, inorentzat kaltegarria izateke, eta denek eskertuko didazuela nire zintasuna.

Ni txikitatik izan naiz letretan³ hezia eta, hauen bidez bizitzarako onuragarria den guztiaren ezagupen argi eta segurua lor nezakeela sinestarazi zidatenez, irrika handiz landu nituen. Baina ikasketa hauek burutu bezain laster -bukaeran jakitunen⁴ artean onartua izan ohi delarik- zeharo aldatu nuen iritziz. Zeren, nahasten ninduten zalantza eta hutsegiteak ugariak zirenez, iruditzen zitzaidan eskolatzeko ahaleginetatik jaso nuen onura bakarra zera zela: nire ezjakintasun gero eta handiagoaz jabetzea, alegia. Eta hala ere, ni Europako eskolarik ospetsuenetariko batean nengoen⁵, munduan inon gizaki jakintsurik egotekotan hantxe egon behar zuela ustez. Bertan beste guztiek ikasi zutena ikasi nuen, eta, halaber, irakasten zizkiguten zientziekin ez-ase, nire esku artera erori ziren liburu guztiak miatu nituen, baita gai arraroen eta bitxienei buruzkoak⁶ ere.

³ Hemen humanitateei buruz ari da: gramatika, his toria, poesia, eta erretorikaz.

⁴ Zuzenbide ikasketez ari da, 1616ko azaroan burutu zituena, Poitierseko Unibertsitatean.

⁵ La Flècheko jesuiten ikastetxean.

⁶ Zientzia ezkutuei buruz ari da, hau da, alkimiaz, astrologiaz eta magiaz.

Horrekin batera, beste guztiek nitaz ematen zituzten iritziak ezagutzen nituen, eta ez nekusan nire ikaskideak baino gutxiagotzat jotzen nindutenik, hauetariko baten batzuk gure maisuen lekua betetzera destinaturik zeuden arren. Eta azkenik iruditzen zitzaidan gure mendea aurreko beste edozein bezain emankorra eta aberatsa zela adimen azkarretan. Honek askatasuna eman zidan beste guztiei buruz nire iritzia emateko, eta pentsatzeko, gainera, munduan ez zegoela aurretik agindu zidaten legezko doktrinarik.

Hala ere, eskoletan lantzen diren ariketak estimatzen nituen oraindik. Banekien jakin bertan ikasten diren hizkuntzak antzinako liburuak ulertzeko beharrezkoak direla; alegien atsegintasunak adimena iratzarten duela; istorioetan kontaktzen diren ekintza gogoangarriek (eurak zuhurtasunez irakurriz gero) adimen hori goratzen dutela eta irizmena eratzten laguntzen dutela; liburu on guztien irakurketa euren egileekin (joan diren mendeetako gizakirik prestuenekin) jardun egitea bezala dela, eta jardun ikasia gainera, bertan euren pentsamenduetatik onenak erakusten baitizkigute; hitz-etorriak indar eta edertasun paregabeak dituela; poesiak sentiberatasun eta gozotasun liluragarriak dituela; matematikak oso asmaketa zorrotzak dituela, oso baliagarriak izan daitezkeenak bai jakinguren nahiak asetzeko eta baita langintza guztiak erraztu eta gizakien lanak arintzeko ere; anitz irakaspen jasotzen direla ohiturez diharduten idazkietan, eta baita bertutearen aldeko anitz aholku ere, guztiak oso baliagarriak direnak; teologiak zerua nola irabazi irakasten duela; filosofiak⁷ gauza guztiei buruz egiantzaz hitz egiteko bidea ematen duela, eta baita gutxiago dakitenen miwespena jasotzekoa ere; jurisprudentziak, medikuntzak eta beste zientziek ohoreak eta aberastasunak eskaintzen dizkietela lantzen dituztenei; eta, azkenik, ona dela hauek guztiak aztertuak izatea, baita sineskeriatsuenak eta faltsuenak ere, euren balioa zehaztasunez ezagutzeko eta ez gaitezen engainatuak izan.

Baina uste nuen zegoeneko nahikoa asti emana niela hizkuntzei eta antzinako liburuen irakurketari, eta baita hauen istorio eta alegiei ere. Izan ere, ia gauza bera baita beste mendeetakoekin hitz egitea eta bidaiatzea. Ona da herri anitzen ohiturei buruz zerbait jakitea, horrela geureaz iritzi zuhurragoa izan dezagun eta ez dezagun pentsa gure ohituren aurkakoa den guztia barregarria edo arrazoiaren aurkakoa dela, ezer ikusi ez dutenek egin ohi duten legez. Baina bidaiatzeari denbora gehiegi ematen diona, azkenean, atzerritar bihurtuko da norberaren herrian; eta joandako mendeetan lantzen zituzten gauzez jakinguregi denak gaur egun egiten diren gauzez zeharo ezjakina iraungo du gehienetan. Gainera, alegiek ezinezkoak diren zenbait gertakizun ahalezko bezala irudikatzea eragiten dute. Eta istoriorik zehatzenek ere alde batera utziko dituzte gorabeherarik arruntenak eta ezezagunenak (gauzen balioa ez aldatzen ez gehitzen badute ere), horrela eurak irakurtzeak gehiago mereziko duelakoan. Honen ondorioz, gainerako guztia ez da agertuko benetan den bezala, eta euren ohikuntzak istorioetatik ateratako adibideekin arautzen dituztenek gure elaberrietako paladinen nabarmenkerietan ibiltzeko joera izango dute, eta baita euren indarrak gaitutuko dituzten egitasmoak bururatzeko joera ere.

Hitz-etorria asko estimatzen nuen, eta poesiaz maitemindurik nengoen, baina bata nahiz bestea ikastearen fruitu baino gehiago adimenaren dohain zirela uste nuen. Arrazoimena sendoagoa daukatenek eta euren pentsamenduak argiak eta ulergarriak egiteko hobeto ordenatzen dituztenek arinago konbentzi dezakete edozein proposatzen

⁷ Jesuitenean filosofiaren ikasketa azken hiru urteetan ematen zen, bertan Aristotelesengan oinarritutako filosofia eskolastikoa lantzen zelarik. Lehen urtean logika ikasten zen, bigarrenean fisika eta hirugarrenean metafisika.

dutenaz, nahiz eta bretainera mordoiloz baino ez hitz egin eta erretorika inoiz ikasita ez izan. Eta asmaketarik atseginenak bururatzen dituztenak, eta eurak apaindura eta goxotasun handiagoarekin adierazten dakizkitenak, poetarik handienak izango lirateke beti, poesi artea ezagutuko ez balute ere.

Nik batez ere matematikak nituen gogoko, euren arrazoiak ziurak eta nabariak direlako, baina ez nintzen konturatu oraindik zein zen euren benetako erabilera; eta uste nuen arte mekanikoetarako baino ez zutela balio, harritzen ninduen euren gainean zerbait gorenagoa eraikia ez izatea, oinarriak hain sendo eta tinkoak izanik. Ostera, antzinako jentilen⁸ ohiturei buruzko idazkiak zerarekin parekatzen nituen: hain zuzen, lokatza eta hare gainean eraikita egongo liratekeen jauregi distiratsu eta harrigarri batzuekin. Izan ere, idazki horiek bertuteak gorai patzen dituzte eta inon diren gauza guztiak baino estimagarriagoak eman dezatela eragiten dute, baina ez dute ondo irakasten bertute horiek ezagutzeko bidea, eta, sarritan, halako izen politaz aipatzen dutena zera baino ez da: sentikortasun eza, harrokeria, etsipena edo gurasoeraitea.

Nik gure teologia gurtzen nuen eta zerua irabazi nahi nuen beste edozeinek bezala; baina ikasi nuen, gauza oso segurua bailitzan, bidea ez dagoela itxiagoa ezjakinentzat jakintsuentzat baino eta bertara daramaten egia errebelatuak gure adimenaren gainetik daudela, eta honegatik ez nintzen ausartuko egia horiek nire arrazonaketen ahuleziaren menpe jartzera. Eta, hori dela eta, ideia horien azterketa hasi eta burutu nahi banuen, premiazkoa iruditzen zitzaidan zerutik laguntza itzelen bat jasotzea eta gizaki baino zerbait gehiago izatea.

Filosofiaz⁹ honakoa esango dut, besterik ez: ez nuela nahikoa harrokeria pentsatzeko besteek baino emaitza hobekak lortuko nituela -kontutan izanda aspaldiko mendeetan bizi izan diren adimenik bikainenek landu dutela bera eta, hala ere, ez dela aurkitzen bere baitan eztabaidagai izango ez den ezer, eta, beraz, zalantzarria izango ez den ezer-. Eta oharturik gai berari buruz jende jantziaren artean iritzi ezberdin ugari egon daitekeela (ezin egon den arren egia izango den bat baino gehiago), ia-ia faltsutzat hartu nuen egiantzekoa baino ez zena.

Gero, gainerako zientziei dagokienez¹⁰, nire iritzia honako hau zen: euren hastapenak filosofiatik hartzen zituztenez, ezinezkoa izango zela hain ahulak diren oinarrietan sendoa izango zen ezer eraikita egotea. Eta agintzen duten ohorea eta irabazia ez ziren nahikoa ni horiek ikastera makurtzeko. Zeren, Jainkoari eskerrak, ez bainuen nire burua halako premiatan sentitzen zientzia nire aberastasunaren onerako tresna egin beharra izateko; eta nahiz eta ez nuen aldarrikatzen zinikoki ohorea gutxiesten nuela, gutxi axola niri sasi-titulu hutsetatik eskuratzea espero nezakeena. Azkenik, doktrina txarrei¹¹ dagokienez, nire ustez, nahikoa ezagutzen nuen euren balioa, eta horregatik, ez ninduten oker egotera bultzatuko ez alkimista baten agintzariek, ez astrologo baten aurreiragarpenek, ez azti baten iruzurrek eta ezta dakitena baino gehiago jakiteko itxura egiten dutenen ez amarruek eta ezta harrokeriek ere.

Hau dela eta, nire adinak nire maisuen menpekotasunetik alde egiten utzi zidan bezain laister, letrak lantzeari utzi nion erabat. Eta bakarrik nire baitan edo munduko liburu

⁸ Filosofo estoikoei buruz ari da hemen.

⁹ Hau da, eskolastikaz.

¹⁰ Zuzenbidea eta medikuntza bereziki.

¹¹ Berririo aipatzen ditu zientzia ezkutuak, hau da, alkimia, astrologia eta magia.

handian aurki zitekeen zientzia bilatu behar nuela erabakita, nire gaztaroko gainerako denbora guztia bidaiatzen eman nuen, gorteak eta armadak ikusten, natura eta bizibide ezberdinetako jendearekin harremanetan, nire burua probatuz halabeharrak eskaintzen zizkidan ustekabeen aurrean, eta, beti ere, niretzat onuragarriak izan zitezkeen gogoetak eginaz agertzen zitzaizkidan gauzei buruz. Zeren niri iruditzen baitzitzaidan askoz ere egia gehiago aurki nezakeela norberak agertzen zaizkion gauzei buruz egiten dituen arrazonamenduetan (iritzi okerra jarraitu badu ondorioek zigortuko duten horietan) letragizon batek bere bulegoan sartuta (eta inolako eraginik gabeko espekulazioei buruz) egiten dituen arrazonamenduetan baino, azkenon emaitza eta ondorio bakarra zera izango litzatekeelarik: zenbat eta sen onetik urrutiago egon, orduan eta harrokeria handiagoa sortuko luketela, zeren arrazonamendu horiek egiantzekoak bihurtzeko adimen eta artificio gehiago erabili beharko da eta. Eta ni izugarrizko gogoarekin nengoen egia eta gezurraren artean bereizten ikasteko, horrela nire ekintzetan argiro ikusteko eta bizitza honetan segurtasunez abiatzeko.

Egia da ez nuela aurkitzen apenas ezer zertaz seguru egon beste gizakien ohiturak kontutan hartzen nituenean, hauetan ia filosofoen artean hainbat ezberdintasun aurkitzen bainuen. Honela, ikusirik badirela zenbait gauza guri oso arraro eta barregarri iruditu arren, beste herri handi batzuk onartu eta baitetsi ohi zituztenak, hemendik atera nuen onura handiena honakoa izan zen: ikasi nuela ez nuela ezer sinetsiko ziurtasunez edozein gauzari buruz adibideen eta ohituren bidez konbentzitura geratzen ez nintzen artean. Eta honela pittinka-pittinka zenbait errutik libratu nintzen, gure argitasun naturala itsu dezaketen eta gure arrazoia ulertzea zailago egin dezaketen zenbait errutik alegia. Baina behin urte batzuk eman nituela munduko liburuan honela ikasten eta esperientzia apur bat jasotzeko ahaleginak egiten, egun batean erabaki nuen nire baitatik ere ikastea eta nire gogoaren indar guztiak erabiltzea aurrerantzean jarraitu beharko nituzkeen bideak aukeratzeko. Eta hau guztia, nire ustez, askoz baliagoarriagoa izango zitzaidan, nire herritik eta nire liburuetatik inoiz urrundu izan ez banintz baino.

BIGARREN ZATIA

Ni orduan Alemanian nengoen, oraindik bukatu ez diren gerrak zirela eta deitua; eta enperadorearen koroaketatik armadaruntz bueltatzen ari nintzela neguaren hasierak koartel batean geldiarazi zidan. Bertan denbora guztia berogailu baten ondoan bakarreratua eman nuen, nire pentsamenduak lantzeko asti ugarirekin, ez nuelako aurkitzen gogokoa izan nezakeen elkarrizketarik eta gainera, zorionez, ez nuelako endredatuko ninduen batere kezka edo grinarik. Pentsamendu hauen artetik lehenetakoa zera izan zen: jabetu nintzela kontutan izan behar nuela zati ugariz osatua eta zenbait maisuren eskuez egindako lanetan ez dagoela, sarritan, bakar batek egindako lanetan hainbat perfekzio. Honela ikusten dugu arkitekto bakar batek ekin eta burutu dituen eraikuntzak ederragoak eta hobeto taxutuak direla, askoren artean (beste helburu batzuetarako jasotako harresi zaharrez baliatuz) berritu nahi izan dituztenak baino. Era berean, zenbait hiri zahar, hasieran herriska baino ez izanik denborarekin hiri handi bihurtu direnak, gehienetan oso gaizki taxutuak egoten dira parekatzen baditugu

ingeniari batek bere irudimenaren arabera lautada batean moldatu dituen herri erregularrekin; eta hiri zahar horietako eraikuntzek, bakoitza banaka hartuz gero, herriotakoek hainbat perfekzio edo gehiago izan dezakete sarritan, baina, hala ere, kontutan badugu nola dauden banatuak eraikuntza horiek (hemen handi bat, han txiki bat) eta zer bihurriak eta ezberdinak egin dituzten kaleak, eman dezake halabeharrak jarri dituela horrela eta ez arrazoimenaz baliatu diren gizaki batzuen nahimenak. Eta gogoan hartzen badugu hala eta guztiz ere beti izan direla zaintzaile batzuk arduratu direnak jendearen etxeek herriaren apaingarri bezala balio izan dezaten, erraz konturatuko gara zer zaila den gauzak ondo egitea besteen lanen gainean jardutean. Honela ba, iruditzen zitzaidan, aspaldi erdi basatiak izanik pittinka-pittinka zibilizatu diren herriak (euren legeak gauzatu dituztelarik hilketen eta auzien nahigabeak behartu dituzten neurrian) ezin daitezkeela antolatu elkartu zirenetik legegile¹² zuhur baten konstituzioari jarraitu diotenak bezain ondo. Era berean, ondo gauza ziurra da Jainkoak bakarrik moldatu duen benetako erlijioaren egoerak beste guztiak baino hobeto arautua egon behar duela askotik ere. Eta, giza arazoei buruz hitz eginez, nire ustez Esparta antzina oso loratsua izan bazen, honen arrazoia ez zen izan bere lege bakoitzaren berezko ontasuna, zenbait nahikoa bitxiak eta ohitura onen aurkakoak baitziren, baizik eta xede ber berara zuzenduta zeudela, bakar batek asmatu zituelako. Eta, era berean, pentsatzen nuen gehiago hurbiltzen zaizkiola egiari gizaki batek aurrean dituen gauzei buruz egin ditzakeen arrazonamenduak liburuetako zientziak baino (gutxienez bakarrik arrazoi gertakorrak eta frogapenik ez duten zientziak baino gehiago, pittinka-pittinka zenbait pertsona ezberdinen iritzietatik osatuak eta haziak izan direnak). Eta pentsatu nuen, gainera, arrazoimen osoa jaiotze puntutik izan bagenu gure esku, eta beti berak zuzendu izan bagintu, gure irizpenak ezin gardenagoak eta sendoagoak izango liratekeela; gizaki izan aurretik ume izan baikara, eta luzaroz gure gurarien eta oharkarien agintepean egon behar izan baitugu, eta hauek -gurariak eta oharkarien aginduak- sarritan elkarren aurkakoak dira eta beharbada ez digute aholkatzen beti onena.

Ez dugu ikusten, egia da, hiri bateko etxe guztiak lurreratzen direla eurak beste modu batera berreraikitzeke asmo hutsaz, ezta kaleak ederragoak egiteke asmoaz ere. Baina garbi ikusten dugu zenbaitek eurenak botatzen dituztela berreraikitzeke eta beste batzuetan horretara behartuak izaten direla etxeak eurak jausteko zorian daudelako edo oinarriak oso sendoak ez direlako. Adibide honekin honakoaz konbentzitu nintzen: ez litzatekeela zentzuzkoa izango norbaitek Estatu bat eraberritzeko asmoa egin zezala, horretarako oinarri guztiak aldatuz, edo lurrera zezala bera indartzeko; eta konbentzitu nintzen, era berean, ez litzatekeela zentzuzkoa izango inork zientzien gorputza (ezta hauek irakasteko eskoletan ezarria dagoen ordena ere), eraberritzeko asmoa egin zezala. Eta ondorioztatu nuen, bestalde, ordura arte nire sinesmenean jasoak nituen aburuei zegokienez, egin nezakeen gauzarik onena zela eurak ezabatzen ahalegintzea, gero berriz beste hobe batzuk ezartzeko, edo aurrekoak eurak ezartzeko behin arrazoiaren mailara egokitu eta gero. Nire uste sendoa zen honela nire bizitza askoz ere hobeto zuzentzea lortuko nuela, -oinarri zaharren gainean eraikia eta gaztaroan, egiak ote ziren aztertu gabe, nireganatu nituen hastapenetan oinarritua baino hobeto, alegia-. Honetan zailtasun batzuk igartzen nituen arren, ez ziren inondik ere konponbide gabekoak, eta ezin ziren parekatu arazo publikoarekin zerikusia duten gauzarik txikienen

¹² Likurgo aipatzen du hemen Descartesek.

eraberritzearekin. Gorputz handi hauek behin lurreratuta altxatzeko oso zailak dira, eta baita zutik eusteko ere behin astindu direla, eta euren erorketa oso bortitza izango da seguruenik. Gainera euren imperfekzioei dagokienez, baldin badituzte -eta euren artean dagoen ezberdintasuna aski da baieztatzeke anitzek badituztela-, erabileraren poderioz asko leundu dira, eta beste zenbait -zuhurtasunagatik kontutan hartu ezingo direnak- saihestu egin dira edo zuzendu ia igarri ere egin gabe. Eta, azkenik, ia beti euren aldaketa izango litzatekeena baino jasangarriagoak izaten dira; mendi artean bihurka doazen errepide handietan bezala gertatzen da, hauek pittinka-pittinka, erabili ahala, lauak eta erosoak bihurtzen dira, eta askoz ere hobea da hauei jarraitzea zuzenago (harkaitzetan gora igoz eta amildegietan barrena jaitsiz) joaten saiatzea baino.

Hau dela eta, ezin ditut nik onetsi, inolaz ere ez, arazo publikoetan beti beste eraberritzeren bat asmatzen diharduten giza natura bazter-nahastaile eta geldigogor horiek, deituak izan ez direnak, ez jaiotzez, ez aberastasunez, jendarteko arazoak gobernatzera. Eta idazki honetan halako zorakeriaren susmagarri egin nazakeen zertxobait legokeela uste izango banu, ni neu damutu egingo nintzateke erabat bera argitaratuko balitz. Nire asmo bakarra izan da neure pentsamenduak eraberritzen ahalegintzea eta eurak guztiz nirea izango den oinarri baten gainean eraikitzea, besterik ez. Nik egindako lana nahikoa gustukoa dut; hori dela eta, hemen bera adibide gisara erakusten badizuet ere, ez diot inori aholkatu nahi bera antzera dezala. Jainkoarengandik dohain hobek jaso dituztenek agian asmo gorenagoak izango dituzte, baina ni beldur naiz nire hauxe ere ez ote den batzuentzat ausartegia izango. Aurretik jasotako sinesmen guztiez libratzeko erabaki hutsa ez da guztiek jarraitu behar dioten eredu. Eta mundua hau egitea komeni ez zaien bi adimen motaz osatua dago ia erabat. Alde batetik, batzuek euren burua dena baino trebeagotzat hartuko dute, eta euren irizpenak arinegi botako dituzte, hori besterik ezin dute egin, eta ez dute izango nahikoa pazientzia euren pentsamendu guztiak ordenaturik eroateko; eta hemendik zera ondorioztatzen da: noizbait aurretik jaso dituzten hastapenak zalantzatan jartzeko askatasuna hartuko balute -gehiengoaren bidetik urrunduz- ezingo lioketela zuzen joateko hartu behar den bideari jarraitu, eta bizi guztian galdurik ibiliko liratekeela. Beste batzuek, berriz, nahikoa arrazoimen eta umiltasun izango dute, eta iritziko diote egia eta gezurraren artean bereizteko orduan eskola eman diezaieketen beste batzuk baino gutxiago direla, eta konformatu beharko dute beste hauen aburuei jarraituta, euren kabuz hobek bilatzen ibili ordez.

Eta niri dagokidanez, azken hauen artekoa izango nintzateke, zalantzarik gabe, maisu bat bakarrik izan banu edo ezagutu izan ez banitu garai guztietako jakintsuenen aburuen artean egon diren ezberdintasunak. Baina ikastetxean bertan ikasi nuen ezin zela bururatu ezer, ezta gauzarik xelebreena edo sinesgaitzena ere, filosofoen batek esan ez duena; eta ondoren, bidaiatzean, ezagutu nuen geurez biziro aurkakoak diren sentimenduak dituzten gizakiak ez direla horregatik ez basatiak, ez barbaroak, eta askok guk hainbat arrazoimen edo gehiago erabiltzen dutela; eta gogoan hartu nuen gizaki bera, adimen berarekin, benetan ezberdina bilaka daitekeela haurtzarotik frantziarren edo alemaniarren artean haziz gero, edo beti txinatarren edo kanibalen artean biziz gero. Eta gure jatzeko ohituretan ere, duela hamar urte atsegin genuen gauza, eta agian hamar urte barru ere atsegin izango duguna, gaur egun bitxia eta irrigarria iruditzen zaigu. Honetara benetako ezagupen batek baino, usadioak eta adibideak limurtzen gaitu, eta, hala ere, ezagutzeko zailak diren egiei dagokienez, botoen kopuruak ez du

frogapen baliorik, egiantzekoagoa delako gizaki bakar batek aurki ditzala, herri oso batek baino. Hau dena kontutan izanik ezin nuen nik inor aukeratu beraren iritziak besteenak baino nahigarriagoak izango lituzkeena nire ustetan, eta nire burua neuk zuzentzera behartua aurkitu nintzen.

Baina, bakarrik eta ilunpean doan gizaki baten modura, erabaki nuen behar hainbat astiro joango nintzela eta gauza guztietan beharbesteko begiramendu izango nuela, honela oso gutxi aurreratu arren ez nintzen behintzat eroriko. Halaber, ez nuen zeharo errefusatu nahi beste garai batean nire sinesmenean, arrazoiaren bitarterik gabe, irrista zitekeen inolako abururik, harik eta nahikoa asti eman arte, bai hastera nindoan lanaren egitasmoa burutzen eta baita egiazko metodoa aurkitzen nire gogoaren gaitasunak ametitzen dituen gauza guztien ezagutzara heltzeko.

Gazteago nintzela, filosofiaren sailetatik logika, eta matematikarenetik geometren analisisa eta algebra ikasi nituen, hiru zientzia edo arteok nire asmoa betetzen lagundu behar zidatela ematen zutelarik. Baina hauek aztertzean konturatu nintzen logikari zegokionez, silogismoak -eta gainerako bere arau guztietatik gehientsuenek- gehiago balio dutela aurretik ezagunak ditugun gauzak azaltzeko edo, lullen¹³ arteak bezala, ezagutzen ez ditugunei buruz inolako zentzurik gabe hitz egiteko, eta ez hainbeste gauza berriak ikasteko. Eta, benetan, oso egiak eta oso onak diren zenbait arau biltzen ditu, baina baditu, hala ere, horiekin nahastuta, kaltegarriak eta beharrezkoak ez diren beste zenbait, euren artean bereiztea landu gabeko marmolezko bloke batetik Minerva edo Diana bat ateratzea bezain zaila delarik. Bestalde, antzinakoen analisiak eta gaurko algebrak, oso gai abstraktuak eta inolako erabilerarik gabekoak aztertzen dituzte; baina horretaz gain, lehenak irudiak hartu behar ditu gogoan, horretara mugatuta dago beti, eta horregatik ezin du ulermena erabili irudimena asko nekatu gabe, eta azkena arte ilun eta nahasia bihurtu da, adimena landu baino trabatzen duena, arau batzuei eta zifra batzuei lotuta baitagokie. Hau zela eta, pentsatu nuen beste metodo bat bilatu behar zela, hiruon abantailak gordeko lituzkeena euren akatsak baztertuz. Eta legeen ugaritasunak sarritan bizioen aitzakiarako balio duenez -Estatu bat askoz ere hobeto arautua delarik, oso lege gutxi izan arren, zorroztasunez betetzen direnean-, nik uste izan nuen logika osatzen duten arau ugari horien orde z nahikoa izango nukeela ondoko lauokin, baldin eta eurak beti betetzeko erabaki sendo eta setatsua hartzen banuen behintzat.

Lehena zen ez nuela ezer hartuko egiaztat, ez banuen ebidenteki ezagutzen horrela zela: hau da, arretaz sahiestu behar nituela urdurikeria eta errezeloa, eta nire irizpenetan bildu behar nuela bakarrik nire adimenari argiro eta bereizirik agertuko litzaiokeena, beti ere zalantza egiteko aukerarik emango ez lukeen neurriraino.

Bigarrena zen aztertuko nuen zailtasun bakoitza zatituko nuela ahal hainbat zatitan, arazoa konpontzeko beharrezko litzatekeen hainbatetan, hain zuzen.

Hirugarrena zen nire pentsamenduak ordenaturik zuzenduko nituela, gai bakunenetatik eta ezagutzeko errazenetatik hasita, poliki-poliki, mailaka bezala, konposatuenean ezagutzara igoz, eta suposatuz ordena dagoela, baita berez bata bestearen aurretik ez doazen gaien artean ere.

¹³ R. Llull Mallorcan jaiotako apaiz frantziskotarra. Bere Ars Magnan konbinatoria unibertsal bat garatzen saiatu zen, gero Leibnizen konbinatoriaren eta bere mathesis universalis delakoaren iradokitzailea izango zena.

Eta azkena zen alde guztietatik hain zenbaketa osoak eta hain berrikuspen orokorrak egingo nituela, non seguru egongo nintzatekeen ezer ez ahazteaz.

Arrazoi guztiz bakun eta errazen katea luze hauek (geometrilariak euren frogapenik zailenetara heltzeko erabiltzen dituztenak) honakoa irudikatzeko aukera eman zidaten: giza ezagutzaren barruan bil daitezkeen gauza guztiak ere modu horretantxe daudela elkarren jarraian. Eta ez bada jotzen egiazkotzat gezurrezkoa dena eta gauza bat bestetik ondorioztatzeko behar den ordena gordetzen bada, ezingo da ezer egon bere urruntasunagatik azken batean erdietsiko ez dena, eta ez da ezer egongo ezkutatua inork aurkituko ez duen lekuan. Eta ez nintzen ni gehiegi kezkatu bilatzen nondik hasi beharko ote zen, banekielako bakunenetatik eta ezagutzeko errazenetatik hasi behar zela; eta gogoan harturik gaur egun arte egia zientzietan ikertu duten guztien artetik matematikariak bakarrik lortu ahal izan dutela frogapen batzuk -hau da, egiazko eta ebidenteak diren arrazoi batzuk-, ez nuen zalantzarik eurek aztertu dituzten gauza horietatik hasi behar zela, nahiz eta hortik baliagarritasun bakarra baino ez nuen espero, hots, nire adimena ohituko zela egiez elikatzera eta arrazoi faltsuekin ez konformatzera. Alabaina, ez zen nire asmoa eskuarki matematika deritzen zientzia berezi guztiok ikasteko lana hartzea helburu horretarako. Eta ikusi nuen zientzia hauen gaiak ezberdinak zirela, baina, hala ere, guztiek gai ezberdin horien baitan aurkitzen diren zenbait harreman eta proportzio behatzen dutela, eta horretan bat datozela; hori zela eta zera pentsatu nuen: hobe izango litzatekeela proportzio hauek bakarrik orokorki aztertzea eta eurak suposatzea bakarrik ezagupena errazago bihurtzen lagun ziezadaketan gaietan (baina hauetara murriztu gabe), ondoren proportzio horiek dagozkion beste gauzei ahalbait eta ongien aplikatu ahal izateko. Geroago konturatu nintzen proportzio horiek ezagutzeko batzuetan bakoitza banaka hartu beharko nukeela kontutan eta beste batzuetan horietatik zenbait elkaturik ulertu eta kontutan hartu beharko nituzkeela; hau dela eta, pentsatu nuen lerro gisara suposatu behar nituela banaka hobeto kontutan hartzeko -ez nuelako ezer aurkitzen lerroa baino bakunagorik eta ez nuelako ezer aurkitzen, ez nire irudimenean, ez nire sentimenean, bereizikiago adieraz nezakeenik-. Baina pentsatu nuen, gainera, zenbait elkaturik atxikitze edo ulertzeko zifra batzuen bidez azaldu beharko nituzkeela -ahalbait eta motzenak-, eta bide honetatik geometri analisiaren eta algebraren onena hartu eta bataren akats guztiak bestearen bidez zuzenduko nituzkeela.

Eta zera esatera ausartzen naiz: aukeratu nituen agindu gutxi hauek zorroztasunez betetzeak zientzia biok ukitzen dituzten arazo guztiak argitzeko erraztasuna eman zidala. Izan ere, eurak aztertzen bizpahiru hilabete eman eta gero (arazo bakunenetatik eta orokorrenetatik hasita, eta aurkitzen nuen egia bakoitza gero beste batzuk aurkitzeko balioko zidan araua izanik), lehenago oso zailtzat nituen zenbait egiatara heldu nintzen, baina, horretaz gain, azken aldera, iruditu zitzaidan zehaz nezakeela nola eta noraino argitu ahal izango nituen ezezagunak nituen arazoak ere. Ez nauzue honegatik harroegitza hartuko kontutan baduzue -gauza bakoitzaz egia bakarra baino ez dagoenez-, egia hori aurkitzen duenak berataz jakin beharreko guztia badakiela, eta kontutan baduzue, halaber, baieztatu daitekeela aritmetiketan hezitako mutiko bat, esaterako, seguru egon daitekeela aztertu duen batuketari buruz giza adimenak aurki dezakeen guztia aurkitu duela zalantzarik gabe, batuketa arauak jarraituz egin badu. Azken batean, benetako ordenari jarraitzen eta bilatzen denaren gora-behera guztiak

zehazten irakasten duen metodoak bere baitan biltzen baitu arau matematikoei ziurtasuna ematen dien guztia.

Baina metodo honetatik gehien asetzen ninduen zen seguru nengoela beraren bidez nire arrazoia gauza guztietan erabiliko nuela, perfektutasun osoz ez bazen, bai, gutxienez, nire esku egongo zen ahalbait eta ondoen. Bestalde, igartzen nuen bera erabiltzean nire adimena ohitzen zela pittinka-pittinka bere gaiak garbira eta bereziago bururatzerara, eta metodo hori inolako gai bereizitara mugatu ez nuenez, nire buruari zera agindu nion: gainerako zientziei aplikatuko niela matematikaren algebraren zailtasunei aplikatu nien hainbat onuraz. Baina ez nintzen ni, horregatik, inon ziren zientzia guztien azterketari ekitera ausartu, hori metodoak agintzen duen ordenaren aurkakoa litzateke eta. Baina igarri nuenez zientzien hastapen guztiak filosofiatik hartu behar zirela, eta bertan oraindik aurkitzen ez nuenez bakarra ere ziurra izango zena, pentsatu nuen, gauza guztien aurretik, hastapen horiek finkatu behar nituela. Eta hau munduko gauzarik garrantzitsuena izanda (eta honetan beldurra bakarrik urdurikeriari eta errezeroari izan behar nionez), pentsatu nuen, gainera, ez niola lan horri ekin behar orduan nituen hogeita hiru urteak baino adin helduagoa bete arte eta denbora asko eman arte nire burua prestatzen, bai lehenago jaso nituen aburu gaizto guztiak nire gogotik ezabatzen, bai esperientzia ugari metatzen, ondoren nire arrazonamenduen gai izan zitezkeen; eta azkenik erabaki nuen nire buruari ezarri nion metodoa landu behar nuela, bera nire baitan gero eta gehiago sendotzeko.

HIRUGARREN ZATIA

Norbera bizi den etxea berreraikitzeke ez da nahikoa hasi aurretik bera lurreratzea eta materialak eta arkitektoak hartzea, edo norberak arkitektoarena egitea, eta, ezta, honetaz gain, diseinua arretaz marraztea ere; beharrezkoa da, halaber, beste etxe bat izatea lanek dirauten artean eroso ostatuak izateko. Ba, era berean, nire ekintzetan zalantzati ez irauteko -nire arrazoimenak nire irizpenetan horrela irautera behartuko ninduen denboran- eta ordutik aurrera ahalbait eta zoriontsuen bizitzen jarraitzeko, behin-behineko moral bat eratu nuen niretzat, hiru edo lau arauz osatua, hemen jakinarazi nahi dizkizuedanak.

Lehena nire herriko legeak eta ohiturak betetzea zen, Jainkoari esker haurtzarotik irakatsi didaten erlijioa gordez beti, eta, gainerako gauza guztietan, nire burua gidatuz aburu neurtuenei eta gehiegikeriatik urrundueni begira (hau da, nirekin bizi zirenen artetik zentzudunenek euren eginkizunetarako onartuko zituzten iritziei begira). Izan ere, ordurako ez nituen nire aburuak kontutan ezertarako, guztiak berriro aztertu nahi nituelako, eta uste nuen egin nezakeen gauzarik onena zela zentzudunenen aburuei jarraitzea. Eta agian persiar eta txinarren artean gure artean bezain gizaki zentzudunak egon zitezkeen arren, iruditu zitzaidan baliagarriena izango zela nire burua arautzea bizilaguntzat izango nituenei egokituz. Eta iruditu zitzaidan, gainera, hauen aburuak benetan zeintzuk ziren jakiteko arreta jarri behar niola egiten zutenari, eta ez ziotenari; eta honetarako arrazoia ez zen bakarrik gure ohituren ustelkeriagatik oso jende gutxi

esan nahi duela sinesten duen guztia, baizik eta baita askok ezta eurek ere ez dutelako ezagutzen zer sinesten duten ere. Zeren gauza ezberdinak dira zerbait sinesteko beharrezkoa den pentsamenduaren ekintza eta zerbait horretan sinesten dugula jakitea, sarritan bata bestea gabe ematen direlarik. Eta berdintsu onartutako zenbait aburuen artetik nik neurtuenak aukeratzen nituen: bai ekintzarako beti erosoena direlako (eta seguruenik onena ere, gehiegikeria beti txarra izan ohi da eta) bai, huts eginez gero, gutxiago urrunduko nintzatekeelako egiazko bidetik, muturreko bidea hartuta huts eginez gero, urrunduko nintzatekeena baino gutxiago. Eta gehiegikerien artean sartzen dut, bereziki, norbere askatasuna zertxobait galarazten duen promesa oro. Alabaina, ez nituen nik honekin gaitzesten adimen ahulen aldakortasuna zuzentzeko balio duten legeak; helburu horrekin lege hauek baimenduko dute botoak eta hitzarmenak egitea, zeintzuek esandakoari eustera behartuko duten bai asmo onarekin jokatzenean eta baita ere asmo arduragabearekin jokatzenean merkataritzaren segurantzarako. Baina ez nuen ikusten munduan beti bat dirauen ezer eta nire buruari agintzen nion nire irizpenak gero eta gehiago hobetuko nituela, eta ez nituela okerragotuko; honegatik guztiagatik, nire ustez, sen onaren aurka oker handia egingo nukeen nire burua behartuko banu zerbait ontzat hartzera lehenago onetsi nuelako, eta kontutan izan gabe ondoren gauza horrexek agian ona izateari utzi diola, edo nik halakotzat jotzeari utzi diodala.

Nire bigarren araua honako hau zen: nire ekintzetan ahalbait eta sendoena eta ausartena izatea eta abururik zalantzarrienei jarraitzea seguruenei jarraituko niekeen iraupen berdinez edo gehiagoz, behin horietaz konbentziturik egonez gero. Honetan basoan galduta dauden bidaztiak antzeratzen nituen; hauek ez baitute hutsik egin behar noraezean bueltaka ibiliz, eta are gutxiago leku batean geldituz, beti leku baterantz joan behar dute ahalbait eta zuzenen, norabidez aldatu gabe arrazoi ahulengatik -hasieran, beharbada, norabide hori aukeratzera halabehar hutsak bultzatu izan baditu ere-; zeren, horrela, eurek zehazki nahi duten lekura ez joan arren, gutxienez norabait helduko baitira, eta bertan baso erdian baino hobeto egongo dira seguruenik. Era berean, bizitzako ekintzak sarritan atzeratu ezin direnez, egia ziur-ziurra da abururik gertakorrenei jarraitu behar diegula, egiazkoenak ezin baditugu bereizi; eta, egia da halaber, aburu batzuk besteak baino gertakorragoak iruditzen ez bazaizkigu ere, horien artetik batzuk aukeratu behar ditugula eta hortik aurrera ez ditugula zalantzarritzat jo behar praktikan, oso egiazkotzat eta ziurtzat baino, egiazkoa eta ziurra baita horretara mugatu gaituen arrazoiak. Eta honi esker libratu nintzen ni ordutik aurrera zenbait damu eta aladurez, zeintzuek adimen makal eta zalantzatien kontzientziak urduritzen dituzten; hauek, irmotasun gabe, zenbait gauza egiten dituzte onak bailiran, geroago oso txartzat hartuko dituzten arren.

Nire hirugarren araua honakoa zen: saiatuko nintzela nire buruari nagusitzen halabeharrari baino lehenago, eta nire nahiak aldatzen munduaren ordena baino lehenago, eta, oro har, ohituko nintzela zera sinestera: oso-osorik gure esku dagoen gauza bakarra gure pentsamenduak direla. Honela guregangik kanpoko gauzei dagokienez, erabat guregana ezina bihurtuko zaigu ahalegin guztiak egin eta gero lortu ez den guztia. Eta hau bakarrik nahikoa iruditu zitzaidan etorkizunean eskuratuko ez nuen guztia nire nahitik baztertzeko eta horrela pozik geratzeko. Gure nahimenak, berez, nahi izaten du ulermenak nola edo hala eskuragarri bezala adierazten diona bakarrik; hau dela eta, guk kontsideratzen badugu guregandik kanpo dauden gauza

guztiak berdin daudela gure eskutik urrun, orduan berdin penatuko gaituzte itxuraz jaiotzetik falta ditugun gauzek (gabezia hori ez delako gure errua), nola Txinako edo Mexikoko erresumak gureak ez izateak. Eta, esaten den moduan, premia bertute bihurtuz, gaixorik gaudenean osasuntsu izateko sentitzen dugun gogoa, edo kartzelan gaudenean aske izateko duguna, ez da handiagoa izango gorputza diamantea bezain ustelgaitza izateko dugun gogoa baino edo hegaz egiteko txorienak bezalako hegoak izateko duguna baino. Baina aitortzen dut gauza guztiei honela so egitera ohitzeko premiazkoak direla lan luzea eta behin eta berriro gogoeta egitea. Eta honetan datza, nire ustez, nagusiki filosofo batzuen sekretua, hauek (beste garai batean) halabeharraren nagusitasuna saihestea lortu ahal izan baitute, eta baita (oinaze eta behar ororen gaineratik) zoriontasun mailan norgehiagoka aritzea are euren Jainkoekin ere. Beti naturak ezarri zizkien mugak gogoan baitzituzten, eta erabat konbentzitura zeuden euren ahalmenean zegoen gauza bakarra euren pentsamenduak zirena, eta konbentzimendu huts hau aski zen izan ez zezaten beste ezerekiko afekturik. Eta pentsamendu horietaz mugarik gabe baliatzen ziren, eta hori zela eta, neurri batean, arrazoia zuten euren burua jotzen zutenean filosofia hau ez zuten gizakiak baino aberatsagotzat, ahaltuagotzat eta libreago eta zoriontsuagotzat; beste gizakiok, naturaren eta halabeharraren faborea jaso badute ere, ezin baitira sekula nahi duten guztiaz baliatu.

Azkenik, moral honen amaiera modura erabaki nuen aztertu behar nituela gizakiek bizitza honetan dituzten zereginak, horrela onena aukeratzen saiatzeko. Besteen bizitzari buruz ez nuen ezer esan nahi; hori zela eta, pentsatu nuen egin nezakeen gauzarik onena zela aurretik nuen zeregin hartantxe irautea, hau da, nire bizitza osoa arrazoia lantzeari eskaintzea eta ahal nuen hainbat aurreratzea egiaren ezagutzan, nire buruari ezarria nion metodoari jarraituz. Metodo honetaz baliatzen hasi ondoren jaso nuen poza hain handia izan zen, ezen ez nuen uste bizitza honetan jaso zitekeenik ezer bera baino gozoagorik, ez xaloagorik. Eta beraren bidez egunero egia batzuk aurkitzen nituen, nahikoa garrantzitsuak eta beste gizakientzat eskuarki ezezagunak; eta hauek aurkitzean hartzen nuen poza hain zen handia, non ez nintzen beste ezertaz kezkatzen. Gainera, aipatutako hiru arauon oinarria ikasten jarraitzeko nuen nahia zen, ez beste ezer; zeren Jainkoak argitasunen bat eman digunez guztioi egiaren eta faltsuaren artean bereizteko, sekula ez zitzaidan irudituko inoren iritziekin konformatu beharko nukeela, aurretik erabaki izan ez banu bakoitza nire irizmenaren bidez aztertuko nuela astia izandakoan. Eta, arau haiei jarraitzean, ez nukeen eskrupuluak baztertzeko jakingo, espero ez banu ez nukeela inoiz galduko horiek baino arau hobeak aurkitzeko aukerarik, horrelakorik egotez gerotan. Eta, azkenik, ez nukeen jakingo ez nire nahiak neurtzen eta ezta pozik egoten ere, aurretik jarraitu izan ez banu bide bat, zeinak ziurtatuko lidakeen inoiz eskuratu ahal izango nituzkeen ezagupen guztien lorpena, eta baita inoiz nire esku egon ahal izango liritekeen benetako ondasun guztiena ere. Eta gure nahimenak ez du ezer jarraitzen, ez eta ezer saihesten ere, gure ulermenak txar edo on bezala adierazten ez dion artean, eta horregatik nahikoa da ondo iriztea ondo jokatzeko, eta ahalbait eta ondoen iriztea ahalbait eta ondoen jokatzeko, hots, lortu ahal izango diren bertute eta ondasun guztiak lortzeko. Eta hau horrela dela seguru gaudenean pozik egongo gara beti.

Behin arauok honela finkatuta eta fedezko egiekin batera (nire sinesmenean beti lehenak izan direnak) aparte ipini eta gero, pentsatu nuen gainerako aburu guztiak nire

burutik baztertzen has nintekeela. Eta espero nuen hau hobeto lortuko nuela jendearekin solasean, eta ez denbora gehiago geratuta nire pentsamendu guztiok mamitu nituen gelan, eta horregatik, negua oraindik bukatu gabe zegoela, berriz bidaiatzen hasi nintzen. Eta hurrengo bederatzi urtean munduan zehar hona eta hara ibili nintzen, besterik ezer egin gabe, bertan antzetzen ziren komedietan ikusle izaten saiatuz antzezle baino gehiago; eta, gai bakoitzari zegokionean, gogoeta egin nuen bereziki bera susmagarria bihur zezakeen guztiaz nola huts egiteko aukera eman ziezadakeen guztiaz, honela lehenagotik nire gogora labainduta egon zitezkeen akatsak baztertu nituelarik. Ez nituen horregatik eszeptikoak antzeratzen, zalantzatan egote hutsagatik egiten baitute hauek zalantza eta beti zalantzati egotearen itxura ematen baitute, haatik, nire asmo guztia ziurtasuna lortzea zen, horrela lur egongaitzak eta harea alde batera bota eta haitza edo buztina topatzeko. Eta hau, nire ustez, nahikoa ondo betetzen nuen; izan ere, aztertzen nituen proposizioen faltsutasuna eta ziurgabetasuna arrazoi argi eta seguruez aurkitzen saiatzen bainintzen, eta ez aieru ahulen bidez, eta ez nuen proposizio bakarra ere aurkitzen hain zalantzagarria izango zena, handik ez atera ahal izateko ondorioen bat nahikoa ziurra, besterik ez bada berak ez zuela ezer ziurrik biltzen. Eta etxe zahar bat lurreratzean obra hondakinak berri bat eraikitzeke gorde ohi diren bezala, horrela ere, gaizki oinarritutakotzat jotzen nituen aburuak suntsitzean, zenbait ohar egiten nuen eta anitz esperientzia jasotzen nuen, zeintzuek balio izan didaten gero aburu ziurragoak finkatzeko. Eta, gainera, nire buruari ezarri nion metodoaz lanean jarraitu nuen; izan ere, nire pentsamenduak bere araei jarraituz zuzentzeko arreta nuen arren, noizean behin ordu batzuk hartzen nituen matematikaren arazoetan jarduteko (edo antzerakoak izan zitezkeen beste zientzia batzuen arazoetan ere). Arazoak bereizten nituen nahikoa sendoak aurkitzen ez nituen beste zientzien hastapen guztietatik, eta ikusiko duzue horrela egin dudala liburu honetan azaltzen diren horietako zenbait arazotan. Beste zereginik gabe, itxuraz, bizitza goxo eta xaloa igaro dutenen antzera bizi nintzen (zeintzuk plazerren eta bizioen artean nola bereizi ikasten diharduten eta, euren astiaz gozatzeko aspertu gabe, onestak diren olgeta guztiez baliatzen diren), beti ere nire asmoari jarraituz eta egiaren ezagupenetik probetxua ateraz, beharbada liburuak irakurtzen eta letragizonekin harremantzen, besterik egin gabe, atera nezakeena baino probetxu handiagoa ateraz, hain zuzen.

Hala ere, bederatzi urteok igaro ziren nik jakintsuen artean eztabaidatu ohi diren arazoei buruz batere erabakirik hartu gabe, eta ohikoa baino ziurragoa litzatekeen filosofia baten oinarriak bilatzen hasi gabe. Eta aurretik asmo hauxe izan duten zenbait adimen bikainen ereduak -nire ustez helburua lortu ez zutenak- arazo ugari ekartzen zidan burura; eta hau kontutan izanik ez nintzatekeen, behar bada, lanean hasten ausartuko hain berehala, jakin izan ez banu ordurako baten batzuek zurrumurrua zabaldua zutela nik helburua lortua ote nuen edo. Ezingo nuke esan zertan oinarritzen zuten euren iritzi hau; eta, nire diskurtsoen bidez honetara lagundu badut ere, baliteke izatea aitortu dudalako ez dakidana pittin bat ikasi dutenek egin ohi duten baino xalotasun handiagoarekin, eta baita, beharbada, gehiago lehiatu naizelako ere besteek ziurtzat jotzen dituzten gauza askotaz zalantza egiteko nituen arrazoiak ikustarazten eta ez hainbeste neure doktrina batetaz harrotzen. Baina nire bihotzaren zintzotasunagatik ez nuen nahi ni ez naizen inortzat jo nintzaten eta horregatik pentsatu nuen ahalegin guztiak egin behar nituela eman zidaten ospea merezia izateko. Gurari hau zela eta oraintxe dela zortzi urte erabaki nuen ezagunik izan nezakeen edozein lekutik urruntzea

eta hona¹⁴ erretiratzea, hau da, bertako armadak (guduaren iraupen luzearen eraginez ezarri den aginduengatik) bakearen fruituez segurtasun handiagoz gozatzeko balio duela ematen duen herri batera. Eta inoren gauzez baino bere gauzez kezkatua dagoen herri handi eta langile honetako jendearen artean bizi ahal izan naiz, basamorturik baztertuenean bezain bakarrik eta erretiratua, herririk jendeztatuenetan dauden ezein erosotasunen falta izan gabe.

LAUGARREN ZATIA

Ez dakit han egin nituen lehen gogoetei buruz hitz egin behar dizuedan, oso metafisikoak eta ez-arruntak direnez ez dira eta, agian, guztien gustuko izango. Eta, hala ere, nola edo hala, haietaz mintzatzera behartuta nago, hartu ditudan oinarriak nahikoa sendoak diren ala ez erabaki ahal izateko. Gorago esan den bezalaxe, aspalditik igarri nuen ohiturei dagokienez, zalantza gabekoak bailiran jarraitu behar ditugula batzuetan oso zalantzarik direla badakigun aburuak; baina nik garai horretan egia bilatzen bakarrik jardun nahi nuen, eta horregatik pentsatu nuen beharrezkoa zela guztiz aurkakoa egin eta zalantzarik txikiena sor ziezadakeen oro erabat faltsu bezala errefusatzea, hori egin eta gero ea nire sinesmenean zeharo zalantza gabekoa zen zerbait gelditzen zen ikusteko. Horrela, gure sentimenek batzuetan engainatzen gaituztela eta, suposatu nahi izan nuen ez zegoela ezer horien bidez irudikatzen dugunaren modukoa zena. Eta arrazonatzean hutsak eta paralogismoak egiten dituzten gizakiak badaudenez (eta hutsak egin baita geometriaren gairik bakunenetan ere), pentsatu nuen neuk ere beste edozeinek beste huts egin nezakeela, eta aurretik frogapentzat nituen arrazoi guztiak faltsutzat jo eta baztertu nituen. Eta azkenik, esna gaudela dauzkagun pentsamendu horiek guztiak lotan gaudela ere etor dakizkigukeela kontutan hartuz (hauen artean egia den bakarra ere ez dagoelarik) honakoa irudikatzea erabaki nuen: nire adimenean noizbait sartutako gauza guztiak ez zirela nire ametsetako lilurak baino gehiago. Baina, berehalaxe ohartu nuen dena faltsua zela pentsatu nahi nuen bitartean, nik, hori pentsatzen zuenak alegia, derrigorrean zerbait izan behar nuela. Eta ohartu nintzen honako egia: nik pentsatzen dut, beraz, banaiz, hain sendoa eta segurua zela, non eszeptikoen aieru bitxienek ere ezingo zuketen ahuldu, eta hau kontutan izanik bilatzen niharduen filosofiaren lehen hastapentzat jo nezakeela kezkarik gabe iritzi nion.

Honen ostean, ni zer nintzen aztertu nuen arretaz, eta ikusi nuen irudika nezakeela ez neukala inolako gorputzik eta ez zegoela ni nengoen inolako mundurik, ez eta lekurik, baina ez nezakeela honegatik irudikatu ni ez nintzela; eta ikusi nuen, halaber, ni ez beste gauzen egiaz zalantza egin behar nuela pentsatze hutsetik ondorioztatzen zela, ebidenteki eta ziurtasunez, ni zerbait nintzela, eta, ostera, bakarrik pentsatzeari utzita ez nuela izango batere arrazoirik ni banintzela uste izateko (sekula iruditu nuen gainerako guztia egia izanda ere). Honela zera jakin nuen: ni substantzia bat nintzela bere zerizana edo natura osoa pentsatzea duena, izateko inolako lekuren beharrik ez duena eta inolako gauza materialen menpekora ez dena. Honela, ni hau, hau da, arima

¹⁴ Holandara.

(berak egin nau eta naizena), gorputzaz erabat ezberdina da, eta baita gorputza baino ezagutzeko errazagoa ere, eta gorputzik ez balego ere, arima bera baden horixe izango litzateke beti.

Ondoren, proposizio batek egiazkoa eta ziurra izateko oro har zer behar ote duen hartu nuen kontutan, zeren, horrelakoa zena banekien bat aurkitu berria nuenez, pentsatu nuen jakin behar nuela zertan zetzan ziurtasun hau. Eta ohartu nintzenez nik pentsatzen dut beraz banaiz proposizioan ez zegoela ezer segurtatzen zidana egia esaten nuela -ez bada oso argi ikusten nuela pentsatzeko beharrezkoa dela izatea-, uste izan nuen arau orokortzat zera har nezakeela: ondo argiro eta bereizirik bururatzen ditugun gauza guztiak egia direla, baina zailtasuna dagoela nabarmendu nahi denean zeintzuk diren bereizirik bururatzen ditugun proposizio horiek.

Honen jarraian, zalantza egiten nuela eta, nire izatea ez zela guztiz perfektua gogoetatu nuen, ezagutzea zalantzatzea baino perfektuagoa zela argiro bainekusan, eta hortik bururatu zitzaidan aztertu behar nuela nondik ikasi ote nuen ni nintzena baino perfektuagoa litzatekeen zerbaitez pentsatzen aritzea, eta garbiro jakin nuen perfektuago izango zen natura batetik ikasia izan behar nuela, hain zuzen. Niregandik at zeuden beste zenbait gauzari buruz nituen pentsamenduei dagokienez (esate baterako zerua, lurra, argia, beroa eta beste hamaika gauzari buruzkoak), ez ninduen asko kezkatzen eurak nondik ote zetozen jakiteak, ez bainuen horietan ezer sumatzen ni baino gehiago bihurtuko zituena, eta hori zela eta, pentsa nezakeen eurak egiazkoak izatez gerotan nire naturaren menpekoak zirela (honek perfekzioen bat duen neurrian), eta egiazkoak ez izatez gerotan nik ezerezetik nituela, hau da, nik akatsen bat nuelako zeudela niregan. Baina ez zitekeen gauza bera gerta nirea baino izate perfektuago baten ideiaz, nabarmenki ezinezkoa zelako bera ezerezetik etortzea. Eta ezin zen, ezta ere, ideia hau niregandik sortua izan, perfektuagoa perfekzio txikiagokoaren ondorio eta menpekoa izatea onartezina delako, zerbaitez ezerezetik etor dadila onartezina den hainbat. Hontara, geratzen zen irtenbide bakarra zera zen: benetan ni baino perfektuagoa litzatekeen izaki batek jar zezala niregan, nik nolabait burura nintzakeen perfekzio guztiak bere baitan leuzkakeen natura batek alegia, hitz batez esateko, Jainkoa litzatekeen natura batek. Eta, nireak ez nituen perfekzioen batzuk ezagutzen nituenez, honi gaineratu nion ez nintzela existitzen zen izaki bakarra (hemen zuen baimenez, Eskolako hitzak libreki erabiliko ditut) eta beharrezkoa zela beste perfektuagoren bat egotea, eta nik izaki honen menpekoa izan behar nuela, nuen guztia berarengandik jasoa izango nuelarik. Zeren bakarra eta beste izaki guztiekiko askea izan banintz, izate perfektuarekin amankomunean izango nituzkeen ezaugarri gutxiak nirezkoak izango baintuzke, eta arrazoi honexegatik faltan nuela ezagutzen nuen guztia niregan izan ahal izango nuke. Horrela, ni neu amaigabea, betierekoa, aldaezina, orojakituna, guztiz ahaltsua izan ahal izango nintzateke eta azkenik, gainera, Jainkoarengan zeudela igar nintzakeen perfekzio guztiak eduki ahal izango nituzke. Zeren, egin berriak ditudan arrazoiketei jarraituz, Jainkoaren natura ezagutzeko -nirea horretarako gai den neurriarekin egin behar nuen gauza bakarra zera zen: gauza bati buruz niregan ideiarekin bat aurkitzen nuen kasu guztietan, gauza horiek kontutan hartu eta gogoetatu ea horien jabe izatea perfekzioa ote zen ala ez; eta seguru nengoen inperfekzioen bat adierazten zuten gauza horietatik bakarra ere ez litzatekeela Jainkoarengan egongo, baina bai, berriz, gainerako guztiak. Horrela, zalantza, iraupengabetasuna, tristura eta antzeko gauzak ezin zirela berarengan egon ikusten nuen, ni neu ere asko poztuko nintzateke eta horietaz libre

banengo. Gainera, honetaz gain, zenbait gauza sentigarri eta korporalen ideiak nituen; izan ere, nik suposatzen nuen arren ametsetan ari nintzela eta ikusten edo irudikatzen nuen guztia faltsua zela, ezin nuen ukatu, hala ere, ideia horiek neure pentsamenduan zeudela. Baina zegoeneko nire baitan ezagutu nuen oso argiro adimenezko natura eta natura korporala ezberdinak direla; eta gogoan harturik konposizio orok mepekotasuna lekukotzen duela eta menpekotasuna nabarmenki akatsa dela, hortik atera nuen, Jainkoari zegokionez, ezin zela perfekzioa izan natura bi horietaz osatua izan zedila, eta ondorioz ez zegoela horrela osatua; baina iritzi nion, halaber, munduan guztiz perfektuak ez liratekeen zenbait gorputz edo zenbait adimen edo zenbait natura egotez gerotan, euren izateak haren [Jainkoaren] gaitasunen menpeko izan beharko lukeela, eta bera gabe ezingo zutela bizirik iraun ezta une bakar bat ere ez.

Honen ostean, beste egia batzuk bilatu nahi izan nituen, eta geometren gaia hartu nuen kontutan. Gai hau bururatzen nuen gorputz jarraitu bat bailitzan, edo luzeeran, zabaleran eta altueran edo sakoneran mugagabeki hedatutako espazio baten legez. Bera zatigarria izan zitekeen eta zati horiek figura eta handiera ezberdinak izan zitzaketen eta alde guztietara mugituak eta garraiatuak izan zitezkeen, hau guztia suposatzen baitute geometrek euren gaian. Hauen frogapen arruntenetatik batzuk berrikusi nituen, eta ohartu nintzen mundu guztiak izendatzen dien ziurtasun handiaren oinarria dela eurak ebidenteki bururatzen direla, eta ez beste ezer, eta hau zela eta ohartu nintzen, halaber, hainbat aldiz aipatu dudan arauari jarraituz, ez zegoela frogapen horietan ezer zegokien gaiaren existentzia ziurtatuko zidana. Zeren, adibidez, hiruki bat emanaz gero, garbi nekusan bere hiru angeluek bi zuzenen balioa izan behar zutela, baina, hala ere, ez nekusan ezer ziurtatuko zidana munduan hirukiak badaudela. Baina, izaki perfektu batez nuen ideia berriro aztertzean, aurkitu nuen ezen existentzia berarengan biltzen zela, hiruki batean biltzen den bezalaxe, bere angeluak bi zuzenen baliokideak direla, edo ebidenteago, edo esfera batean bere zati guztiak erdipuntutik urruntasun batera daudela biltzen den bezalaxe; eta honen ondorioz, aurkitu nuen egia dela Jainkoa, izaki perfektu hori, badela edo existitzen dela, gutxienez geometriaren edozein frogapen hainbat egia.

Baina zenbait gizaki konbentzituta dago bera [Jainkoa] ezagutzea, eta baita euren arima zer den ezagutzea ere, zaila dela, eta honen arrazoia da gizakiok ez dutela sekula euren adimena gai sentigarrietatik altxatzen, eta ez dutela ezer bururatzen irudikatuz ez bada (hau gai materialez pentsatzeko modu bat delarik), eta irudikagarria ez den guztiari ulertezina deritzote. Hau nahikoa nabarmena egiten da filosofoek eskoletan arautzat duten honako baieztapenean: hots, ezer ez dagoela ulermenean aurretik sentimenean egon ez dena; eta, hala ere, hemen [sentimenean] egia da ez direla sekula egon ez Jainkoaren, ez arimaren, ideiak. Eta nik deritzot ideiak ulertzeko irudimena erabili nahi dutenek hotsak entzuteko edo usainak sentitzeko euren begiez baliatu nahi balute bezala egiten dutela; eta gainera beste alde bat dago oraindik, alegia, ikusmenak ez digula segurtatzen bere gaien egiaz usaimenak edo entzumenak eurenaz segurtatzen dutena baino gutxiago. Alabaina, gure ulermenak esku hartzen ez duen artean, bai gure irudimenak, bai gure sentimeneak, ezingo digute sekula ezer ziurtatu.

Azkenik, eman ditudan arrazoiekin Jainkoaren eta norberaren arimaren existentziaz nahikoa konbentzituta ez dagoen gizakirik baldin badago oraindik, nik zera nahi dut: hauek jakin dezatela agian ziurtasun txikiagokoak direla seguruagotzat jotzen dituzten gainerako gauza guztiak, hala nola, gorputz bat badutela, astroak eta lurra badaudela

eta antzerako gauzak. Gauza hauetaz ziurtasun morala izanda ere (eta ematen du hau ezin dela zalantzatan jarri pertsona xelebrea izanda ez bada), ziurtasun metafisikoari buruz, ostera, erabat seguru ez egoteko honako hau nahikoa arrazoi da: hots, konturatu garela lotan egotean era berean irudika daitekeela badaukagula beste gorputz bat edo beste izar batzuk eta beste lur bat dakuskigula, horrelakorik ezer ez dagoenean, eta hau ezin da zalantzatan jarri zentzugabea izanda ez bada. Zeren, nondik jakingo dugu ametsetan datozkigun pentsamenduak besteak baino faltsuagoak direla, ikusten badugu sarritan haiek ez direla hauek baino bizitasun eta zehaztasun gutxiagokoak? Eta adimenik hoberenek arazo hori nahi hainbat aztertzen badute ere, ez dut uste zalantza hau ezabatzeko eman ahal izango dutenik nahikoa izango den arrazoirik, ez badute aurretik Jainkoaren existentzia onartzen. Hasteko, ba, lehenxeago arautzat hartu dudana ere (hots: guztiz argiro eta bereizirik bururatzen ditugun gauza guztiak egiak direla) gauza segurua da, Jainkoa delako edo existitzen delako eta bera izaki perfektua delako eta guregan dagoen guztia berarengandik datorkigulako. Honi zera darraio: gure ideia eta nozioek, benetako gauzak direnez eta Jainkoarengandik datozenez, egia izan behar dutela argiak eta bereziak diren neurri osoan. Honela, sarritan faltsutasuna biltzen duten ideiak baldin baditugu, nolabait nahasiak eta ilunak diren neurrian izan behar du, horretan ezerezean esku hartzen dute eta (hau da, guregan nahasiak badira guztiz perfektuak ez garelako da). Eta nabarmena da faltsutasuna edo inperfekzioa Jainkoarengandik etorri beharrak emango digun biguina ez dela txikiagoa, egia edo perfekzioa ezerezetik etorri beharrak emango diguna baino. Baina guregan benetakoa eta egiazkoa den guztia izate perfektu eta amaigabe batengandik datorrela ez bagenek, ez guke inolako arrazoirik izango segurtatuko ligukeena hauek egiazkoak izatearen perfekzioa dutela, gure ideiak oso argiak eta bereziak izan arren.

Alabaina, Jainkoaren eta arimaren ezagutzak arau honen ziurtasuna eskaini digula eta, gero, erraz ezagutuko dugu lotan irudikatzen ditugun ameskeriek ez gaituztela inolaz ere bultzatu behar esna gaudenean ditugun pentsamenduez zalantzak egitera. Izan ere, inork oso ideia bereiziren bat izango balu, baita ametsetan ere (adibidez, geometrilari batek frogapen berriren bat asmatuko balu), ametsa ez litzateke eragozpena izango frogapen hori egia izan zedin. Eta ez du axola gure ametsetako huts egiterik arruntenak (hots, zenbait gai adierazten dizkigutela gure kanpoko sentimenez egiten duten bezalaxe) ideia horien egiaz ez fidatzeko aukera ematen badigu, sentimenez lotan ez gaudenean ere nahas gaitzaketela eta: hala nola, larumina dutenek guztia hori dakusatenean; edo oso urrun dauden astroak, edo beste gorputz batzuk, direna baino askoz ere txikiagoak iruditzen zaizkigunean. Zeren, azkenik, iratzarrita nahiz lotan gaudela, gure arrazoiaren ebidentziari bakarrik eman behar diogu gu konbentzitzeko aukera. Eta oharrarazi behar da gure arrazoiak diodala eta ez gure irudimena edo gure sentimenez. Horrela ere, eguzkia ondo argiro dakusagun arren, ez diogu iritzi behar honegatik guk dakusagun neurrikoa izango denik; eta lehoi baten burua ahuntz baten gorputzaren gainean txertatuta ondo bereizirik irudika dezakegu, baina ez dugu horregatik zertan ondorioztatu munduan kimera bat dagoela, arrazoiak ez baitigu adierazten egia dela guk horrela dakusaguna edo irudikatzen duguna, baina bai adierazten digu gure ideia eta nozio guztiek oinarriren bat izan behar dutela, ezinezkoa bailitzateke Jainkoak, guztiz perfektua eta egiatia denak, oinarri bat gabe jar zitzala guregan. Eta gure arrazamenduak lo gaudela ez dira sekula izaten iratzarrita gaudela diren bezain ebidenteak eta osoak (batzuetan gure irudipenak lo gaudela biziagoak eta zehatzagoak izan arren), eta honek zera adierazten digu: gure pentsamendu guztiak ezin

direnez egia izan, erabat perfektuak ez garelako, egia den guztia aurkitu behar dela, ezinbestez, esna gaudenean ditugun pentsamenduetan eta ez lotan ditugunetan.

BOSGARREN ZATIA

Atsegina litzaidake jarraitzea eta lehen egia horietatik atera dudan gainerako egien katea osoa erakustea. Baina honetarako jakintsuen artean eztabaidagai diren zenbait arazoz hitz egin beharko nuke, eta, hauekin muturtzeko gogorik ez dudanez, uste dut hobe izango dela horrelakorik ez egitea eta, oro har, arazo horiek zeintzuk diren esatea, horrela jakintsuenek erabaki dezaten ea ongarria izango ote den jendeari hauek zehazkiago jakinaraztea ala ez. Beti irmo iraun dut hartua nuen erabakian, hots ez nuela suposatuko beste hastapenik Jainkoa eta arimaren existentzia frogatzeko erabili berria nuena baino, eta ez nuela ezer egiazat joko ez bazitzaidan aurretik iruditzen geometrilarien frogapenak baino argiagoa eta ziurragoa. Eta, hala ere, ausartuko naiz esaten, ezen, filosofian aztertu ohi diren arazo nagusienek dagokienez, denbora gutxiren barruan nire burua asetzeko bidea aurkitu dudala, baina baita lege batzuk igarri ditudala ere, Jainkoak naturan ezarritakoak. Eta berak gure ariman hauei dagozkien nozioak inprimatu dituenek, ezingo genuke zalantzatan jarri -nahikoa gogoeta egin ondoren- lege horiek betetzen direla munduan den edo egiten den guztian zehaztasunez. Gero, lege horien saila kontutan hartuz, iruditu zitzaidan zenbait egia aurkitu nituela, izango zirenak aurretik ikasia nuen, edo ikastea espero nuen, guztia baino askoz ere erabilgarriagoak eta garrantzitsuagoak.

Saiatu naiz nagusienak tratatu batean azaltzen, baina zenbait arrazoik bera argitaratzea eragozten didate, eta horregatik eurak ezagutarazteko modurik onena izango da tratatu horrek biltzen duena laburki esatea¹⁵. Bera idatzi aurretik nire asmoa zen bertan gauza materialen naturari buruz ustez nekiena jasotzea. Baina nik pintoreek bezala egin nuen; hauek ezin dituzte koadro plano batean gorputz solido baten azal ezberdin guztiak zehaztasun berdinarekin irudikatu hori dela eta, nagusienetako bat aukeratzen dute bera eguargitan jarriz eta besteak itzalean, azkenok irudiari begiratzean ikusi ahal diren neurrian bakarrik agerrarazten dituztelarik. Era berean, beldur nintzenez ezingo ote nuen sartu nire dikurtsoan pentsamenduan neukan guztia, bakarrik argiari buruz bururatu nuena azaltzeari ekin nion zabalki; gero, zegokion lekuan, eguzkiari eta izar finkoei buruz zertxobait gaineratu nuen, argia gehien bat horietatik dator eta; baita zeruei buruz ere, bera helarazten baitute; planetei, kometei eta lurrari buruz, isladatzen dutelako; eta batik bat lurrean diren gorputz guztiei buruz, koloretsuak edo gardenak edo argitsuak direlako; eta, azkenik, gizakiari buruz, horien guztien ikuslea baita. Halaber, gauza hauek guztiak pittin bat itzalean jartzeko eta eurei buruzko nire iritziak askeago azaldu ahal izateko (jakintsuen artean onartutako aburuak jarraitzera edo errefusatzera behartua izan gabe), zera erabaki nuen: gure mundu hau guztia jakintsuen arteko eztabaidetarako utzi eta nik hitz egingo nuela balizko mundu berri batean gertatuko litzatekeenaz bakarrik, eta honetarako suposatuko nuen Jainkoak mundu

¹⁵ Tratatu hori *Traité du Monde* da; eta ez argitaratzeko arrazoia, Galileoren kondena (1633).

berri hori osatzeko nahikoa materia sortuko zukeela orain eta nonbait, irudimenezko espazioetan, eta materia honen zati ezberdinak era askotara eta ordenarik gabe eragingo zituzkeela (poetek asma dezaketen adinako nahasia zatekeen anabasa osatuko lukeelarik honela) eta ondoren naturari bere joera arrunta emango ziokeela besterik egin gabe eta berak ezarritako legeak jarraituz aritzen utziko zukeela. Honela, lehenik, materia hau deskribatu nuen, eta bera adierazten saiatu nintzen moduagatik ateratzen zen ez zela ezer egongo munduan, nire ustez, bera baino argiagorik, ez eta adigarriagorik, arestian Jainkoari eta arimari buruz esan dena izan ezik. Izan ere, suposatu nuen, bereziki, mundu horren baitan ez zegokeela eskoletan eztabaidagai diren forma edo nolakotasunetatik batere ez, eta, oro har, bertan zegokeen guztiaren ezagupena arimari berezkoa izango litzaiokeela, ezer egongo ez zelarik ezjakintzat jo zitekeena. Gainera, naturaren legeak zeintzuk ziren ikustarazi nuen eta (nire arrazoiak Jainkoaren amaigabeko perfekzioetan bermaturik, eta ez beste inolako hastapenetan) saiatu nintzen frogatzen zalantzarriak izan zitezkeen guztiak, eta saiatu nintzen ikustarazten lege horiek, Jainkoak anitz mundu sortu arren, mundu horietan guztietan ezinbestean bete beharko ziratekeela. Honen ondoren, erakutsi nuen anabasa honetako materiaren gehiengoa kokatu eta taxutu behar zela lege horien arabera, gure zeruen antzekoa bihurtuko litzatekeen modura; eta erakutsi nuen gainera beraren zatiren batzuek lurra osatu behar zutela, eta beste batzuek planetak eta beste batzuek izar finkoak. Eta hemen argiari buruzko gaiak luze jardun nuen, eta ondo astiro azaldu nuen zein zen eguzkian eta izarretan aurkitu behar zena, eta nola zeharkatzen zituen une batean zeruetako neurrigabeko espazioak eta nola planetetatik eta kometetatik lurrerantz isladatzen zen. Gainera, zeru eta astro horien substantziari, kokapenari, mugimenduei eta nolakotasun ezberdinei buruz zenbait gauza gaineratu nuen, pentsatzen nuelarik horrela nahikoa esango nuela jakinarazteko mundu honetako gauzetan sumatuko zen guztiak nik deskribatzen nuen munduko gauza horien guztiz antzekoa eman beharko lukeela, edo gutxienez horien antzekoa eman ahal izango lukeela. Hortik bereziki lurrari buruz hitz egitera pasa nintzen, eta azaldu nuen bere zati guztiek etengabe bere erdipunturantz jotzen zutela, nahiz eta suposatu nuen, espresuki, Jainkoak ez zuela inolako astuntasunik ipini bera osatzen duen materialian; azaldu nuen, halaber, bere azal gainean ura eta haizea egonez gero, zeruen, astroen, eta bereziki ilargiaren, kokapenak itsasgora eta itsasbehera eragin beharko lukeela, gure itsasoetan igartzen denaren berdina izango litzatekeena bere zertzelada guztietan, eta eragingo lukeela, halaber, uraren nahiz haizearen jario bat, ekialdetik mendebaldera, tropikoen artean igartzen den bezalakoxea; eta berez sor zitezkeela mendiak, itsasoak, iturriak eta ibaiak, eta metalak meategietan, eta landareak landetan haz zitezkeela, eta oro har nahasiak edo konposatuak deritzegun gorputz guztiak eman zitezkeela ere. Eta astroez gain ez dudanez munduan ezagutzen ezer argia ekoizten duena, sua ez bada, bere naturari dagokion guztia argiro ulerrarazten saiatu nintzen; beste gauza batzuen artean nola sortzen den, nola elikatzen den, nola batzuetan ematen duen berotasuna argitasunik gabe eta beste batzuetan argitasuna berotasunik gabe, nola eman diezaiekeen zenbait kolore ezberdin zenbait gorputz ezberdinei eta baita beste zenbait nolakotasun ere, nola urtzen dituen batzuk eta gogortzen beste batzuk, nola ia guztiak suntsi edo errauts eta ke bihur ditzakeen, eta azkenik, nola errauts horietatik bere jardutearen indar hutsez kristala sortzen duen. Eta gainera errautsa kristal bihurtze hau naturan ematen den eraldaketarik miresgarriena iruditzen zitzaidanez, atsegin bereziz deskribatu nuen bera.

Hala ere, ez nuen nik gauza huetatik ondorioztatu nahi gure mundua azaltzen nuen era horretan sortua izan zela, askoz ere egiantzekoagoa baita Jainkoak hasieratik izan beharko zuen moduan egin zezala. Baina egia da, eta hau teologoek eskuarki onartzen duten aburua da, ekintza bera dela Jainkoak mundua iraunarazteko behar duena nola bera sortzeko behar izan duena. Hasieran munduari anabasaren itxura, eta ez beste, eman balio ere, naturaren legeak ezarriz gero, aukera emango ziokeen ohi duen erara joka dezan, eta honetara sinesgarria da -sorketaren miraria gutxietsi gabe- material hutsak diren gauza guztiak denborarekin gaur egun ikusten dugun bezalakoak bihurtu ahal izango ziratekeela. Eta errazago burura daiteke gauza horien natura eurak pittinka-pittinka jaiotzen ikustean, guztiz eginak bururatzen direnean baino.

Bizigabeko gorputzen eta landareen deskribapenetik animalienara eta bereziki gizakiarenara pasa nintzen. Baina gizakiaz nahikoa ezagutza ez nuenez, oraindik ezin nuen hitz egin berari buruz besteei buruz egindako maila berean (hots, ondorioak kausen bidez frogatuz eta naturak zein haziz eta nola ekoitzi behar dituen erakutsiz); honegatik, nahikoa nuen honakoa suposatuta: Jainkoak gizaki baten gorputza sortu zuela geurearen antzera (bai bere gorputzadarren kanpoko itxuran, bai bere organoen barne eraketan); eta nik deskribatua nuen materiaz osatu zuela oso-osorik; eta ez zuela jarri berarengan inolako arrazoimenezko arimarik, ezta arima begetatiboaren edo sentikorraren balioa izango zuen beste ezer ere. Haatik, suposatu nuen bere bihotzean nik azaldu dudana argirik gabeko su bat eragin zuela, zeina bururatzen nuen belarra lehorte aurretik gordetzen denean berotzen duen suaren natura berekoa, edo ardo berria mahatsa legamiatzen uzten denean irakinarazten duenaren natura berekoa. Zeren, honen ondorioz gorputz honetan eman zitezkeen funtzioak aztertuz, aurkitu nuen bertan zirela gu jabetu gabe gure baitan izan daitezkeen funtzio guzti-guztiak, hau da, guregan izan daitezkeenak gure arimak (hots, bere natura pentsatzea besterik ez duen gorputzetik bereizten den zati hark, gorago aipatu dudana hain zuzen) parte hartu gabe; eta esan daiteke funtzio hauengatik dutela gure antza arrazoirik gabeko animaliek. Alabaina, bide honetatik ezin izan nuen funtzio bakarra ere aurkitu guri gizakiak izateagatik egokituko litzaigukeena, pentsamenduaren menpekoa izango litzatekeena alegia; baina, oster, hauek guztiak aurkitu nituen suposatu nuenean Jainkoak arima razional bat sortu eta gorputz horri erantsi ziola nik deskribatzen nuen era jakin batez.

Baina gai hau zein eratan aztertu nuen ikusi ahal izateko harira ekarriko dut bihotzaren eta arterien higidurari buruzko azalpena, zeren, animalienengan somatzen den lehena eta orokorra denez, hortik erraz aterako delako beste guztiez zer pentsatu behar den. Eta anatomian adituak ez direnek esango dudana samurrago uler dezaten, nahiko nuke hau irakurri aurretik norbaiti euren aurrean birikadun animalia baten bihotza ebakieraz diezaiotela, giza bihotzaren guztiz antzekoa dena, horrela bertako bi ganbarak edo zulguneak ikusteko. Lehenik bere eskubikoa, bi hodi oso zabalak jasotzen dituen: hots, kaba zaina, odolaren jasotzailerik handiena eta gorputzaren gainerako zain guztiak bere adar bezala dituen, zuhaitzaren enborrean gertatzen den erara. Arteria zaina bestea -gaizki izendatua, arteria baita, izan ere-. Hau bihotzetik ateratzen da eta, ondoren, zatitzen da biriketarik sakabanatzen diren zenbait adarretan. Ondoren, ezkerrean dagoena, berak ere bi hodi jasotzen dituelarik, aurrekoak hainbat zabalak direnak edo gehiago: zain arteria da bata, -gaizki izendatua hau ere, biriketarik datorren zaina baino ez da eta-, bertan, zenbait adarretan sakabanatua dago, eta elkartzen da zain arteriaren eta baita txilibitu deritzogunaren adarrekin ere (arnas haizearen sarrera dena); arteria

nagusia bestea, bihotzetik ateratzen dena, beraren adarrak gorputzan barrena bidaltzen dituelarik. Halaber, nahiko nuke bi zulogune horietan dauden hamaika mintzak erakutsi diezazkieten, beste horrenbeste ate bailiran, bi zulogune horietako lau irekidurak zabaltzen eta ixten baitituzte; mintz horietatik hiru kaba zainaren sarreran: hauek kokatuta dauden eragatik ezin dute eragotzi berak dakarren odola isur dadin bihotzaren eskubiko zulogunera, baina bai eragozten diote bertatik irtetea. Hiru, arteria zainaren sarreran daude: hauek guztiz kontrara kokatuta daude, eta zulogune horietan dagoen odolari biriketara iragaiten uzten diote, baina, haatik, biriketara dagoenari ez diote itzultzen uzten. Bi gehiago, arteria zainaren sarreran: hauek biriketako odolari bihotzaren ezkerreko zulogunerantz iragaiten uzten diote, bere itzulera eragotzi arren. Eta hiru, arteria nagusiaren sarreran: hauek bihotzetik irteten uzten diote baina itzultzea eragozten diote. Eta mintz hauen kopuruari dagokionez ez dago honako hau baino arrazoi gehiago bilatu beharrik: zain arteriaren irekidura, bera dagoen lekuagatik, erosoago itxi ahal dela birekin, obala delako; besteak hiturekin hobe itxi daitezkeen artean, borobilak direlako. Gainera nahiko nuke zera kontutan har dezaten: arteria nagusia eta arteria zaina konposaketa askoz gogorragoak eta sendoagoak direla zain arteria eta kaba zaina baino; azken biok bihotzean sartu aurretik zabalagoak egiten direla, eta poltsa antzeko bi egiten dutela, bihotzaren belarriak deritzenak (bere antzeko haragiz osatuak); bihotzean gorputzeko beste edozein lekutan baino bero handiagoa dagoela beti; eta, azkenik, bihotzaren zulogunetan odol tanta bat sartuz gero, bero hau bera puztu eta dilatatzeko gai dela, oro har likido guztiekin gertatzen den bezalaxe oso bero dagoen ontziren batean jausten uztean.

Hau esan ondoren bihotzaren higidura azaltzeko honakoa gaineratuko dut bakarrik: bere zuloguneak odolez beteta ez daudenean ezinbestez sartzen zaiela odola, kaba zainetik eskubikoan eta zain arteriatik ezkerrekoan; bi hodi hauek beti beteta baitaude eta euren irekidurek bihotzerantz begiratzen dutenez ezin baitute itxita egon. Baina honela, zulogune horietako bakoitzean tanta bana sartu ahala, tantok (oso lodiak izan behar dutenak horietara sartzeko erabiltzen dituzten irekidurak oso zabalak direlako eta eurak dakartzaten hodiak odolez ondo beteta daudelako) bakantzen eta dilatatzeko dira bertan aurkitzen duten beroarengatik. Bero honen bidez, bihotz osoa puztuz, bi hodi sarreran dauden bost atetxoak bultzatu eta ixten dituzte, honela bihotzera odol gehiago jaistea eragotziz; gero eta gehiago bakantzen jarraituz, beste bi hodi sarreran dauden beste sei atetxoak bultzatu eta irekitzen dituzte, honela, arteria zainaren eta zain nagusiaren adar guztiak puzarazten dituztelarik bihotzarekin batera; hau ondoren hustu egingo da, arteriok dagiten bezala, sartzen zaien odola hoztu egiten dela eta. Eta sei atetxoak ixten dira berriro, eta kaba zainaren eta zain arteriaren bostak irekitzen dira atzera, eta beste odol tanta biri bide ematen diete. Eta bihotzean honela sartzen den odola lehenago bere belarriak izendatu ditugun boltsetatik pasatzen delako, izango dira elkarren aurkakoak hauen higidura eta bihotzarena, hau puzten denean haiek hustuko direlarik. Gainerakoan, matematikaren frogapenak ezagutu barik egiazko eta egiantzeko arrazoiaren artean bereizten ohituak ez daudenei zera oharrarazi nahi diet, ez daitezen hau ukatzera ausartu aztertu gabe azaldu berria dudana higidura hau bihotzean begi bistan ikus daitekeen organoen antolaera hutsaren beharrezko ondorioa dela (eta baita bertan hatzekin senti daitekeen beroarena eta esperientziaz ezagut daitekeen bihotzaren naturarena ere), erloju baten higidura bere kontrapisuaren eta gurpilen antolaeraren eta figuraren ondorio den bezala.

Baina galdegiten bada zergatik ez den bihotzeko odola agortzen, bihotzean etengabeki sartzen denez gero, eta nola ez dauden arteriak beteegiak, bihotzetik iragaiten den odol guztia euretara sartzen denez gero, erantzun beharko dudan gauza bakarra Ingalaterrako sendagile¹⁶ batek idatzi duena izango da. Berea da puntu honetan bidea zabaltzearen ohorea, bera izan delako lehena erakutsi duena arterien muturretan igarobidetxo batzuk daudela, eta hauen bidez sartzen dela zainetako adartxoetara arteriek bihotzetik jasotzen duten odola, zain hauetatik berriro bihotzera itzultzen delarik. Honela, beraz, odolaren ibilbidea etengabeko zirkulazioa izango da. Hau oso ondo frogatuko da kirurgialarien eguneroko esperientziaren bidez. Hauek besoa indar eskasez lotu ondoren (zaina ebaki duten lekua baino gorago), odol gehiago irtenaraziko dute lotu izan ez balute baino. Eta guztiz alderantziz gertatuko litzateke azpitik (eskua eta ebakiaren artean, alegia) lotuko balute, edo gainetik indar askoz handiagoz lotuko balute. Izan ere, agerian dago indar eskasez estaturiko lokarriak besoetan dagoen odolari eragotz diezaiokeela zainetatik bihotzerantz itzultzea, baina hau ez da eragozpena arterietatik beti odol berria etor dadin, hauek zainen azpitik kokatuta daudelako eta, euren mintzak gogorragoak direnez, estutzeko zailagoak direlako, eta, gainera, bihotzetik datorren odolak joera handiagoa duelako zainetan zehar eskuetarantz joateko, bihotzerantz itzultzeko baino. Halaber, odol hau besotik ateratzen denez zain batean eginiko ebakiaren bidez, igarobide batzuk egon behar dute lokarriaren azpitik (besoaren muturrerantz, alegia) odolak arterietatik etortzerik izan dezan. Era berean, odolaren ibilbideari buruz dioena oso ondo frogatzen du berak mintz batzuen bidez: hauek, zainetan zehar zenbait lekutan kokaturik dauden eragatik ez diote odolari gorputzaren erditik gorputzadarretara igarotzen uzten, gorputzadarretatik bihotzera itzultzen uzten diote besterik ez; eta, baita honako esperientziaren bidez ere: berak erakusten digu gorputzean dagoen odol guztia arteria bakar batetik atera daitekeela oso denbora gutxian, bera ebakiz gero; eta berdin da bihotzetik oso gertu indar handiz lotzen bada arteria hori eta ebakia lotura eta bihotzaren artean egiten bada, horrela aterako litzatekeen odol guztia bertatik datorrela pentsa daitekeelarik soilik.

Baina beste gauza askok ere lekukotzen dute odolaren higiduraren benetako kausa esan dudan horixe dela. Esaterako, lehenik, zainetatik ateratzen denaren eta arterietatik ateratzen denaren artean nabaritzen den aldearen jatorria honakoa baino ezin dela izan: odola bihotzetik igarotzean bakandurik eta distilatuta bezala geratzen dela, eta bertatik irten eta berehala (hau da, arterietan dagoenean) sartu baino pittin bat lehenxeago (hau da, zainetan dagoenean) baino meheago, biziago eta beroagoa dela. Eta arretaz so egiten bazaio aurkituko da alde hau bakarrik bihotz inguruan nabaritzen dela ondo, eta ez dela hain ondo nabaritzen bertatik urrunduenak dauden tokietan. Bestalde arteria zaina eta arteria nagusia osatzen duten mintzen gogortasunak frogatzen du odolak euren aurka zainen aurka baino indar handiagoz jotzen duela. Eta zer dela eta izango lirateke bihotzeko ezkerreko zuloarena eta arteria nagusia eskuineko zuloarena eta arteria zaina baino hedatuago eta lodiago, izango ez balitz zain arteriaren odola (bihotzetik pasa ondoren bakarrik biriketean egon dena) meheagoa delako kaba zainetik zuzenean datorrena baino eta hobeto eta arinago bakantzen delako? Eta zer igarriko dute sendagileek pultsoa hartzean, ez badakite odola, naturaz aldatu ahala, bihotzaren beroaz lehen baino indar edo arintasun handiagoz edo txikiagoz bakan daitekeela? Eta

¹⁶ William Harvey (1578-1658), odolaren zirkulazioa aurkitu zuen sendagilea.

bero hori nola zabaltzen den beste gorputzadarretara aztertuz gero, onartu beharko da odolaren bidez dela, zeina bihotzetik pasatzean berotzen den hortik gorputz guztira banatuz. Hemendik ateratzen da nonbaitetik odola kentzen bada, beroa ere kenduko dela, eta bihotza burdina gorria bezain gartsua izango balitz ere, ez litzatekeela gai izango eskuak eta oinak berotzen dituen adina berotzeko, etengabe odol berria bidaliko ez balie. Gainera, hemendik ezagutzen da arnasaren benetako eginbeharra biriketara aire freskoa sartzea dela, horrela bihotzeko eskubiko zulogunetik bakandua eta lurrundua legez datorkion odola sendotuko delarik, eta atzera odol bihurtuko delarik ezkerreko zulogunera itzuli aurretik, ez bailitzateke bestela erregai egokia izango bertan dagoen suarentzat. Hau baieztatuko da ikusten delako birikarik ez duten animaliek bihotzean zulogune bakarria dutela, eta baita ikusten delako hurrek, euren amaren sabelean dauden artean birikak erabili ezin dituztenez, odola kaba zainetik bihotzaren ezkerreko zulogunera helarazten duen irekidura bat dutela eta baita biriketatik pasa gabe arteria zainetik arteria nagusira dakarren hodi bat ere. Gainera, nola egingo litzateke urdailean liseriketa, bihotzak arterien bidez berotasuna bidaliko ez balu bertara, eta bertan ipini diren janariak desegiten laguntzeko berotasun honekin batera bidaliko ez balitu odolaren atalik jariakorrenen artetik baten batzuk? Eta janari hauen ura odol bihurtzen duen ekintza ez al da erraz ezagutuko kontutan hartzen badugu, bera distilatzen dela behin eta berriz bihotzetik igaroz, agian ehun edo berrehun bat bider egunean? Eta elikapena eta gorputzean diren humore ezberdinen ekoizpena azaltzeko nahikoa izango da zera esatea: odolaren indarrak (bakantzean bihotzetik arterien muturretaraino igarotzeko erabiltzen duena) bere ataletatik baten batzuk geldiarazten dituela, eta odolaren zati horiek beste batzuen lekua betetzen dutela (hain zuzen, kokatzen diren lekuetako gorputzadarren zatien artean alde batera botatzen dituztenenak); eta, kokapenaren, nahiz irudiaren, nahiz topatzen duten poroen txikitasunaren arabera batzuk leku batzuetara helduko direla eta besteak besteetara, bakoitzak ezberdinki zulaturiko bahe ezberdinak topatu balitu legez, ale ezberdinak elkarrengandik banantzeko balio dutenak. Eta azkenik, honetan guztian nabarmengarriena dena izpiritu animalien sorrera da. Hauek haize oso mehe baten antzekoak dira, edo, hobeto esanda, gar oso garden eta bizi baten antzekoak, zeinak gorputzadar guztiei higidura emango dien etengabe, bihotzetik burmuinera igoaz ugaritasun handiz eta, ondoren, nerbioetatik giharretara itzuliz. Izpiritu animalia hauek osatzeko egokienak diren odolaren atalak (mugikorrenak eta sarkorrenak direnak hain zuzen) zer dela eta abiatzen diren burmuinerantz beste inora baino lehenago ulertzeko honako zergati hauek bururatzea nahikoa da: alde batetik, eurak daramatzaten arteriak bihotzetik zuzenezuzenean datozenak direla, eta, bestetik, mekanikaren legeen arabera (naturaren berdina direnak hain zuzen) gauza batzuk alde batera mugitzera jotzen dutenean, guztientzat nahikoa leku ez egonik, indartsuenek ahulenak eta higigaitzenak desbideratu behar dituztela, honela lehenak bakarrik iritsiz, eta bihotzeko ezkerreko zulogunetik ateratzen diren odolaren atal guztiek era horretantxe jotzen dutela burmuinerantz.

Gauza hauek guztiak nahikoa xehetasunez azaldu nituen argitaratzeko asmotan egon nintzen tratatu hartan. Eta ondoren azaldu nuen nola egon behar duten moldatuak giza gorputzaren nerbioak eta giharrak, izpiritu animaliek (giza gorputz horren baitan egonik) nahikoa indar izan dezaten gorputzadarrak mugitzeko: hau buruetan ikusten da, ebaki eta pittin bat geroxeago oraindik mugitu eta lurrari haginka egiten diotenean, ordurako animatuak ez izan arren. Azaldu nuen gainera zeintzuk aldaketa gertatu behar diren burmuinean berak ekar dezan esna-aldia, loa eta ametsa; nola argiak, hotsek, usainek,

gustuek, beroak eta kanpoko gai guztien nolakotasunek sentimenen bidez berarengan ideia ezberdinak inprima ditzaketen; nola goseak, egarriak eta gainerako barne grinak ere eurenak bidal ditzaketen; zer ulertu behar den ideia hauek jasotzen dituen senaz; zer eurak gordetzen dituen oroimenaz; eta zer irudimenaz, honek ideiak era askotara alda baititzake eta berriak osatu, eta era berean, gorputz horren gorputzadarrak mugiaraz baititzake, nahimenak gidatzen ez dituenean mugi daitezkeen hainbat aldiz, [izpiritu animaliak] giharretan barrena zabalduz eta hauek sentimenei agertzen zaizkien hainbat gairi eta hainbat barne grinari egokituz. Eta hau ez zaie inolaz ere harrigarria irudituko kontsideratzen dutenei gorputz hau makina bat dela, Jainkoaren eskuez eginikoa, gizakiek egin dezaketen beste edozein baino askoz ere hobeto taxutua, eta gizakiek asma dezaketen edozein baino askoz ere higidura miresgarriagoak dauzkana beraren baitan, nahiz eta horiek badakiten giza industriak oso atal gutxirekin (gutxi, batez ere alderatzen baditugu animalia bakoitzaren gorputzean dagoen hezur, giharre, nerbio, arteria, zain eta gainerako zati guztien askotasun galantarekin) anitz automata ezberdin edo tresna mugikari egin ditzakeela.

Eta hemen gelditu egin nintzen zera ikusarazteko: tximino baten, edo arrazoimenik gabeko beste edozein animalia, gorputzadarrak eta itxura bera izango luketen makinak egongo balira, ez genukeela inolako modurik izango ezagutzeko ez direla animalia horien natura berekoak; eta, ostera, gure gorputzaren antza izango luketen makinak baleude eta gure ekintzak antzeratuko balituzte moralki ahal deneraino, guk, horregatik, bi bide oso ziurak izango genituzkeela ezagutzeko ez direla benetako gizakiak: lehena da ezingo luketela sekula ez hitzik ez beste zeinurik erabili eurak konbinatuz, guk besteei gure pentsamenduak adierazteko egiten dugun legez. Bururagarria da egin dadila makina bat hitzak ebakitzeko gaitasunaz, edo baten batzuk ebaki ditzala bere organoetan aldaketaren bat eragiten duten ekintza dela eta (hala nola, lekuren batean ukitzen bazaio zer esan nahi zaion galdegin dezala, eta beste batean ukitzen zaionean min hartu izan balu bezala oihuka dezala, eta antzerakoak); baina, hala ere, ezingo ditu hitzak taxutu bere aurrean esango den guztiaren zentzuari erantzun ahal izateko behar hainbat era ezberdinetan, gizakirik aberetuenak egin dezakeen legez. Eta, bigarrenik, gauza ugari gutariko edozeinek bezain ondo edo agian hobeto egingo balituzte ere, beste zenbaitetan nahitaez huts egingo lukete, hauen bidez jakingo genukeelarik euren organoen antolaeragatik eta ez ezagutzaz dihardutela. Ezen arrazoimena edozein motatako egoeratan baliagarria den lanabes unibertsala den artean, organo hauek, berriz, ekintza berezi bakoitzarentzat antolaera berezia behar baitute. Hemendik ateratzen da moralki ezinezkoa dela makina batean nahikoa antolaera ezberdin egon dadila bizitzaren gertaera guztietan jokatu ahal izan dezan gure arrazoiak jokarazten digun bezala.

Hala ere, bi bide hauei esker ezagutu daiteke gizakien eta piztien artean dagoen aldea. Zeren ondo gauza nabarmengarria baita ez dagoela inon hain gizaki abereturik eta kirtenik (zoroak ere kontutan izanik) gai izango ez dena zenbait hitz elkarrekin josteko eta diskurtso bat osatzeko bere pentsamenduak adierazi ahal izateko; eta, ostera, ez dagoela antzerako zerbait egin lezakeen animaliarik, ezta perfektuena edo zorion handienez jaiotakoa ere. Eta ez da hau horrela organoen faltan daudelako, izan ere, agerikoa da mikoek eta loroek, guk bezala, hitzak ebaki ditzaketela, baina ezin dute guk bezala hitzik egin, hau da, diotena pentsatzen dutela lekukotuz. Gorra eta mutuak jaio diren gizakiek, berriz, besteei hitz egiteko balio dieten organoen faltan daudelarik

(piztiak beste edo gehiago), zeinu batzuk asmatzen dituzte, eurak ikasi nahi dituzten ohiko lagunekin komunikatzeko. Eta honek piztiak gizakiek baino arrazoi gutxiago dutela ez ezik, ezertxo ez dutela ere lekukotuko du. Hitz egiten jakiteko oso gutxi behar dela dakusagu eta; eta bai espezie bateko animalien artean, bai gizakien artean, ezberdintasuna igartzen denez (eta baita batzuk besteak baino errazago hezitzen direla ere), sinesgaitza litzateke euren espeziean perfektuenetakoak diren tximino edo loro batek ez dezala honetan berdindu umerik ergelentako bat, edo burua nahastuta duen ume bat behintzat, euren arima gurearen natura guztiz ezberdinekoa izango ez balitz. Eta ez dira nahastu behar hitzak eta grinak azaleratzen dituzten higidura naturalak, makinek animaliek bezain ondo antzera ditzaketen higidurok alegia; eta ez da pentsatu behar, ezta ere, antzinakoen arteko batzuek bezala, piztiak hitz egiten dutela, guk euren hizkuntza ulertzen ez dugun arren: zeren hau egia balitz, geuren pareko diren zenbait organo daukatenez, euren kideei ulertarazten dietena guri ere ulertarazi ahal izango liguketelako. Benetan gauza nabarmengarria da, halaber, animalia batzuek euren ekintzetariko baten batzuetan guk baino trebetasun handiagoa erakutsi arren, agerikoa dela animalia horiek beste askotan ez dutela pittinik ere azaltzen, eta guk baino hobeto egiten duten horrek ez du frogatzen adimena dutela, horrela balitz gutako edozeinek baino adimen gehiago izango luketelako eta gainerako gauza guztiak hobeto egingo lituzketelako, haatik frogatzen du ez dutela adimenik inondik ere, eta eurenagan naturak jokatzen duela organoen antolaeraren arabera: gurpilez eta malgukiz osaturiko erloju batek guk geure zuhertasun guztiaz baino askoz ere zehazkiago orduak kontatu eta denbora neur ditzakeela dakusagun bezala.

Horren ondoren arima razionala deskribatu nuen eta erakutsi nuen ezin dela materiaren ahalmenen ondorio izan, aztertu ditudan gainerako gauzak badiren bezala, espresuki sortua izan behar duela; eta ez dela nahikoa giza gorputzean kokatua izan dadila (pilotua bere itsasontzian egoten den erara) gorputzaren lohadarrak mugitzeko, premiazkoa baitu berari elkartua eta estuago lotua egotea, horretaz gainera gureen antzeko beste sentimendu batzuk izan ditzan eta benetako gizakia osa dezan. Gainerakoan, pittin bat luzatu naiz hemen arimari buruz hitz egiten, gaia garrantzitsuenetarikoa delako. Zeren Jainkoa ukatzen dutenen okerraz beste, nire ustez nahikoa errefusatu dudana, adimen ahulak bertutearen bidetik gehiago urrunduko dituen zera izango da: piztien arima gurearen natura berekoa dela irudikatzea, eta, ondorioz, irudikatzea ez dugula bizitza honen ondoren ezere beldur izan beharrik, ezta ezer espero beharrik ere, euliek eta inurriek espero dutena eta beldur direna baino gehiago. Alabaina, noraino ezberdintzen diren baldin badakigu, askoz ere hobeto ulertuko ditugu gure arima gorputzaz guztiz askea den natura batekoa dela frogatzen duten arrazoiak, eta, ondorioz, ez dela berarekin batera hil behar. Gainera, bera suntsituko duten beste kausarik ikusten ez denez, hilezina dela iriztera joko dugu geurez.

SEIGARREN ZATIA

Gauza hauek guztiak jasotzen dituen tratatua¹⁷ burutu nuenetik hiru urte joan dira eta bera berrikusten hasi nintzenean, inprimatzaile baten eskuetan jartzeko asmotan, jakin nuen begirunea zor diedan pertsona batzuek (zeintzuek nire ekintzen gainean duten agintea nire arrazoimenak nire pentsamenduen gainean duena hainbatekoa edo handiagoa den) gaitzetsi egin zutela beste norbaitek pixka bat lehenxeago argitaratu zuen fisikari buruzko bere aburua¹⁸. Ez dut esan nahi aburu horretakoa nintzenik, baina bai ez nuela hor ezer susmatu, haien gaitzespenaren aurretik, kaltegarritzat jo nezakeenik ez Estaturako, ez erlijiorako, eta ezta, beraz, hori idaztea eragotziko lidakeenik ezer ere, arrazoiak horretaz konbentzituko banindu. Honegatik, beldur izan nintzen ez ote zen nire aburuen artean ere era horretakoren bat egongo, beti arreta handia izan dudan arren nire sinesmenean berririk ez hartzeko oso frogapen ziurrak izan gabe eta ezer ez idazteko inoren kalterako izan zitekeena. Hau nahikoa izan zen argitaratzeko hartua nuen erabakia aldatzera behartzeko nire burua. Izan ere, aurretik erabaki hori hartzeko oso arrazoi sendoak izan banituen ere, liburuak egiteko lana gorrotatzera eraman nauen nire joerak bultzatu ninduen beste zenbait arrazoi aurkitzera eginkizun hori baztertzeko berehala. Eta, bai gauza bat, bai bestea, egiteko arrazoiak benetan sendoak direlako, nik eurak adierazteko gogoia izateaz gain, agian jendeak ere izango du eurak ezagutzeko gogoia. Nik ez ditut sekula nire adimenetik zetozkidan gauzak oso aintzakotzat hartu, eta ez dut inoiz pentsatu ezer idazteko premia nuenik, lehenago, darabildan metodotik jasotzen ez banuen beste emaitza batzuk honakoez gain: hots, zientzia espekulatiboei dagozkien zailtasun batzuez ase izatea, edo nire ohiturak berak erakusten dizkidan arrazoen bidez arautzen ahalegintzea. Zeren, ohiturei dagokienez, bakoitza norberaren senari biziki lotzen zaionez, buru hainbat eraberritzaile aurkituko litzateke, baldin eta Jainkoak zerbait aldatzen saiatzeko baimena beste batzuei ere eman izan balie (euren herriaren subirano izateko ezarri dituen ez gain, edo berarengandik profeta izateko donu edo ardura hartu dutenez gain). Eta nire espekulazioak oso gogoko nituen arren, iruditu zait besteek ere izan ditzaketela nireak baino gogokoago izango dituztenak. Baina fisikari buruzko nozio orokor batzuk nireganatu eta zenbait zailtasun bereiziren aurrean probatzen hasi ahala, noraino hel daitekeen horiekin konturatu naiz, eta baita noraino bereizten diren orain arte erabili diren hastapenetatik ere, eta iruditu zait ezin nituela ezkutatuta eduki, gizaki guztien onura -gure esku dagoen neurrian- lortzera behartzen gaituen legearen aurka bekatu egin gabe. Izan ere, nozio horien bidez ikusi baitut bizitzarako oso onuragarriak izango diren ezagupenetara hel daitekeela eta baita eskoletan irakasten den filosofia espekulatiboaren ordezkirik aurki daitekeela ere; eta honen bidez su, ur, haize, astro eta inguratzen gaituzten gainerako gorputz guztien indar eta ekintzak ezagutzeko gero (gure artisauen lanbideak ezagutzen dituguna bezain bereizturik), eurretaz balaia gintezke egokitzen diren erabilpen guztietan, eta horrela naturaren jaun eta jabe bihurtzeko. Eta hau nahigarria da alde batetik lurraren fruituez eta bertan aurkitzen diren erosotasun guztiez inolako lanik gabe gozatzea baimenduko diguten ezin konta ahala tresna asmatuko direlako, baina baita nagusiki osasunaren iraupenerako ere, bera baita, zalantzarik gabe, bizitza honetako gainerako ondasun guztien artetik lehena eta euren oinarria. Adimena bera ere hain dago jiteari eta gorputzaren organoen antolaerari menperatua, ezen uste dut gizakiak orain arte izan direna baino jakintsuago eta trebeago bihurtzeko bideren bat aurkitu ahal balitz, medikuntzan bilatu behar dela. Egia

¹⁷ *Traité du Monde*.

¹⁸ Munduaren higidurarena, Galileori kondena ekarri ziona.

da gaur egun praktikatzen denak benetan gauza gutxi duela halako baliagarritasun handikoa izango dena, baina bera gutxietsi nahi ez badut ere, segurutzat daukat ez dagoela inor, lanbide horretan dihardutenak barne, aitortzen ez duena ezagutzen dena ez dela ezer ezagutzeko dagoenaren ondoan; eta gainera ezin konta ahala gaixotasunetik aska gaitzakeela, bai gorputzekoetatik, bai adimenekoetatik, eta, agian, baita zahartzaroko ahuleziatik ere, baldin eta nahikoa ezagutza izango bagenu euren kausari buruz eta naturak hornitu gaituen sendagaiei buruz. Alabaina, nire bizitza osoa hain beharrezkoa litzatekeen zientzia baten bila emateko asmoa nuen, eta bide bat topatu nuen, ezinbestez hura aurkitzera eramango duena, nire ustez, bera jarraituz gero, eta bizitzaren laburtasunak edo esperientzien faltak eragozten ez badu. Eta horregatik guztiagatik zera pentsatu nuen: eragozpen hauek saihesteko modurik onena izango zela jendeari aurkitu nuen gutxia zehaztasunez jakinaraztea eta adimen azkarrekoak gonbidatzea honetan aurrerago joaten ahalegin zitezenean (bakoitzak lagundu dezan egin beharreko esperientzietan bere joera eta bere ahalmenarekin) eta, ondoren, ikasiko luketen guztia eurok ere jendeari jakinaraz diezaioten, azkenengoak aurrekoek bukatu duten lekutik hasteko. Eta honela, anitzen bizitzak eta lanak batuz, guztiok batera ailegatuko ginatke bakoitza bere kasa ailega litekeenera baino askoz ere urrutiago. Halaber, esperientziei dagokienez somatu nuen ezagupenak aurreratu ahala orduan eta premiazkoagoak direla. Hasiara batean hobe da geure sentimenei berez agertzen zaizkien esperientziez baliatzea (hau da, oso gogoeta gutxi eginda ere kontutan hartu gabe ezin utzi ditugun horietaz) eta ez arraragoak eta landuagoak bilatzea; eta hau honako arrazoiengatik: arraroenok sarritan nahasketa sortzen dutelako oraindik ezagutzen ez direnean kausa arruntenak, eta, gainera, sumatzeko oso zailak direlako, eurak menpean dituzten zertzeladak oso partikularrak eta xumeak direla eta. Bestalde, lan honetan jarraitu dudana ordena honako hau izan da: lehenik munduan den edo izan daitekeen guztiaren hastapenak edo lehen kausak topatzen ahalegindu naiz orokorki, eta honetarako bera sortu duen Jainkoa hartu dut gogotan besterik ez, eta hastapen horiek berez gure ariman dauden egien hazi batzuetatik baino ez ditut atera. Ondoren aztertu dut zeintzuk ote ziren kausa hauetatik deduzi litezkeen lehen ondorioak eta arruntenak, eta honela iruditu zait zeruak, astroak, lurra, eta lurraren gainean ura, haizea, sua, mineralak eta gauza guztien artean arruntenak eta bakunenak (eta ondorioz ezagutzeko errazenak) direnak aurkitu ditudala. Gero kausa partikularragoetara jaitsi nahi izan dudanean, hauek oso ezberdinak agertu zaizkidala eta, uste izan dut ezinezkoa izango dela giza adimenarentzat bereiztea lurrean egon badauden gorputzen forma eta espezieak bertan egon zitezkeen beste askoren artetik (Jainkoak jarri nahi izan balitu), eta beraz ezinezkoa izango zela, era berean, eurak gure erabilerara egokitzea, baldin eta izango ez balitz ondorioen bidez kausetara helduz edo esperientzia partikularrez baliatuz. Jarraian, nire adimenarekin nire sentimenei inoiz agertutako gai guztiak aztertuta honakoa esatera ausartzen naiz: ez dudala ezer somatu erosotasunez azal ez nezakeena aurkitu nituen hastapenen bidez. Baina aitortu behar dut naturaren gaitasuna biziki zabala eta handia dela, eta hastapen hauek biziki bakunak eta orokorrak direla, eta hori dela eta ez dudala ia batere ondorio partikularrik somatu alde aurretik jakin gabe bera hastapen hauetatik ondoriozta daitekeela anitz modu ezberdinetara; eta nire arazorik handiena, eskuarki, da aurkitzea zein modutan den ondorio hau hastapen haien menpeko. Eta honetarako irtenbiderik egokiena zera da: berriro esperientzia batzuk bilatzea, emaitza ezberdinak izango dituztenak eurak azaltzeko modu bat erabiliz gero edo beste bat erabiliz gero. Bestalde, hainbeste aurreratu dut puntu honetan, ezen

nahikoa garbi ikusten dut, nire ustez, nondik jo behar dudan helburu hori betetzeko balioko duten esperientzia gehienak gauzatzeko. Baina, era berean, nolakoak eta zein ugariak diren ikusita, ez lirateke aski izango guztiak gauzatzeko ez neure eskuak, ez neure irabaziak, ezta daukadana baino mila bider gehiago edukiko banu ere. Hontara, zer erraztasun daukadan aurrerantzean esperientzia gehiago edo gutxiago egiteko, horren arabera aurreratuko nuke naturaren ezagupenean gehiago edo gutxiago. Idatzitako tratatu harekin nire asmoa zen hori guztia ezagutaraztea; eta, gainera, hain argiro erakutsi nahi nuen bertatik jendeak jaso zezakeen onura, ezen orokorki gizakientzat ona desiratzen duten guztiak (hau da, benetan bertutetsu diren guztiak, eta ez azalez eta ospe hutsez direnak) behartuko baintuzke niri jakinaraztera dagoeneko eginak dituztenak, eta baita egiteko diren ikerketetan laguntzera ere.

Baina, harrez gero, beste arrazoi batzuk aburuz aldatzera behartu ninduten eta pentsarazi zidaten garrantzizko neritzen gauza guztiak idazten jarraitu behar nuela - euren egia aurkitzen nuen neurrian-, eta inprimatu nahiko banitu ipiniko nukkeen arreta beraz idatzi gainera. Bai eurak ondo aztertzeke aukera handiagoa izateko (zerbait askok ikusi behar dutela pentsatuz egiten bada, arreta handiagok gauzaten baita norberarentzat egiten dena baino, eta sarritan zerbait bururatzen hastean egiazkotzat jotzen nuena faltsu iruditzen zitzaidalako paperetan jartzerakoan) eta baita jendearentzat baliagarria izateko aukerarik ez galtzeko ere, horretarako gai naizen neurrian, eta, halaber, nire idazkiak nire heriotzaren ondoren jasoko dituztenek modurik egokienera erabili ahal izan ditzaten ere, eurek zerbait balioko balute. Baina pentsatu nuen, gainera, nire bizitzak dirauen artean ez nuela inolaz ere eurak argitaratzeko baimenik eman behar, nik ikasten eman nahi nuen denbora galdu beharra ez izateko, ez ideia horiek sorraraz zitzaketen kontrako jarrerengatik eta eztabaidengatik, eta ezta ekar ziezadaketen ospearengatik ere. Zeren egia izan arren gizaki oro, bere esku dagoen artean, besteen onerako ahalegindu behar dela, eta inorentzat baliagarria ez denak ezertarako balio ez duenez, egia da, halaber, gure ardura oraingo egunetara baino areago zabaldu behar dela, eta ona dela bizi direnei probetxuren bat ekar diezazkieketen gauzak gordetzea, geure ondokoei ongariagoak izango zaizkien besteren batzuk ekoizteko asmoa dugunean. Eta jakinarazi nahi dut dagoeneko ikasi dudan gutxia ez dela ia ezer ez dakidanaren ondoan, baina ez dudala, hala ere, ez dakidan hori ikasi ahal izateko itxaropenik galtzen. Izan ere, ia gauza bera gertatzen baita egia pittinka-pittinka zientzietan aurkitzen dutenekin eta aberats bihurtzen hasten direnekin; hauei gutxiago kostatzen zaie lorpen handiak eskuratzea, lehenago, behartsuak zirenean, txikiagoak eskuratzea kostatzen zitzaiena baino. Edo armadako buruzagiekin ere aldera daitezke, garaipenekin batera gehitzen baitira hauen indarrak, eta horregatik nagusitasun handiagoa behar dute galdutako bataila baten ondoren buruzagi irauteko, irabazi ondoren hiriak eta probintziak hartzeko baino. Izan ere, benetan borroka egitea da gainditzten saiatzea egiaren ezagupenera iristea eragozten diguten zailtasun guztiak, eta bataila bat galtzea izango da aburu oker bat onartzea gai orokor xamar eta garrantzitsu bati buruz. Ondoren askoz ere trebetasun handiagoa beharko da aurreko egoera berera itzultzeko, hastapen seguruak ditugunean aurrerakuntza handiak egiteko baino. Niri dagokidanez orain arte zientzietan zenbait egia aurkitu baditut (eta espero dut liburu honetan jasotzen diren gauzek egiaztatuko dutela baten batzuk aurkitu ditudala) esan dezaket gainditu ditudan bospasei zailtasun nagusiren jarraipena eta menpekotasuna direla besterik ez, eta zoria aldeko izan dudan beste horrenbeste bataila izan direla. Gainera, ez dut erreparorik izango zera esateko: nire ustez beste bi edo hiru antzerako

bataila irabaziz gero, nahikoa dudala nire helburua erabat lortzeko, eta naturaren ohiko ibilbidea kontutan izanik, ez nagoela urtetan hain aurrera sartua ez izateko nahikoa asti hori egiteko. Baina, nire iritzitan, denbora ondo aprobetxatzeko zenbait eta itxaropen handiagoa izan, orduan eta behartuagoa sentitzen naiz geratzen zaidana ez galtzera; eta nire fisikaren oinarriak argitaratuko banitu denbora galtzeko aukera asko izango nuke. Izan ere, eurak sinesteko ez dagoen arren ulertu beharra, ia denak oso ebidentekak direlako, eta bakarra ez dagoen arren nire ustez frogatu ezin dudana, hala ere, nik aurrakusten dut sarritan arreta galduko nukeela sorraraziko lituzketen kontrako jarrerengatik, ezinezkoa baita beste gizakien aburu ezberdin guztiekin bat etor daitezela.

Nire kontrako jarrerok baliagarriak izango liratekeela esan daiteke, bai nire hutsak ezagutzeko, eta baita besteek hobeto uler ditzaten nire hastapenak, eurretan zerbait ona egongo balitz; eta esan daiteke, gainera, euren asmaketekin lagunduko lidaketela nire ekarpenez baliatzen hasiko balira, gizaki askok bakar batek baino gehiago ikus baitezakete. Onartzen dut huts egiteko oso joera handia dudala eta ez naizela ia inoiz fidatzen bururatzen zaizkidan lehen pentsamenduez, baina, hala ere, eman diezazkideketen kontrako arrazoiei buruz dudak esperientziak eragozten dit horietatik probetxurik itxarotea. Zeren, dagoeneko sarritan jasan ditut zenbaiten irizpenak, bai adiskidetzat nituenenak, bai nirekiko ezaxolatzat nituenenak, eta baita beste zenbaitenak ere, zeintzuk gaiztotasunagatik eta bekaizkeriagatik biziki saiaturiko ziren aurkitzen nire adiskideek estimaren eraginagatik aurkitu ezingo zutena. Baina oso gutxitan gertatu da eragozpen bat jar ziezadatela aurreikusi gabe neukan zerbaiti buruz, nire gaitik oso urrutiko zerbaitetaz ez balitz. Honela, ez dut sekula aurkitu nire aburuen inolako zentsorerik ni neu adina zorrotza eta ni neu adina zuzena irudituko litzaidakeena. Eta ez dut sekula somatu eskoletan egiten diren eztabaidetan aurkitu denik aurretik ezagutzen ez zen egirik, zeren, bakoitzak garaitu nahi duenez, askoz gehiago saiatzen dira egiantzari balioa ematen, bataren eta bestearen aldeko arrazoen indarra neurtzen baino. Eta luzaroan abokatu onak izan direnek, ez dute zertan gero epaile hobeak izan.

Nire pentsamenduak jakinaraziz gero, besteek aterako luketen onura ezingo litzateke oso handia izan ez ditudalako nahikoa garatu eta, hau dela eta, oraindik beharrezkoa delako euri gauza asko gaineratzea aplikatzen hasi aurretik. Eta uste dut harrokeriarik gabe esan dezakedala inor egotekotan eurak garatzeko gauza izango dena, nik izan behar dudala beste edozein baino hobeto. Eta ez munduan ezin direlako izan nirea baino adimen askoz ere hobeak, baizik eta beste batengandik ikasten dena ezin delako bururatu, ezta berataz jabetu ere, norberak asmatzen duena bezain ondo. Gai honi dagokionez hau oso egia da, eta horregatik benetan adimen handiko pertsonen nire aburu batzuk azaltzen nizkienean sarritan ematen zuen oso bereizturik ulertzen zituztela, nik hitz egin ahala, baina, hala ere, ohartu naiz berriro errepikatu izan dituztenean hainbeste aldatu dituztela non ezingo nituzkeen nireak bailiran onartu. Hau dela eta adeitasun osoz erregutu nahi diet gure ondoren etorriko direnei, ez dezatela ezer sinetsi niregandik datorrela esaten dietenean, nik neuk zabalduko ez bada. Ez naiz harritzen ezer antzinako zenbait filosofoi (euren idazkiak ezagutzen ez ditugula eta) atxikitzen dizkieten bitxikeriekin, eta ez dugu horregatik uste izan behar euren pentsamenduak oso zentzugabeak izango zirenik, baizik eta, kontutan izanik eurak zirela garaiko adimenik handienak, gaizki kontatu dizkigutela iritzi behar diegu, besterik ez. Horrela ikusten dugu ez dituztela euren jarraitzaileek ia inoiz gainditu, eta seguru nago

gaurko Aristotelesen jarraitzaileen artetik sutsuenak ere zorion handikoak izango liratekeela berak zuen naturari buruzko ezagupena izango balute, baita bera sekula ez gaintzeko baldintzarekin ere. Huntza bezalakoak dira, bera eusten duten zuhaitzak baino gorago igo ezin duena, eta baita jaitsi ere jaisten dena behin adaburura heldu eta gero. Izan ere, iruditzen zait haiek huntza bezala jaisten direla, hau da, ikasteari utzi baliote baino ezjakinago bihurtzen direla. Eta euren gogoko egileak azaltzen duen guztia jakitearekin konformatzen ez direnez, beste zenbait zailtasunen irtenbidea bilatzen saiatzen dira, hark horri buruz ezer esaten ez duen arren, eta inoiz pentsatu ezin izan dituen arren. Hala ere, euren filosofatzeko era oso eroso da adimen oso kaskarra dutenentzat; zeren erabiltzen dituzten bereizketen eta hastapenen iluntasuna dela eta edozein gairi buruz hitz egin baitezakete, balekite bezain ausarki; eta dioten guztiari eutsiko diote burutsuenen eta trebeenen aurka, eta ez da eurak konbentzitzeko modurik izango. Nik honetan itsu baten antza hartzen diet: honek ikusten duen baten aurka borrokatu behar duenean desabantaila ez izateko haitzulo ilun baten barreneraino eramango du bestea. Eta esan dezaket haiei interesatzen zaiela nik nire filosofiaren hastapenak ez ditzadala argitara, zeren oso bakunak eta ebidenteak direnez, eurak argitaratzea leiho batzuk irekitzea bezalaxe izango bailitzateke, argia sartzeko hauek borrokatzera jaitsi diren haitzulora. Baina adimenik onenek ere ez dute zertan eduki hastapen hauek ezagutzeko gogo handirik. Izan ere, gauza guztiei buruz hitz egiteko gai izan nahi badute, eta jakitun izatearen ospea irabazi, errazago lortuko dute hori egiantzarekin konformatzen badira (neke handiegirik gabe aurki daitekeena edozein gairen inguruan) egia bilatuz baino (gai batzuetan eta pittinka-pittinka aurkitzen dena bakarrik, eta beste gai batzuei buruz hitz egin beharra dagoenean ezjakintasuna aitortzera behartzen duena). Baina nahiago badute egia gutxi batzuk ezagutu, gauza guztietan jakitun izatearen itxura egitearen harrokeriaren ordeztu, zalantzarik gabe hobe dena, eta nirearen antzeko asmoa jarraitu nahi badute, ez da beharrezkoa nik esan diezaiedala ezer diskurtso honetan esan dudanez beste. Zeren gai badira ni heldu ez naizenera iristeko, gai izango dira, halaber, arrazoi gehiagorekin, nik aurkitzeko asmoa dudana aurkitzeko. Guztia ordena bati jarraituz aztertu dudanez, gauza ziurra da oraindik aurkitzeko dudana orain arte aurkitu ahal izan dudana baino zailagoa eta ezkutatuagoa izango dela, eta plazer gutxiago jasoko dutela nik irakatsita ikasten badute euren kabuz ikasita baino; gainera, lehenik gauza errazak bilatzen hartuko duten ohitura, gero poliki-poliki mailaka zailagoetara pasatzeko, nire argibide guztiak baino baliagarriagoa izango zaie. Ni neu ere seguru nago honakoaz: gaztetatik irakatsi balizkidate gero neuk frogapena aurkitu diedan egia guztiak, eta ahaleginik gabe ikasi izan banitu, beharbada ez nukeela inoiz horietaz gain beste egirik ezagutuko, eta, gutxienez, ez nukeela inoiz nireganatuko beti egia berriak aurkitzeko -hauen bila saiatzen naizen neurrian- nire ustez dudanez erraztasuna. Hitz batez, munduan baldin badago lan bat ezin duena inork bukatu hasi duenak baino hobeto, nik lantzen dihardudan hauxe dena seguru nago.

Egia da lan honetarako baliagarriak izan daitezkeen esperientziei dagokienez, gizaki bakarra ez dela nahikoa izango guztiak gauzatzeko. Baina beste norbaiten eskuak erabiltzekotan, eta ez berarenak, onuraz erabili ahal izango lituzkeen bakarrak artisauenak edo berak ordaindu ahal izango lituzkeen jendearenak izango lirateke; hauei berak agindutako guztia zehatz-mehatz eginaraziko lieke -irabaziren bat ateratzeko itzaropena izango zutenek-, hau oso bide eraginkorra baita. Ostera, jakinguraz edo ikasteko gogoz euren burua laguntzeko eskainiko luketen boluntarioek agindu egiten

dute, ezertan lagundu baino gehiago, sekula gauzatzen ez diren proposapen ederrak egiten dituztelarik, eta gainera zailtasun batzuen azalpena nahiko lukete ordainsari gisa, edo gutxienez alferrikako lausengu eta elkarrizketak, eta hau, gutxi izanda ere, denbora galtzea baino ez litzateke izango. Besteek eginak dituzten esperientziei dagokienez, eurek jakinarazi nahiko balituzte ere -sekretutzat jotzen dituztenek egingo ez dutena inoiz- zaila izango zaio horietatik egia ateratzea, gehienak zertzelada ugariz edo alferrikako osagaiez osatuak direla eta. Bestalde esperientzia horiek gauzatu dituztenek saiatu dira euren hastapenen antzekoak eman dezaten. Hau dela eta, oso gaizki azalduta aurkituko ditu ia denak, edo oso faltsuak izango dira, eta horregatik esperientzia horien artean baliozkoren bat balego ere, ez luke balioko bera aukeratzeko beharrezkoa litzatekeen denbora. Horrela, baldin bageneki munduan badela inor gauza izango dena aurkitzeko ahalik eta gauzarik handienak, eta jendearentzat ahalik eta gauzarik baliagarrienak, eta hori horrela izanik gainerako gizaki guztiek berari laguntzeko eginahala guztiak egingo balituzte ere, nire ustez hauek berari laguntzeko egin ahal izango luketen gauza bakarra zera izango litzateke: beharrezkoak izango litzatekeen esperientziak ordaindu, eta zaindu inork ez diezaion bere astia galarazi. Ez dut nik aparteko ezer agintzeko asmoa, ez bainaiz hain harroa, eta ez ditut nire baitan hain pentsamendu hutsalak jendea nire asmoez interesatu behar dela bururatzeko, baina, hala ere, ez naiz hain zitala izango inorengandik onartzeko merezigabekotzat jo daitekeen faborerik.

Hausnarketa hauek guztiak batera izan ziren, orain dela hiru urte, esku artean nuen idazlana argitaratu nahi ez izateko arrazoia, eta baita erabakitzeke ere ez nuela argitaratuko nire bizitzan zehar halako orokorra izango zen beste inolako lanik, ezta nire fisikaren oinarriak ulertzea bideratuko lukeenik ere. Baina, ondoren, bi arrazoi berrik behartu naute hemen saiakera berezi batzuk sartzera, jendeari nire ekintzen eta nire asmoen berri emateko. Lehena, hori egingo ez banu, zenbaitek (orain baino lehenago idazki batzuk inprimatzeko izan dudana asmoa ezagutu dutenek) irudikatu ahal izango luketelako ez argitaratzeko izan ditudan arrazoiak direna baino kaltegarriagoak direla. Izan ere, aintza gehiegi maite ez dudana arren, edo bera gorrotatzen dudala esatera ausartzen naizen arren (nik gauza guztien gaintik estimatzen dudana atsedenen kontra doala deritzodanez), ni ez naiz inoiz ibili nire ekintzak ezkutatzeko krimenak bailiran, eta ez dut ezezaguna izateko arreta larregirik ipini, bai pentsatuko nukeelako nire buruari kalte egingo niokeela, eta baita bilatzen nuen adimenaren atsedene osoaren kontrako izango litzatekeelako, nolabaiteko egonezina sortuko lidakeen neurrian. Eta ezaguna izateko edo ez izateko arretari dagokionez ezaxola nintzen artean, pentsatu nuen, ezin izan dudanez eragotzi nola edo halako ospea hartzea, nire ahalegin guztiak egin behar nituela gutxienez ospe txarra ez izateko. Hau idaztera behartu nauen beste arrazoia zera da: egunetik egunera nik ikasteko nuen gogo gero eta gehiago atzeratzen zela nekusala (ezin konta ahala esperientzia egin behar nuelako eta ezin nituelako burutu beste inoren laguntzarik gabe) eta ez nuela nire burua hain estimagarritzat jotzen itxarotela jendea nire intereseko gauzez arduratu behar dela, baina, hala ere, ez dudala nire burua hainbeste gutxietsi nahi, nire ondokoei aukera emateko egunen batean honakoa aurpegira diezadaten: alegia, utzitakoak baino askoz gauza gehiago utz niezaiekeela, jakinarazi izan banie eurek zertan lagun ziezaieketen nire nahiei.

Eta pentsatu nuen erraza izango zitzaidala gai batzuk aukeratzeko nahikoa garbi erakutsiko zutenak nik zientzietan zer egin dezakedan eta zer ez, gai horiek eztabaida

ugariren iturri izan gabe eta nire burua behartu gabe nire hastapenei buruz nahi dudana baino gehiago esatera. Ezin dut esan honetan arrakasta izan dudana ala ez, eta ez diet inoren irizpenei aurrea hartu nahi nik neuk nire idazkiei buruz hitz eginez, baina poza hartuko dut baten batek aztertzen baditu, eta hori egiteko aukera gehiago emateko eragozpenen bat aurkitzen dutenei erregutzen diet eurak nire liburu-saltzaileari bidaltzeko lana har dezatela, honela, berak niri jakinarazi ahala nire erantzuna ematen saiatuko naizelarik; eta honela irakurleek euren eragozpena eta nire erantzuna biak batera ikusiz egitari buruz errazago juzgatuko dute. Ez dut nik agintzen sekula erantzun luzeak emango ditudanik, baina bai, ostera, nire hutsak aitortuko ditudala bene-benetan eurentaz jabetzen banaiz, edo, bestela, ezin banaiz jabetu, esango dudala, besterik gabe, zer baldintza bete behar diren nik idatzi ditudan gauzak defendatzeko, gai berri baten azalpena gaineratu gabe eta nire burua ez nahasteko bukaerarik gabe gauza batekin eta besterekin.

Dioptrika eta Meteorokoak liburuen hasieran hitz egiten dudana gaiek harritzen badute, bai suposizio deitzen ditudalako eta baita ematen ez duelako nik eurak frogatzeko asmoa dudala, pazientzia eskatzen dut dena arretaz irakurtzeko, eta espero dut bertan asetasuna aurkituko dela. Izan ere, iruditzen zait arrazoiak bata besterekin lotuta daudela, azkenak lehenengoan bidez frogatzen direlarik, euren kausen bidez alegia, lehenak azkenen bidez, euren ondorioen bidez, frogatzen diren bezala. Eta ez da irudikatu behar nik hemen logikoek zirkulua deritzoten hutsa egiten dudanak; izan ere, esperientziak ondorio horietatik gehienak benetakoak egiten dituzenez, eurak ondorioztatzeko darabiltzadan kausak frogatu baino azaldu egiten ditu, eta, haatik, ondorioen bidez frogatzen direnak kausak dira. Eta suposizio deitu ditut jakin dadin nire ustez gai horiek lehenago azaldu ditudan egietatik ondoriozta daitezkeela, baina nik ez ditut ondorioztatu nahi izan ez diedalako aukerarik eman nahi adimen batzuei filosofia bitxi bat eraiki dezaten nire hastapentzat jotzen dituztenetan oinarriturik, errua gero niri botatzeko. Adimenok bizpahiru hitz entzun bezain laister uste dute egun batekin nahikoa daukatela jakiteko beste batek hogeitun urtean pentsatu duen guztia; eta, zenbait eta sarkorrak eta biziak diren adimen hauek orduan eta huts egiteko joera handiagoa izango dute eta egia aurkitzeko gaitasun txikiagoa. Zeren, guztiz nireak diren aburuei dagokienez, ez baititut gauza berritatz jotzen; izan ere, euren arrazoiak arretaz aztertzen badira, seguru nago oso bakuntzat eta sen onetik oso hurbilekotzat joko direla, eta horregatik gai berari buruz izan daitekeen beste edozein aburuk eurak baino apartekoagoa eta arraroagoa emango du. Eta ez naiz harrotzen nik horietako baten baten lehen asmatzailea naizelako, baizik eta onartu ditudalako nire arrazoimenak konbentzitu naudelako eta ez inork esan dituelako edo esan ez dituelako.

Artisauek ezin badute gauzatu Dioptrikan azaltzen den asmaketa, ez dut uste esan daitekeenik, horregatik, bera txarra dela. Izan ere, trebetasuna eta ohitura beharrezkoak dira nik deskribatu ditudan makinak oso osorik egiteko eta doitzeko, baina harrituko ninduke, dena dela, lehenengoan asmatuko balute, harrituko nindukeen legez baten batek ikasiko balu lautea bikain jotzen, egun bakar batean, partitura ona eman zaiolako. Eta frantsesez idazten badut, nire herriko hizkuntzan alegia, eta ez latinez, nire maisuenean, honako arrazoiagatik da: espero dudalako bakarrik euren arrazoi natural hutsaz baliatzen direnek hobeto juzgatuko dituztela nire aburuak, bakarrik antzinako liburuetan sinesten dutenek baino. Sen ona ikasketarekin elkartzen dutenei dagokienez, berriz (eta hauek nahi ditut nik nire epaile bakartzat), ez dut uste hain latinaren aldeko

izango direnik nire arrazoiak ulertzeari uko egiteko hizkuntza arruntean azaltzen ditudala eta.

Gainerakoan, ez dut hemen hitzik egin nahi etorkizunean zientzietan egitea espero dudan aurrerapenaz bereziki, ez eta ezer agindu jendeari betetzeko seguru egon gabe. Bakarrik esango dut erabaki dudala bizitzeko geratzen zaidan denbora naturaren ezagutza lortzen emango dudala eta ez beste ezertan, hortik medikuntzarako arau batzuk atera ahal izateko, gaur egun arte izan ditugunak baino seguruagoak izango direnak. Eta esango dut, halaber, nire joerak beste edozein nahitik urruntzen nauela, (bereziki baten batentzat baliagarriak izango direnetatik beste batentzat kaltegarriak direnean) eta hainbeste urrundu gainera, ezen zerbaitek beste zerbaitetaz arduratzera behartuko banindu ez nintzatekeen arrakasta izateko gai izango. Badakit egiten dudan adierazpenak ez didala lagunduko munduan garrantzitsua izaten, baina nik ez dut horrelakorik irrikatzen; eta esker hobeagoko izango naiz norbaitekin bere faboreari esker nire aisiaz gozatu ahal badut eragozpenik gabe, munduko lanik ohoragarrienak eskainiko dizkidanekin baino.

Meditazio Metafisikoak

GUTUNA

Parisko Teologia Fakultate Sakratuko Dekanoari eta Doktore Jaunei

Jaunok:

Lan hau zuei aurkeztera naraman arrazoia benetan zuzena delako, eta -behin lanaren asmoa ezagut dezazuenean- bera defendatzea zuzentzat hartuko duzuela seguru nagoelako, pentsatzen dut bera zuei gomendatzeko egin dezakedan gauzarik onena zera dela: hitz gutxitan adieraztea zein izan den berarekin bete nahi izan dudana helburua.

Beti uste izan dut Jainkoari eta arimari buruzko bi galderak filosofiaren arrazoi bideak, eta ez teologiaren bideak, frogatu behar diren gaien artean nagusienak zirela. Izan ere, guri fededunoi aski zaigu fedearekin Jainkoa badela sinesteko eta baita sinesteko ere giza arima ez dela hiltzen gorputzarekin batera; baina, hala ere, egia da ez duela ematen fedegabeak erakarri ahal izango ditugunik ez erlijiora, eta ezta inolako bertute moralera ere, aurretik ez badizkiegu frogatzen bi gaiok arrazoi naturalaren bidez. Eta bizitza honetan, oso sarritan, sari askoz handiagoak eskaintzen zaizkie bizioei bertuteei baino; hori dela eta jende gutxi hobetsiko luke zuzena dena baliagarria denaren aurretik, baldin eta Jainkoaren beldurrak edo beste bizitza baten itxaropenak geldiaraziko ez balitu. Eta guztiz egia da Jainkoa badela sinetsi beharrean gaudela, horrela irakasten delako idazki sakratuetan, eta, ostera ere, idazki sakratuak sinetsi behar direla Jainkoarengandik datozelako (eta hau honako arrazoiarengatik: fedea Jainkoaren dohaina bada, eta beraren bidez gainerako gauzak sinesteko grazia eskaintzen badigu, bera ere existitzen dela sinesteko dohaina emateko gai izango delako), baina hori horrela izan arren, ezingo genieke fedegabeen era horretako argudiorik eskaini, arrazonaketa zirkularra dela iritziko lioketelako¹.

Eta egiatan konturatu naiz zuek, teologo guztiekin batera, baieztatzen duzuela Liburu Sainduetatik ateratzen den gauza dela Jainkoaren existentzia arrazoi naturalaren bidez frogatu daitekeela, eta ez hori bakarrik, baizik eta bere ezagupena sortutako gauza askoren ezagupena baino askoz argiagoa dela ere, eta hori bereganatu ez dutenak errudunak direla, benetan erraza baita horretaz guztiaz jabetzea. Hau horrela agertzen da Salomonen Jakituriaren liburuko 13. ataleko ondoko hitzotan: hala ere, eurei ez zaie barkatu behar; zeren munduko gauzen ezagutzan hainbeste aurreratu badute, nola liteke ez dezaten errazago aurkitu Jaungoikoa? Eta Erromatarrei-ko lehen atalean direla esaten da; eta hortxe bertan ere ondoko hitzokin: Jainkoaz ezagutzen dena nabaritzen da horiengan, ematen du adierazten zaigula Jainkoari buruz jakin daitekeen guztia erakuts daitekeela gure baitatik kanpo bilatu beharra ez dauden arrazoi bidez, eta bakarrik gure adimenak eskaini ahal izango dizkigula arrazoi horiek. Honegatik

¹ Frantsesez: .

guztiagatik pentsatu dut ez dela zentzugabea izango ikusaraz dezadan hemen nola egin daitekeen hori, eta zer bideri jarraitu behar gatzazkion Jainkoaren ezagupenera hel gaitezen mundu honetako gauzez dugun ezagupenera baino erraztasun eta segurtasun handiagoz.

Eta arimari dagokionez, askok iritzi diote ez dela erraza beraren natura ezagutzea, eta batzuk, gainera, ausartu dira esaten badirela giza arrazoiak pentsarazten digutenak bera gorputzarekin batera hiltzen dela, eta bakarrik fedea irakasten digula aurkakoa; baina hori guztia horrela izan arren, Lateranoko kontzilioak, Leon X.aren agindupean burutu zenak, 8. saioan, horiek kondenatu ditu, eta filosofo kristauei espreski agindu die haien argudioei erantzun diezaien, eta euren indar guztiak erabil ditzaten egia ezagutarazteko, eta honegatik guztiagatik idazki honetan lan horri ekiteko ausardia hartu dut.

Are gehiago, badakit fedegabe askok Jainkoa badela, eta giza arima gorputzaz ezberdina dela, sinetsi nahi ez izateko duten arrazoi nagusiena zera dela: adierazten dute egun arte inork ezin izan duela frogatu bi gauza horietatik bata ere. Hala ere, ni ez naiz iritzi berekoa, eta, ostera, pentsatzen dut arazo bioi buruz zenbait gizon handik eskaini dituzten arrazoi gehientsuenak, ondo ulertuz gero, beste horrenbeste frogapen direla, eta ia ezinezkoa dela berriak asmatzea, baina hori guztia horrela izan arren uste dut ezin dela filosofian egin gauza baliagarriagorik zera baino: arrazoi onenak eta sendoenak jakinminez eta arretaz bilatu behingoan, eta eurak orden argi eta zehatzean taxutu aurrerantzean mundu guztiarentzat agerikoa izan dadin arte haiek benetako frogapenak direla. Eta, azkenik, zenbait pertsonen nik lan hori har dezadan nahi izan dutenez, pentsatu dut nire eginbeharra dela gai honetan ahalegin bat egitea, pertsona horiek badakite jakin zientziaren era guztietako arazoei irtenbidea emateko metodo bat landu dudala, benetan berria ez dena, ez baitago ezer egia baino zaharragorik, eta badakite beste gai batzuetan arrakastaz erabili dudala bera.

Dena dela eginahala guztiak egin ditut horri buruz esan ahal den guztia tratatu honetan biltzeko. Horrek ez du esan nahi gure gaiaren aldeko frogak bezala argudia daitezkeen arrazoi ezberdin guztiak jaso ditudanik, izan ere, ez dut inoiz pentsatu hori beharrezko izango zenik ezertarako (ziurra den arrazoi bakarra ere ez dagoen kasuetan izan ezik), haatik, bakarrik lehenak eta nagusienak aztertu ditut, eurak oso frogapen nabarmen eta ziur modura proposatzen ausartu naizelarik. Eta frogapen horien izaera kontutan izanik esango nuke, gainera, ez dudala uste inongo modurik egongo denik giza gogoak frogapen horiek baino hobek aurkitu ahal izan ditzan. Izan ere, auziaren garrantziak eta Jainkoaren distirak (berari baitagokio hau guztia) niri buruz ohi dudana baino askatasun handiagoz hitz egitera behartzen nau. Hala ere, nire arrazoietan aurki dezakedan ziurtasuna eta ebidentzia handia nahiz txikia izan, ezin dut nire burua konbentzitu mundu guztia eurak ulertzeko gauza izango denaz. Badira geometriar arrazoi batzuk, Arkimedeseak, Apoloniok, Pappusek eta beste zenbaitek eskainitakoak, mundu guztiak oso ziurtzat eta oso ebidentzetat hartzen dituenak, (arrazoi horietan, berez kontsideratzen badira, ez dagoelako ezer ulertzeko oso erraza izango ez dena, eta ez dagoelako arrazoi horien artean ondorioz aurrekoekin guztiz bat ez datorrena) baina, hala ere, luze samarrak direnez eta arreta handia jarriko duen irakurlea eskatzen dutenez, oso pertsona gutxi hartzen ditu kontutan eta ulertzen ditu. Era berean, nik uste dut hemen erabiltzen ditudan arrazoiaren ziurtasuna eta nabarmentasuna geometriaren frogapenen parekoa edo handiagoa dela, baina jabetzen naiz, hala ere, jende askok ezingo dituela ulertu behar den moduan, bai eurak ere luze samarrak eta

bata bestearen menpeko direlako, eta baita, nagusiki, eskatzen dutelako aurreiritzi guztietatik guztiz libre egongo den adimena², eta sentimenen kontuetatik erraz alden daitekeena ere; eta, egia esan, espekulazio metafisikoetarako gai den jendearen kopurua geometrikoetarako gai den jendearena baino txikiagoa da. Eta hona hemen beste ezberdintasun bat ere: mundu guztiak aurrez onartzen duen iritzia da geometrian ez dela ezer adierazten frogapen segurua ez duena, hori dela eta gaian oso jantziak ez direnek, sarritan, huts handiagoak egiten dituzte frogapen faltsuak onestean, ulertzen dituztenaren itxura emateagatik, egiazkoak errefusatzean baino. Ezberdina gertatzen da filosofian, honetan denek bere proposizio guztiak eztabaidagarriak direla pentsatzen dutenez, inor gutxik bilatzen du egia, eta askok, gainera, gogo azkarra dutenaren ospea hartu nahian egia nabarmenenei kontra egiten saiatzen dira harro-harro.

Honegatik guztiagatik, jaunok, nire arrazoiak filosofiaren arlokoak direnez, ez dut uste eragin handikoak izango direnik zuek ez badituzue zuen babespean hartzen, berdin delarik eurek izan dezaketen indarra. Baina mundu guztiak zuen fakultateari ematen dion estima benetan handia da, eta Sorbonaren izena benetako autoritatzat hartua da, eta hori dela eta, Kontzilio sakratuen ondotik, ez zaio eskaini beste inori erakunde horren irizpenei ematen zaien begiramendua, bai fede kontuetan, bai giza filosofiarenean ere; irizpena emateko orduan denek uste baitute ezin daitekeela aurkitu beste inon hor baino sendotasun eta ezagutza handiagorik, ezta zuhurtzia eta osotasun handiagorik ere. Ez dut zalantzarik egiten, beraz, berehala ezabatuko direla gizakien gogotik inoiz arazo bioi buruz egon diren erruak eta iritzi faltsuak zuek idazki honi arreta jartzeko adeitasuna baduzue, lehenik bera zuzenduz (nire ahulezia eta nire ezjakintasuna ezagututa ez nintzateke eta ausartuko baieztatzera errurik ez duenik), ondoren falta dituen gauzak gaineratuz, guztiz burutu gabe³ daudenak osatuz, eta premiazkoa denean azalpen zabalagoa emateko lana hartuz, edo gutxienez niri jakinaraziz nik lan dezadan, eta, azkenik, nire arrazoi berdinak aldarrikatuz eta eurak jendaurrean aditzera emanaz, baldin eta Jainkoa badela eta giza arima eta gorputza bereizten direla frogatzeko erabiltzen ditudan arrazoiaren garapenaren argitasun eta nabarmentasunagatik frogapen zehatzat hartu behar badira. Egiak behartuko baititu jakintsuak eta jende burutsua zuen iritzia onestera, eta zuen autoritateak behartuko baititu jainkogabeak, (gehienetan jakintsu eta zentzudun baino harroagoak izan ohi direnak) kontraesanetarako duten joerari uko egitera; edo, beharbada, eurek ere buruarekin jokatzen duten pertsona guztiek frogapentzat jotzen dituzten arrazoiak eutsiko diete, ulertzen ez dituztela eman ez dezan. Eta, azkenik, beste guztiek hainbesteko nabarmentasunen aurrean amore emango dute, eta ez da inor egongo Jainkoaren existentziaz zalantza egiten ausartuko dena, eta ezta arima eta gorputzaren arteko benetako eta egiazko bereizketaz ere.

Zuei dagokizue sinesmen hau ondo funtsatuta egonez gero, bertatik etorriko litzatekeen fruituaz iriztea, zuek ikusten baituzue ondo berari buruzko zalantzak sorrarazten duen

² Frantsesez *divino* eta latinez *divinus*. Frantsesezko testuan *divinus* hitza latinezko *divinus* -en lekuan, edo enean dator eta beste zenbaitetan horren pareko zehatza ez dagoenean. -en parekoa denean -ekin itzuli dut eta itzultzen zuenean edo erabili dut eta latinez parekorik ez bazeukan eta beharrezkoa ez bazen, erakuslearekin edo artikuluaekin konformatu naiz.

³ Frantsesez *complet* jartzen duen arren latinez *completus* dio. Badirudi, beraz, perfekzioaz hitz egin baino osatua izateaz edo ez izateaz hitz egitea zuzenagoa dela.

nahasmena⁴. Alabaina, ez da egokia Jainkoaren eta Erljioaren kausari buruz nik zuei aholku gehiago ematea, zuek baitzarete beti euren zutaberik sendoenak.

IRAKURLEARI HITZAURREA

Jainkoari eta giza arimari buruzko galdera biok ukitu ditut jadanik gaineratik 1637. urtean, Norberaren arrazoia ondo zuzentzeko eta zientzietan egia aurkitzeko Metodoari buruzko Diskurtsoan, frantsesez argitaratu zena. Bertan nire asmoa galdera horiek piska bat zeharka edo aztertzea zen, ez sakonki; horren harian sortuko lirakeen iritziak kontutan hartuta jakingo nuke eta nola landu beharko nituzkeen eurak geroago. Arazo horiek hain garrantzitsuak iruditu zaizkit beti, ezen nire iritzia zen behin baino gehiagotan hitz egin beharko nukeela eurei buruz. Eta eurak argitzeko neuk darabildan bidea hain gutxitan dago urratua, eta hainbesteraino urruntzen da ohiko bidetik, ezen ez zitzaidan iruditu oso baliotsua frantsesez azaltzea (mundu guztiarentzat irakurgarria izango litzatekeen jardun batean, alegia) beldur nintzelako buru gutxikoek ez ote zuten pentsatuko hau eurek ere saia zezaketen bidea zela.

Alabaina, Metodoari buruzko Diskurtso horretan erregutzen nion zerbait maiseagarria aurkituko zukeen guztiari niri jakinarazteko mesedea egin ziezadan, eta, hala ere, bi galdera hauei buruz bi puntu nabarmengarritan besterik ez dizkidate eragozpenak jarri, eta hauei hitz gutxitan ihardetsi nahi diet azalpen zehatzagoetan hasi aurretik.

Lehen eragozpena honako hau da: giza gogoak, bere buruaz gogoeta egiten duenean, atzematen duen gauza bakarra baldin bada bera pentsatzen duen zerbait dela, hortik ez dela ateratzen bere natura edo zerizana pentsatzea besterik ez dela; eta besterik ez horrekin arimaren ezaugarritzat ere jo zitezkeen gainerako gauza guztiak baztertzen dira.

Nik eragozpen honi erantzungo diot esanaz leku hartan nire asmoa zela beste ezaugarri horiek baztertzea nire hautemaketaren⁵ ordenaren ikuspegitik eta ez gauza beraren egiaren ikuspegitik (ez baitzen hori nire gaia orduan); eta honekin esan nahi nuen nik nekienaren arabera ezagutzen nuen gauza bakarra zela nire zerizanari zegokiola pentsatzen duen zerbait izatea -edo bere baitan pentsatzeko ahalmena duen zerbait-. Baina, halaber, ondoren erakutsiko dut nire zerizanari dagokion besterik ezer ezagutzen ez dudanez, hortik ateratzen dela ez dela benetan berari dagokion inolako beste gauzarik.

Eta bigarren eragozpena zera da: ni baino perfektuagoa den zerbait badela nire baitan dudana ideia izan arren, hortik ez dela ateratzen ideia hori ni baino perfektuagoa denik, eta, are gutxiago oraindik, ideia horrek adierazten duena existitzen denik.

Baina hemen erantzungo dut nahasketa ideia hitzean datzala; zeren bera har daiteke edo materialki, nire adimenaren eragiketa bezala, eta zentzu honetan ezin esango

⁴ elle était une fois bien établie, qui voyez les désordres que son doute produit, frantsesezko bertsiotan gaineratua.

⁵ Latinezko testuan dio, frantsesez dioen artean.

genuke ni neu baino perfektuagoa denik, edo objektiboki, eragiketa horrekin adierazten den gaia bezala, eta gai hau bere zerizanagatik ni baino perfektuagoa izan daiteke, kontutan izan gabe nire adimenetik at existitzen den ala ez. Hala ere, tratatu honetan zehar erakutsiko dut nabarmentasun handiagoz nire baitan ni baino perfektuagoa den zerbait badela dudan ideia hutsetik, ateratzen dela gauza hori benetan existitzen dela.

Beste bi idazki nahikoa zabalak ikusi ditut, gainera, gai honi buruz, nire arrazoiaren aurka baino nire ondorioaren aurka egiten zutenak, euren argudioak jainkogabeen ohiko iturrietatik hartzen zituztelarik. Baina ez dut nik hemen horiei erantzuteko asmorik, hori egin aurretik argudio horiek azaldu beharko nituzkeen beldur naiz eta; izan ere, mota hauetako argudioek ezin hunkitu dituzte inolaz ere nire arrazoiak ondo ulertu dituztenen gogoak. Gainera, jende askoren irizpenak hain ahulak eta ergelak dira, ezen sarritan askoz errazago konbentzitzen diren zerbaiti buruz jasotzen duten lehen iritziekin, hauek oso faltsuak eta arrazoimenetik oso urrunduak izan arren, geroago iritzi horien errefusapen sendo eta egiazkoekin baino, nahiz eta hauek gero ondo ulertu.

Oro har, esango dudan gauza bakarra da jainkogabeek Jainkoaren existentzia errefusatzeko diotena bi gauzatan datzala: edo guk Jainkoari giza eraspenak izendatzean, edo Jainkoak egin dezakeena eta egin behar duena zehaztu eta ulertu nahi izateko gure gogoan (gure adimenari izendatzen diogun indarra eta jakituria hain handizat jotzen baitugu). Era honetara eurek dioten guztiak ez digu inolako arazorik sortuko, baldin eta gogoratzen badugu gure adimena zerbait amaikortzat eta mugatutzat hartu behar dugula, eta Jainkoa izaki amaigabe eta ulertezintzat. Orain, behin gizonen iritzia nahikoa jorratuta, berriro ekingo diot Jainkoari eta giza arimari buruzko galderen azterketari, eta, era batera, lehen filosofiaren osotasunaren azterketari ere, baina jende arruntaren lausenguen zain egon gabe eta nire liburuak irakurle asko izango duenik itxaron gabe ere. Haatik, ez nioke sekula inori bera irakurtzeko aholkatuko, nirekin gogoeta seriotasunez egin nahi duten horiei izan ezik, hauek euren adimena sentimenen kontuetatik aldendu ahal izango baitute eta era guztietako aurreiritzietatik guztiz libratu ahal izango baitira. Eta jakin badakit hauek oso gutxi direla. Baina ez dute tratatu honen irakurketatik probetxu handirik aterako nire arrazoiaren ordena eta lotura ulertzeaz asko arduratu gabe bere edozein zati bereiziri buruz argudiatzen saiatzen direnek (askok egiten duten legez). Beharbada han eta hemen hausnarkerietarako aukera aurkituko duten arren, nekez jarri ahal izango dute eragozpenen bat erantzutera premiatuko nauena, edo merezi duena.

Eta inori agintzen ez diodan bezala bat-batean gauza guztietan asetasuna emango diodanik, eta nahikoa harroa ez naizenez pentsatzeko bakoitzak aurki ditzakeen zailtasun guztiak aurreikusitako ahal izango ditudala, gogoeta hauetan lehenik azalduko ditut ni neu egiaren ezagutza ziur eta ebidentera iritzi naizela konbentzitu nauten pentsamenduak; eta ikusiko dut horrela ea konbentzitu ditzakedan besteak ni neu konbentzitu nauten arrazoi horiexekin. Honen ondoren zenbait pertsona adimentsu eta doktrinaren jakintsuengandik jasotako eragozpenei erantzungo diet, (neuk igorri dizkiet eta nire Gogoetak prentsarako bidean jarri aurretik eurek azter ditzaten); zeren hain ugariak eta hain ezberdinak baitira bidali dizkidaten eragozpenak, ezen ausartzen naizen itxaroten ez dela inorentzat erraza izango hemen aztertu ez den eragozpenik aurkeztea, ganorakorik behintzat. Arrazoi honegatik erregutzen diot Gogoeta hauek irakurri nahi dituenari, ez dezan inolako irizpenik bururatu eragozpen horiek guztiak, eta nire ihardespenak, irakurtzeko lana hartu aurretik.

ONDOKO SEI MEDITAZIOEN LABURPENA

Lehenengoan gauza guztiez, eta bereziki materialez, zalantza egiteko izan ditzakegun arrazoiak aurkeztu ditut, gutxienez zientzien oinarriak orain artean izan ditugunak baino ez diren artean. Alabaina, halako zalantza orokor baten baliagarritasuna ez da berehala egiten begi-bistakoa, baina oso balio handikoa da era guztietako aurreiritzietatik libratzen gaituelako eta oso bide erraza zabaltzen digulako gure gogoa sentimenetatik askatzera ohi dadin eta, azkenik, geroago zerbait egia dela aurkitzen badugu ezinezkoa bihurtzen duelako inolako zalantzarik egitea horri buruz.

Bigarrenean, adimenak aitortzen du erabat ezinezkoa dela bera ez existitzea, eta aldi berean, zerbaitek bere existentziaz zalantza egiteko motiborik txikiena eskaintzen badu, orduan suposatzen du, bere askatasuna erabiliz, gauza hori ez dela existitzen. Eta hau ere oso baliagarritasun handikoa da, honela erraz bereiz baititzake zein gauza dagozkion berari -hau da, beraren natura intelektualari- eta zein gorputzari. Baina batzuek espero dezaketenez nik leku horretan arimaren hilezkortasuna frogatzeko arrazoiak azaltzea, jakinarazi behar diet saiatu naizela tratatu honetan ez idazten ezer modu oso zehatzean frogatzerik ez neukana; eta horregatik geometrialariek darabilten ordenaren antzekoa erabiltzera behartua aurkitu dudala nire burua, hau da, inolako ondoriotara heldu baino lehen bilatzen den proposizioaren aurreko guztiak adieraztera.

Alabaina, arimaren hilezkortasuna ezagutzeko galdatzen den lehen baldintza zera da: berari buruz ahalik eta ikusmolderik garbiena bururatu behar dela, gorputzari buruz izan ditzakegun ikusmolde guztiez ezberdina, eta hori da, hain zuzen, bigarren Meditazio honetan egin dena. Halaber eskatzen da guk jakin dezagun egia dela argi eta bereizirik bururatzen dugun guztia, guk bururatzen dugun modu horretantxe, eta hau ezin egin izan da laugarren Meditazioaren aurretik. Gainera gorputzaren naturari buruz beste ikusmolde ezberdin bat izan behar da, eta ikusmolde hori zati batean bigarren Meditazioan eta beste zati batean bosgarrenean eta seigarrenean taxutzen da. Eta azkenik, honetatik guztitik zera ondorioztatu behar da: modu argi eta bereizian substantzia ezberdin bezala bururatzen diren gauza guztiak, adimena eta gorputza bururatzen diren bezala, benetan substantzia ezberdinak direla elkarrekiko, eta hau da seigarren Meditazioan ondorioztatzen dena. Eta gauza hauze bera baieztatzen da bigarren Meditazio honetan bertan, ezin baitugu inolako gorputzik bururatu zatigarria ez dena eta, era berean, ezin dugu adimena bururatu zatiezina ez bada: izan ere, ezin dugu bururatu inolako adimenen erdia, gorputzik txikienaren erdia bururagarria zaigun artean; era honetara onartu behar dugu gorputzaren eta adimenaren naturak ez bakarrik ezberdinak direla, baizik eta neurri batean kontrakoak ere badirela. Alabaina, ez naiz nire lan honetan horri buruz jardun gehiago egiten saiatuko ondoko arrazoi hauengatik: alde batetik, esandakoarekin nahikoa argiro erakusten delako gorputzaren ustelketari ez darraiola arimaren heriotza, eta gizakiei heriotza ondoko bizitza baten itxaropena ematen zaielako; eta, bestetik, giza arimaren hilezkortasuna ondorioztatzea zilegiko diguten aurrekoak fisikaren osotasunaren azalpenaren menpeko direlako. Azalpen honen bidez jakingo dugu, lehenik, substantzia guztiak (hau da, Jainkoak sortu ez baditu ezin existitu diren gauza guztiak) berez ustelezinak direla, eta ezin utzi diotela

sekula existitzeari, baldin eta Jainkoak berak deuseztatzen ez baditu beraren ohiko partehartzea ukatuz. Eta bigarrenik, nabarmenduko dugu gorputza, orokorki hartuta kontutan, substantzia dela, eta horregatik ezin dela hil, baina giza gorputza, beste gorputzetatik bereizten den neurrian, atalen konfigurazio batez taxutzen dela (eta antzerako beste akzidente batzuez); eta giza arima, ostera, ez dela akzidentez osatzen, substantzia hutsa dela. Zeren arimaren akzidente guztiak aldatzen badira ere (adibidez, gauza batzuk bururatzean, beste batzuk nahi izatean, beste batzuk sentitzean, eta abar) arimak, hala ere, beti arima bera dirau; giza gorputzak, berriz, ez du gorputz bera iraungo bere ataletatik figura bakarria aldatzen bada. Hortik aterako da giza gorputza erraz hil daitekeela, baina adimena⁶ berez hilezkorra dela.

Hirugarren Meditazioan uste dut nahikoa luzatu naizela Jainkoaren existentzia frogatzeko darabildan argudioa azaltzen. Hala ere, irakurlearen arima era errazagoan urrundu ahal izateko sentimenetatik ez dut hor erabili nahi izan gorputzezko gauzetatik ateratako batere parekaketarik. Baliteke iluntasun ugari geratu izana bertan, baina, hala ere, espero dut hauek erabat argituko direla geroago jarri dizkidaten eragozpenei eman dizkidan erantzunetan. Adibidez, nahikoa zaila da ulertzeko gure baitan aurkitzen den izaki soberano eta perfektuaren ideiak zergatik etorri behar duen kausa soberano eta perfektu batetik, berak izan dezakeen errealitate objektiboa dela eta⁷. Erantzun horietan arazo hau argitu dut makina oso perfektu batekin parekatuz, makina horren ideia edozein langileren buruan aurki daitekeelarik; ideia horren gauzaketa objektiboak kausa bat izan behar duen legez (hots, langilearen zientzia, edo langileari zientzia hori irakatsi dion beste edozeinen zientzia), era berean, ezinezkoa da gure baitan dagoen Jainkoaren ideiak ez dezan izan bere burua bere zergati bezala.

Laugarrenean oso argi eta oso bereizirik bururatzen ditugun gauzak beti egia direla frogatu da; eta horrekin batera faltsutasunaren arrazoia zertan datzan ere azaldu da, hau jakitea beharrezkoa baita, bai aurreko egiak baieztatzeke, bai ondoren etorriko direnak hobeto ulertzeko. Baina oharrarazi behar da, hala ere, ez naizela leku horretan inolaz ere bekatuari buruz ari, hau da, ongiaren eta gaizkiaren atzetik dihardugunean egiten dugun erruari buruz, baizik eta irizmenean eta egiaren eta faltsuaren arteko bereizketan sortzen den erruari buruz besterik ez. Eta ez da nire asmoa fedeari dagozkion gauzei buruz hitz egitea, ezta bizitzako jokaerez ere, egia espekulatiboekin zerikusia duten gauzez baino, bakarrik naturaren argiaren bidez ezagutu daitezkeenak.

Bosgarren Meditazioan gorputzaren natura azaldu da oro har, eta horretaz gain Jainkoaren existentzia arrazoi berri baten bidez azaldu da, arrazoi horretan zailtasun batzuk aurkitu ahal izango direlarik, baina hauek argituko dira Eragozpenei Erantzunetan; gainera erakutsi dut zer zentzutan den egia frogapen geometrikoen ziurtasuna Jainkoaren ezagupenaren menpeko dela.

Seigarrenean, azkenik, adimenaren eginkizuna eta irudimenaren eginkizuna bereizi ditut, horien arteko bereizketaren zantzuak zehaztuz. Bertan erakutsi dut giza arima eta gorputza benetan ezberdinak direla, eta, hala ere, estuki lotuta eta batuta daudela biak, elkarren artean gauza bakar bat eratzen dutelarik. Sentimenetatik datozen erru guztiak azaltzen dira ere, eurak saihesteko moduekin batera. Eta azkenik gaineratzen dira gauza materialen existentzia frogatzeko behar diren arrazoi guztiak. Eta nire ustez, arrazoi

⁶ Frantsesez zera gaineratzen du: ou l'âme de l'homme (ce que je ne distingue point).

⁷ Frantsesez zera gaineratzen du: c'est-à-dire participe par représentation à tant de degrés d'être et de perfection.

hauen balioa ez datza frogatzen dutena frogatzean (hau da, mundua badela, gizakiek gorputza dutela, eta antzerako beste zenbait gauza frogatzean, zentzuzko inork zalantzatan jarri ez duena), baizik eta hurbiletik hartzen baditugu kontutan, jabetzen garelako ez direla Jainkoaren eta gure arimaren ezagutzara garamatzaten arrazoiak bezain irmoak eta nabarmenak; beraz, azken hauek izango dira giza gogoaren ezagupenean bil daitezkeen arrazoirik egiazkoenak eta nabarmenenak. Eta hau da nire sei Meditazio hauetan frogatu nahi izan dudan guztia, honegatik ez ditut laburpen honetan aipatu tratatu honetan tarteka ukitu ditudan beste gai batzuk.

LEHEN FILOSOFIARI

BURUZKO MEDITAZIO

METAFISIKOAK

Non Jainkoaren existentzia eta gizakiaren arimaren eta gorputzaren arteko benetako bereizketa frogatzen diren⁸

LEHEN MEDITAZIOA

Zalantzatan jar daitezkeen gauzei buruz

Urte batzuk direla konturatu nintzen gazte-gaztetatik egiazkotzat hartuta nituen zenbait iritzi faltsuak zirela, eta konturatu nintzen, halaber, geroago halako sendotasun urriko hastapenen gainean eraiki nuena oso zalantzarria eta ziurgabea baino ezin zitekeela izan. Hontara, zientzietan zerbait sendoa eta iraunkorra finkatu nahi banuen, beharrezkoa nuen iritzi horietaz⁹ libratzeko ahaleginari seriotasunez ekitea behingoan, eta dena berriro eraikitzea oinarri-oinarrietatik hasita. Baina eginbehar hau oso handia iruditu zitzaidanez, itxaron egin dut, adinarekin lan hori betetzeko heldutasun ezin egokiagoa lortu arte (hau da, geroago etorriko litzatekeen beste edozein baino egokiagoa izango litzatekeen adinera heldu arte). Hau dela eta, gehiegi geroratu dut nire eginbehar hori eta nire iritzi huts egingo nuke lanerako geratzen zaidan denbora aurrerantzean ere erabakia hartzeko erabiliko banu.

Orain, beraz, bakardade baketsu honetan nire adimena kezka guztiez libre dudanez eta lasaitasun segurua lortu dudanez azkenean, nire lehenagoko iritzi guztiak deusezteari ekingo diot seriotasunez eta askatasunez. Alabaina, helburu hori betetzeko ez da

⁸ Lehen argitarapenak laburpenaren ondoren, izenburu luze honen ordean, jartzen zuen (Adam, Charles eta Tannery, Paulen argitarapena)

⁹ Frantsesez zera gaineratzen du: les opinions que j'avais reçues jusques alors en ma créance.

beharrezkoa izango iritzi horiek guztiak faltsuak direla frogatzea, beharbada ez nuke hori sekula lortuko gainera. Baina arrazoimenak dagoeneko konbentzitu nau neurri berdinean baztertu behar ditudala nire sinesmenetatik, bai erabat ziurrak eta zalantzarik gabekoak ez diren gauzak, bai nabarmenki faltsuak agertzen direnak; arrazoi honegatik nahikoa izango da nire iritzi bakoitzean zalantzarako motibo bakarra aurkitzea guztiak errefusatzeko. Eta honetarako ez da beharrezkoa nik guztiak banan-banan azter ditzadan, amaigabeko lana bailitzateke bera. Haatik, oinarrien hondamenak nahitaez eraikuntza osoaren hondamena dakarrenez, lehenik nire lehenagoko iritzien zutabe ziren hastapenei erasoko diet.

Orain arte egiazkoentzat eta seguruentzat hartu dudan guztia sentipenetatik ala sentipenen bidez ikasi dut. Alabaina batzuetan konturatu naiz sentipen horiek engainakorrak direla, eta zuhur jokatzeko ez zaie sekula konfiantza osorik eman behar behin engainatu gaituztenei.

Hala ere, hautemateko zailak diren eta urrun dauden gauzei dagokienez sentipenek batzuetan engainatzen gaituzten arren, agian sentipenen bidez ezagutzen ditugun beste gauza askori buruz zalantza egitea ez da arrazoizkoa izango (adibidez, ni hemen nagoela, sutondoan eserita, txabusina jantzita, eskuetan paper hau daukadala, eta era honetako beste zenbait gauza). Nola ukatuko nuke, gainera, esku hauek eta gorputz hau nireak direla, ez badut nire burua zentzugabeko pertsonen parean ipintzen? Hori eginez gero nire burua parekatuko nuke oso behartsuak diren artean behin eta berriro erregeak direla diotenekin -burmuina malenkoniaren lurrin beltzaz aztoratuta eta nahastuta dutelako-; erabat biluzik dauden artean urrez eta purpuraz jantzita daudela diotenekin; edo burua buztinezkoa dutela, edo kalabazak direla oso-osorik edo kristalezkoak direla irudikatzen dutenekin. Baina hauek eroak besterik ez dira, eta ni eurak bezain eroa izango nintzateke euren ereduari jarraituko banintzaio.

Hau dena oso zentzuzkoa da, baina kontutan izan behar dut ni gizakia naizela, eta lo egiteko ohitura dudala, eta nire ametsetan zentzugabe horiek iratzarrita daudenean bururatzen dituzten gauza horiexek bururatzen ditudala, eta sinesgaitzagoak ere batzuetan. Zenbaitetan ez ote dut nik amets egin gauez hemen nengoela, txabusina jantzita eta sutondoan eserita, benetan nire ohean etzanda eta erabat biluzik nengoen artean! Orain iruditzen zait paper honi begiak esna begiratzen diodala, mugitzen dudan buru hau ez dagoela erdi lotan, esku hau nahita eta helburu jakin batekin luzatzen dudala eta sentitzen dudala; eta egia esan ametsetan gertatzen dena ez da hau guztia bezain modu argi eta berezian agertzen. Baina arretaz pentsatuz gogora datorkit sarritan, lotan nagoela, horrelako irudipenek nahastu izan nautela. Eta honi buruz pentsatzean zerak harritzen nau: iratzarrita egotearen eta lotan egotearen artean argi eta garbi bereizteko seinale ziurrik ez dagoela ikusteak. Eta nire harridura hau hain da handia, ezen ia konbentzi nazakeen ere orain lotan nagoela.

Demagun orain, beraz, lotan gaudela eta zehaztasun horiek guztiak (hots: begiak irekitzen ditugula, burua mugitzen dugula, eskuak luzatzen ditugula) irudipen faltsuak besterik ez direla, eta pentsa dezagun gure eskuak eta gure gorputz osoa ez direla guk ikusten ditugun bezalakoak. Hala ere, gutxienez onartu beharko dugu ametsetan irudikatzen ditugun gauzak margotutako irudiak bezalakoak direla, benetako gauzak antzeratuz bakarrik eratzen direla, eta, hortaz, begiak, burua, eskuak eta gorputz osoa, eta era horretako gauza orokorrak, behintzat, ez direla irudimenezkoak, baizik eta benetan existitzen direla. Izan ere, pintoreek sirenak eta satiroak irudikatzeke ahalegina

dagitenean, itxura xelebreez eta ezohikoez baliatuz, ezin dizkiete atxiki itxura eta natura erabat berriak, eta animalia ezberdinen gorputzadarren nolabaiteko nahasketa eratzen dute, besterik ez. Edo, halabeharrez, asmatuko balute zerbait berri-berria, inork antzerakorik ikusi ez duena, erabat irudimenezkoa eta faltsua izango litzatekeena, hala ere, irudi horrek benetako koloreez osatuta egon beharko luke gutxienez.

Eta arrazoi berarengatik¹⁰ begiak, burua, eskuak eta antzerako gauza orokorrak irudimenezkoak izan daitezkeen arren, onartu behar da badirela unibertsoan gauza bakunagoak eta unibertsalagoak, benetan existitzen direnak; eta hauen nahasketatik (benetako koloreen nahasketatik bezalaxe) eratzen dira gure pentsamenduan dauden gauzen irudiak, egiazkoak nahiz gezurrezkoak.

Mota honetakoa da gorputzaren natura oro har, bere hedadura, gauza hedatuaren irudia, euren neurria edo handitasuna, euren kopurua, dauden lekua, euren iraupena neurtzen duen denbora eta antzerakoak.

Horregatik, beharbada, ez da ondorio okerra izango esaten badugu fisika, astronomia, eta gauza konposatuez diharduten gainerako zientziak oso zalantzarriak eta ziurtasun txikikoak direla; baina aritmetika, geometria, eta era hauetako gainerako zientziek -oso gauza bakunez eta orokorrean dihardutenak, ia kontutan izan gabe gauza horiek naturan existitzen diren ala ez-, badute ziurra eta zalantzarik gabekoa den zerbait. Zeren iratzarrita egon edo lotan egon bi gehi hiru beti bost izango baita, eta karratuak ez du sekula lau alde baino gehiago izango. Eta ez zait iruditzen halako egia nabarmenez inolako faltsutasunik¹¹ susma daitekeenik.

Alabaina, aspalditik dut nire gogoan honako iritzia: badela Jainko bat ahalguztiduna dena, eta naizen modukoa sortu nauena. Baina demagun Jainkoak gauza horiek guztiak ez dituela egin (hau da, ez duela egin ez lurrik, ez zerurik, ez gorputzik, ez hedaturarik, ez irudirik, ez handitasunik eta ezta lekurik ere), nola jakin dezaket, orduan, hori guztia existitzen ez ote den¹² uste badut gauzak orain ikusten ditudan bezalakoxeak direla? Nire iritzian besteak batzuetan oker daude euren ustez ziurtasun osoz dakiten gauzetan ere; hori kontutan izanda ez ote naiz ni ere engainatuta egongo, horiek bezala, bi eta hiru batzen ditudan bakoitzean, edo karratuaren aldeak zenbatzen ditudanean, edo gauza errazagoak egiten ditudanean, hau baino zerbait errazagorik bururatu ahal bada? Baina Jainkoa ontasun gorena omen denez, baliteke ez izatea bere nahia ni gauza horietan guztietan oker egotea. Hala ere, ezin badira bat etorri Jainkoaren ontasuna eta ni beti oker egon beharra -ni hau berak sortutako izakia izanik-, ezin dira bat etorri, halaber, bere ontasun hori eta ni noizbait oker egon beharra; eta azken hau Jainkoak onartu egin du inoiz, ez da honetaz zalantzarik.

Baina baten batzuek, agian, nahiago dezakete halako Jainko boteretsu baten existentzia ukatu, gainerako gauza guztiak gezurrak direla sinetsi baino lehenago. Ederki, ez diezaiegun oraingoz ihardetsi, eta onar dezagun hemen Jainkoari buruz esan dudan guztia gezurra dela. Hala ere, berdin da zer bururatzen duten horiek nire oraingo naturara nola heldu naizen azaltzeko -patua dela, halabeharra dela, segidako gertaera sail baten ondorioa dela, edo beste edozein era dela- edozein kasutan egia baita huts egitea eta norbera nahastea nolabaiteko inperfekzioa dela; honegatik, zenbait eta

¹⁰ Frantsesez zera gaineratzen du: un corps.

¹¹ Frantsesez zera gaineratzen du: ou d'incertitude.

¹² Frantsesez zera gaineratzen du: et que néanmoins j'ai les sentiments de toutes ces choses.

ahalmen gutxiago izendatzen dioten nire sorreran jartzen duten sortzaileari, orduan eta errazagoa izango da ni beti huts egiteko inperfekzio mailara heltzea. Arrazoi hauen aurrean nik ez daukat zer erantzun. Onartu behar dut beste garai batzuetan egiaztat hartu ditudan iritzi guztien artean ez dagoela bakarra ere gaur egun ezin dudana zalantzatan jarri -eta honen motiboa ez da axolagabekeriaz edo arinkeriaz jokatu dudala, baizik eta oso arrazoi sendoak eta ondo pentsatutakoak ditudala orain-. Honegatik, zerbait egiazkoa aurkitu nahi badut¹³, ukatu behar diet onespena nire lehenagoko iritzi horiei, nabarmenki faltsuak diren gauzei ukatzen diedan bezala.

Baina ez da nahikoa honetaz guztiaz jabetzea, beharrezkoa da, baita ere, dena gogoratzea. Izan ere, lehenagoko iritzi arrunt horiek sarritan etortzen zaizkit niri burura. Euretaz erabilpen luzea eta kuttuna egin dut, eta horrek eskubidea eman die nire gogoaren kontra nire adimenean leku bat betetzeko eta ia nire sinesmenen nagusi izateko ere. Eurekin bat etortzeko eta eurengan konfiantza izateko ohitura ez dut sekula galduko eurak berez zer diren kontutan dudan artean, hau da, kontutan dudan artean zalantzarriak direla (frogatu dudan legez), baina era berean oso gertakorrak ere; hau dela eta, arrazoi askoz sendoagoak baitaude eurak sinesteko ukatzeko baino. Horregatik uste dut ez dudala gaizki egingo horren aurkako iritzia onartzen badut eta nire ahalegin guztiak egiten baditut nire burua nahasteko, pentsamendu horiek guztiak faltsutat eta irudimenezkotzat joaz. Horrela, nire aurreiritzien zama balantzatzuz, nire irizmena ez litzateke erabilpen okerren menpean egongo eta ez litzateke desbideratuko egiaren ezagutzara eramango lukeen bidetik. Izan ere, badakit jakin ez dagoela bide honetatik ez arriskurik ez errurik eta nire mesfidantzari ere ez diodala gehiegizko kasurik egin behar, ezagupenaz ari naizelako eta ez ekintzaz.

Beraz, Jainko ona, egia guztien iturri gorena, badagoela suposatu ordez, bururatuko dut jeinu maltzurra dagoela, guztiz ahaltsua eta engainatzailea dena, eta bere indar guztiak erabili dituen ni engainatzeko. Pentsatuko dut zerua, lurra, koloreak, irudiak, hotsak eta ikusten ditugun kanpoko gauza guztiak ametsetako zelatak besterik ez direla, jeinu maltzur horrek nire sinesberatasunari jartzen dizkiona. Bururatuko dut nik neuk ez dudala ez eskurik, ez begirik, ez haragirik, ez odolik, ez inolako sentipenik, eta horiek ditudalako sinesmen faltsua dudala. Gogoeta horri eutsiko diot temati, eta bide honetatik ezin banaiz inolako egiaren ezagutzara heldu, orduan, gutxienez, nire esku egongo da nire irizpena eskegita uztea. Honegatik saiatuko naiz, kontu handiz, faltsua den ezer ez onartzen nire sinesmenean, eta nire gogoa gertu izango dut engainatzaile handi horren amarruei aurre egin diezaion, berak ez diezadan sekula ezer ezar bere amarruak oso handiak izan arren.

Baina eginkizun hau neketsua da, eta nire eguneroko bizitzan nolabaiteko nagikeria nagusitzen zait. Ni ametsetan irudimenezko askatasunaz gozatzen duen esklaboa bezalakoa naiz; bere askatasuna ametsa besterik ez dela susmatzen hasten denean, ez du iratzarri nahi izaten eta irudipen atsegin horietan babesten da¹⁴. Era berean ni ere, ustekabean, nire lehenagoko iritzietara etortzen naiz, eta orduan beldur izaten naiz ez ote naizen iratzarriko, eta ez ote dudan aurkituko nire loaldi lasaiaren ondoren etorriko diren egun lanpetuek ez didatela ekarriko argitasunik harrotu diren zailtasun ilunei dagokienez.

¹³ Frantsesez zera gaineratzen du: dans les sciences.

¹⁴ Frantsesez zera gaineratzen du: pour en être plus longuement abusé.

BIGARREN MEDITAZIOA

Giza naturari buruz, gorputza baino errazagoa ezagutzen dena

Atzoko Meditazioak adimena zalantzez bete dit, eta hainbeste dira, gainera, zalantza horiek, non ezin ahaztuko ditudan aurrerantzean. Baina, hala ere, ez dut ikusten nola aurki diezaiekedan irtenbiderik; eta harrituta nago, bat-batean oso ur sakonetan erori izan banintz bezala, hondoa ukitu ezinik edo ur gainean mantentzeko igeri egin ezinik. Saiatuko naiz, hala ere, eta atzo sartu nintzen bide berari eutsiko diot, zalantzarik txikiena bururatzeko aukera eskain diezadakeen guztitik urrunduz, guztiz faltsua dela bainekien; eta aurrera egingo dut zerbait ziurra aurkitu arte, edo gutxienez, besterik ez bada, ziurtasun osoz jakin arte ez dagoela ziurra den ezer.

Arkimedesek lur osoa bere lekutik mugitzeko puntu bat eskatzen zuen, finkoa eta higiezina, besterik ez. Horrela nik ere itxaropen handiak izan ditzaket aurkitzen badut gauza bakar bat egia eta zalantzaezina dena.

Ikusten ditudan gauza guztiak faltsuak direla suposatuko dut; pentsatuko dut nire oroimen engainakorrak agertzen didan guztia ez dela existitzen; ez dudala inolako sentipenik; gorputza, irudia, hedadura eta lekua kimerak besterik ez direla. Zer izango da, orduan, egia? Agian ez dela ezer egia dena, hori bakarrik.

Baina nola jakingo dut nik ba ote dagoen ezer aipatu ditudan gauza horietaz gain, zalantzarako motiborik txikiena ere emango ez duena? Ez al da Jainkoa izango -edo beste edozein izen ematen diogun izakiren bat- pentsamenduok gogoan sartu dizkidana? Hau ez da beharrezkoa, agian ni neu ere izan naiteke eta horiek ekoizteko gauza. Ez al naiz ni, orduan, zerbait izango gutxienez? Alabaina, ukatu egin dut nik sentipenik edo gorputzik dudarik. Hemen zalantzak sortzen zaizkit, zer ondorio ateratzen da hortik? Nire gorputzarenganako eta sentipenenganako menpekotasuna dela eta, ezin al dut horiek gabe existitu? Nire burua konbentzitu dut munduan ezer ez dagoela, ez zerurik, ez lurrik, ez adimenik, ez gorputzik; ez al da hortik ateratzen ni ez naizela existitzen? Ez ba; nik existitu behar dut ni neu zerbaitetaz konbentzitu banago¹⁵. Baina badago ez dakit zer bat engaintzailea dena, ahalguztiduna eta guztiz zuhurra, bere artezia guztia ni beti engainatzeko erabiltzen duena. Ez dago, beraz, zalantzarik existitzen naizela, huts egiten dut eta. Eta berak nahi adina nahasten banau ere, ez du lortuko ni ezer ez izatea zerbait pentsatzen dudan artean. Horrela, gogoeta egin eta gero¹⁶, ondorioztatu behar dut ni naiz, ni existitzen naiz esaldiak derrigorrez egia izan behar duela ahoskatzen dudan bakoitzean edo nire adimenean bururatzen dudan guztietan.

Baina ez dut ulertzen oraindik oso argi zer naizen, ni banaizela seguru nagoen arren. Horregatik arretaz jokatu behar dut eta oharkabea ez dut nitzat hartu behar ni ez naizen beste zerbait, eta honela ez dut hutsik egingo nire ezaguera honetan, nire ustez ziurrena eta ebidenteena dena.

¹⁵ Frantsesez zera gaineratzen du: ou seulement si j'ai pensé quelque chose.

¹⁶ Frantsesez zera gaineratzen du: et avoir soigneusement examiné toutes choses.

Beraz, azken gogoeta hauetara heldu aurretik nire naturaz pentsatzen nuena hartuko dut kontutan berriro, eta nire lehenagoko iritzien artetik ezabatuko dut eskaini berri ditudan arrazoiekin zalantzatan jar daitekeen guztia, ezer ez geratu arte ziurra eta zalantzaezina ez dena. Zer izan naiz ni, orduan, nire iritzirako orain arte? Gizakia, jakina. Baina, zer da gizakia? Animalia razionala dela esango al dut? Ez, bestela animalia zer den eta razionala zer den aztertu beharko nuke eta. Horrela, galdera bakar batetik abiaturik, oharkabea, hamaika galdera zailagotan murgilduko ginateke, eta ez dut nire asti urria galdu nahi halako xehetasunetan. Horren ordeztu gehiago arduratuko naiz nire adimenean (nire naturari buruz gogoetatzen hasten naizenean), bat-batean eta berez sortzen zaizkidan pentsamenduez. Hasteko bururatzen zait aurpegia dudala, eskuak, besoak...; eta hezurrez eta haragiz (gorpu batean aurkitzen diren moduan) osatutako makina honi gorputza deritzot. Bururatuko zait gainera elikatzen naizela, mugitzen naizela, sentitu eta pentsatzen dudala, ekintzaok arimari atxikitzen dizkiodalarik. Baina ez naiz geldituko arima hau zer den pentsatzen, edo geldituta ere irudikatuko dut oso bakandutako haizea, sua edo etera dela, nire gorputzeko parterik sendoenetan zabaltzen dena. Gorputzei dagokienez, ez dut euren naturaz zalantzarik egingo, bera oso bereiziki ezagutzen dudala uste dut eta; natura hori azaldu nahiko banu zera esango nuke: "gorputz hitzaz ulertzen dut irudi batek mugatzen duen guztia; leku batean sartzen dena; espazio bat betetzen duena beste edozein gorputz baztertuz espazio horretatik; senti daitekeena ukituz, ikusiz, entzunaz, dastatuz edo usainduz; era askotara mugi daitekeena, ez berez, bera ukitzen duen beste zerbaiten indarrez baino". Zeren mugitzeko, sentitzeko eta pentsatzeko ahalmenei dagokienez, ez dut uste eurak berez izatea gorputzaren ezaugarritzat har litekeen abantaila denik; haatik, harritzen nau gorputzen bat egon dadila ahalmen horiek izango lituzkeena.

Baina zer izango naiz ni, behin suposatu dudanez gero badela norbait ahalguztiduna dena eta -horrela esan badezaket- maltzurra eta engainatzailea ere, eta bere ahalegin guztiak egiten dituen ni nahasteko? Baiezta al dezaket gorputzaren naturaren ezaugarritzat jo ditudan horietatik bakarra ere dudala? Arreta jartzen dut eta pentsatzen dut gauza hauetaz, bueltak ematen dizkiot nire buruari, eta ez zait ezer bururatzen, eta ez da beharrezkoa gauza horien artetik guztiak zehaztea. Jo dezagun, orduan, arimaren atribuetara, eta begira dezagun ea badagoen horietako baten bat nire baitan. Lehenak elikadura eta higidura dira, baina egia bada gorputzik ez dudala egia da, halaber, ezin naizela higitu eta ezin naizela elikatu. Beste bat sentitzea da, baina ezin dut sentitu gorputzik gabe; gainera, ametsetan sentitu izan ditut zenbait gauza, eta gero, iratzartean, konturatu naiz sentitu ez ditudala. Beste bat pentsatzea da, eta jabetzen naiz hemen pentsamendua niri dagokidan atributua dela, bera da niregandik bananezina den bakarra. Ni naiz, ni existitzen naiz, hau egia da orduan, baina noiz arte? Nik pentsatzen dudana artean. Izan ere, baliteke nik pentsatzeari utziz gero existitzeari erabat uztea ere. Zehaztasunez hitz eginda, beraz, pentsatzen duen zerbait besterik ez naiz, hau da, gogoa, adimena edo arrazoimena naiz (hitzon esanahia orain arte ezezaguna zitzaidalarik), eta honekin ez dut ezer onartzen beharrezko egia baino. Benetako gauza naiz orduan, benetan existitzen dena, baina zer gauza? Esana dut: pentsatzen duen gauza. Eta zer gehiago? Nire irudimena erabiliko dut¹⁷. Ez naiz giza gorputza deritzon gorputzadar multzoa; ez naiz bere gorputzadar guztietan hedatzen den aire fin eta sarkorra; ez naiz haizea, ez sua, ez lurruna, ezta nik burura edo irudika dezakedan ezer

¹⁷ Frantsesez zera gaineratzen du: pour voir si je ne suis point encore quelque chose de plus.

ere, hau guztia ez dela ezer suposatu baitut, eta suposapenez aldatu gabe aurkitu dut zerbait naizela.

Baina gerta liteke existitzen ez direla suposatu ditudan gauza horiek -nik ez baintuen ezagutzen- ez bereiztea ezagutzen dudan nitatik? Nik ez dakit, ez naiz horretaz ari; ezin dut eman nire iritzia ezagutzen dudanari buruz baino. Badakit existitzen naizena, eta jakin nahi dut zer den ni hori, existitzen dela aitortu dudana. Alabaina, oso gauza ziurra da niaz dudan ezagupen hori ez dagoela lotuta euren existentzia ezagutzen ez dudan gauzeekin, eta, ondorioz, ez duela menpekotasunik irudimenak itxura dezakeenarekiko. Eta itxuratu¹⁸ aditz honek nire errua oharrarazten dit; izan ere nik itxura egingo nuke irudikatuko banu zerbait naizela, irudikatzea gauza korporal baten itxurari edo irudiari begiratzea baita. Baina nik ziurtasunez dakit banaizela eta aldi berean irudi horiek guztiak ametsak besterik ez direla (oro har, gorputzaren naturarekin zerikusia duten gauza guztiak bezala). Honen ondorioz ateratzen da neurri berdinean izango litzatekeela arrazoigabea bai esatea: , bai esatea: . Honela badakit nire buruaz dudan ezagupenean ez dela sartzen irudimenaren bidez uler dezakedan ezer; eta nire gogoa urrundu behar dut ulertzeko modu honetatik kontu handiarekin, berak bere natura ondo bereizturik atzeman dezan.

Zer naiz ba, orduan, ni? Pentsatzen duen zerbait. Eta zer da hori? Zalantza egiten duen zerbait, bururatzen duena, baieztatzen duena, ukatzen duena, nahi duena, nahi ez duena, irudikatzen duena eta sentitzen duena. Eta, egia esan, ez da gutxi hau guztia nire naturari badagokio. Eta nola ez dira ba nire osagarri izango? Ez al naiz ni ia guztiaz zalantza egiten duena, gauza batzuk ulertzen dituen, gauza bat bakarrik dela egia baieztatzen duena, gainerakoak ukatzen dituen, gehiago ezagutu nahi duena, hutsik egin nahi ez duena, gauza asko irudikatzen duena, sentipenen bidez datozkion gauzak sumatzen dituen? Ba al da ezer honetan guztian egia dena, ni existitzen naizela egia den bezala, ni beti lotan egongo banintz ere eta izatea eman didan horrek ni engainatzeko ahalegin guztiak egingo balitu ere? Bereizten al dira ezaugarri horiek nire pentsamenduaz edo niaz? Benetan nabarmena baita ni naizela zalantzak egiten dituen, ulertzen duena eta nahi duena, eta, beraz, ez da beharrezkoa ezer gaineratzea hori azaltzeko. Eta ni neu naiz irudikatzeiko ahalmena duena; zeren gerta daitekeen arren (lehenago suposatu dudan bezala) irudikatzen ditudan gauzak egia ez izatea, hala ere, irudikatzeiko ahalmen horrek ez dio nirea izateari uzten eta nire pentsamenduaren zatia da. Azkenik, ni sentitzen duen horixe naiz, hau da, gauzak organoen sentipenen bidez atzematen dituen; izan ere, nik ikusten dut argia, nik entzuten dut hotsa, nik sumatzen dut beroa. Dena dela, baten batek esango dit itxura horiek faltsuak direla eta lotan nagoela. Hala balitz ere egi-egia da, gutxienez, iruditzen zaidala nik sentitzen dudala, nik entzuten dudala, ni berotzen naizela. Honek ezin du faltsua izan¹⁹; eta, hain zuzen, honi deritzo niregan sentitzea²⁰, eta zentzu horretan hartuta horixe da pentsatzea. Eta hemen ezagutzen hasten naiz zer naizen ni lehen baino argitasun eta berezitasun handixeagoarekin. Baina ezin dut nire burutik kendu era bereziagoan atzematen ditudala gauza korporalak (pentsamenduaren irudien bidez bururatu eta sentipenen bidez aztertzen ditudanak) irudimenetik kanpo geratzen den ni neu delako hori baino. Eta, hala ere, ondo gauza bitxia da modu argiagoan eta errazagoan ezagutzen ditudala

¹⁸ Effingo latineraz, frantsesez feindre: irudikatu, antzeratu, antzeztu, irudi bat bururatu, baina era berean bezala ere uler daiteke; uste dut horrek nahikoa ondo iradoki dezakeela bikoiztasun hori.

¹⁹ Frantsesera itzuli gabeko tartetxoa dugu hemen: Hoc falsum esse non potest.

²⁰ Sentire, sentir.

zalantzarriak eta urrunak iruditzen zaizkidan gauzak egiazkoagoa eta ziurragoa dena baino, hau da, nia baino. Baina badakusat zer gertatzen den hemen. Nire adimenak atsegin du noraezean ibiltzea eta ezin gera daiteke egiaren muga estuetan. Aska diezaiogun ba berriro brida, horrela une egokian bera gozoki estutuz errazago izango zaigu bera zuzentzea.

Has gaitezen gogora ekartzen gauzarik arruntenak, modurik berezienean ulertzen ditugula uste ditugunak, hots, ukitzen eta ikusten ditugun gorputzak. Ez dut hitz egiten gorputzaz orokorrean, gorputz zehatz bati buruz baino; izan ere, nozio orokor horiek gehienetan nahasiak baitira. Har dezagun, adibidez, argizari pila bat. Erlauntzatik atera berria da eta oraindik ez du galdu eztiaren gozotasuna. Oraindik ez du guztiz galdu bera ateratzeko behar izan diren loreen usaina. Bere kolorea, bere irudia, bere handitasuna, nabarmenak dira; gogorra da, hotza da, uki daiteke, eta jotzen bada hotsa aterako du. Azken batean, gorputz bat bereizirik ezagutu ahal izateko beharrezkoak diren gauza guztiak aurkitzen dira bertan.

Baina hitz egiten ari naizen artean sutara hurbiltzen dut argizaria. Bere zaporearen arrastoa galtzen da, usaina joaten zaio, bere kolorea aldatzen da, irudia desegiten da, bere tamaina handiagotzen da, urtu egiten da, berotu, ezin da ia ukitu, eta baten batek jotzen badu ez du hotsik aterako. Argizari berak irauten al du aldaketa honen ostetik? Onartu beharra dago irauten duela eta inork ezin duela hori ukatu. Zer zegoen, orduan, argizari zati horretan zerbait bereizia bezala ezagutuko genuena? Ezin izan daiteke sentipenen bidez atzeman dudana ezer, zeren dastamenean, usaimenean, ikusmenean, ukimenean edo entzumenean sartzen diren gauza guztiak aldatu baitira, argizari berak iraun duen artean. Agian nik ondoren pentsatuko dudana izango zen: hots, argizaria ez zela ez eztiaren gozotasun hori, ez loreen usain atsegin hori, ez zuritasun hori, ez irudi hori, ez hots hori, baizik eta gorputz bat dela, lehenago itxura horiekin agertu zaidana, eta orain beste batzuekin agertzen dena, besterik ez. Baina zer da zehazki nik irudikatzen dudana gauza hori? Har dezagun kontutan bera arretaz eta bazter dezagun argizariari ez dagokion guztia, ea zer den irauten duena. Zerbait hedatua, malgua eta aldakorra besterik ez da geratzen. Baina zer da malgua eta aldakorra izatea? Ez al du honek esan nahi nik irudikatzen dudala argizaria borobila denean karratua bihur daitekeela, eta karratua denean hiruangeludun izatera pasa daitekeela? Ez, ez da hori, zeren iruditzen baitzait argizariak jasan ditzakeela horien antzeko aldaketa ugari, eta ezin izango nituzke aldaketa horiek guztiak irudimenaren bidez harrotu eta, ondorioz, argizariaz dudana buruera hori ezin da sortu irudimenetik.

Zer da hedadura hori? Ez al da bera ere ezezaguna? Izan ere bere oinarria den argizaria urtzen denean handiagotzen baita, eta, oraindik, handiago egiten da irakiten denean, eta askoz ere handiago beroa handiagoa denean. Eta argizariari buruz ez dut iritzi zuzena izango ez badut kontutan hartzen bere hedaduran aldaketa ugari eman daitekeela, nik irudimenarekin burura ditzakedanak baino askoz gehiago. Onartu behar dut, beraz, ezin ulertuko dudala irudimenaren bidez zer den argizaria, baizik eta ulertu bakarrik adimenaren²¹ bidez ulertuko dudala, (hau argizari zati horretaz diot, argizaria orokorki hartuz gero gauza askoz ere nabariagoa da eta). Alabaina, zer da adimenaren²² bidez bakarrik burura daitekeen argizari hau? Egiatan nik hasieratik ikusi, ukitu, irudikatu eta ezagutu dudana huraxe da. Baina oharrarazi behar da bere hautemaketa, edo berataz

²¹ Frantsesez entendement, latinez mens.

²² Latinez bakarrik mente dioenean, frantsesez par l'entendement ou l'esprit dio.

jabetzeko ekintza, ez dela ez ikusmenaren ekintza, ez ukimenarena, eta ezta irudimenarena ere, eta ez dela inoiz horrela izan, eman badu ere; haatik, gogoaren behaketa hutsa besterik ez da izan, eta hau izan daiteke inperfektua eta nahasia, lehen zen bezala, edo argia eta bereizia, orain den bezala, argizariaren osagarriari arreta handiagoa edo txikiagoa jartzen diedan, horren arabera.

Alabaina, harritzen naiz kontutan hartzen dudanean²³ nire gogoak huts egiteko duen joera. Zeren, hau guztia nire baitan gogartzen dudan arren, hitzetaz baliatu gabe, hitzekin tratatzen naiz eta hizkuntza arruntaren berbek ia nahasten naute. Izan ere, argizaria aurrean dugunean diogu argizaria bera dakusagula, eta ez dugu ateratzen, ordea, argizaria aurrean dagoela bere kolorea eta irudia ikusten dugulako. Eta hemendik nik zera ondorioztatuko nuke: argizaria ezagutzen dugula begien ikusmenaren bidez, eta ez gogoaren behaketa hutsagatik. Baina halabeharrez leiho batetik begiratuko banie kaletik pasatzen diren gizakiei, gizakiak ikusten ditudala esango nuke argizaria ikusten dudala diodan bezala. Dena dela, nik leihotik kapelak eta berokiak besterik ez ditut ikusten, eta baliteke hauen ostean automatak²⁴ besterik ez egotea, eta nik, hala ere, gizakiak direla deritzot. Honela nire irizmen hutsaren bidez, zeina nire adimenean dagoen, ulertzen dut ustez nire begiekin ikusten nuena.

Bere jakituria jende xehearen mailaren gaineratik altxatu nahi duenak lotsatu egin beharko luke zalantzarako motiboak aurkituko balitu jende xeheak hitz egiteko duen eran. Nahiago dut aurrera jarraitu eta gogoan hartuko dut ea noiz bururatzen dudan era nabariagoan eta perfektuagoan zer den argizaria: dela, alde batetik, lehenago hauteman dudan moduan, hau da, kanpoko sentipenen bidez edo zentzu arruntaren bidez ezagutzen dudala sinetsiz -honela, sena [sensus communis]²⁵, baiteritzo irudiak sortzeko ahalmenari-; edo dela, bestetik, orain bururatzen dudan eran, hau da, bera zer den eta nola ezagutu daitekeen ondo aztertu eta gero. Egia esan barregarri geratuko litzateke honetaz zalantza egitea. Zeren, ba al zegoen zerbait bereizia eta nabaria nire lehengo hautemaketan? Zer egongo litzateke hautemaketa horretan edozein animaliaaren sentipenean sartuko ez litzatekeena modu berdinean? Baina argizaria eta bere kanpoko erak bereiztean, eta bera gogartzen dudanean jantzi guztiez erantzita, hau da, erabat bilutsik, nire irizmenean erruren bat aurki daitekeen arren, ezingo dut bera horrela bururatu giza adimena izan gabe.

Oraindik ez badut onartu ni adimenaz beste zerbait naizela, zer esango nuke nik adimen honi buruz, hau da, niri buruz? Zer esango dut niri buruz argizari zati hau hain bereizturik hauteman eta gero? Nire buruaz dudana ezagupena ez al da izango argizariarena baino egiazkoagoa, ziurragoa, eta gainera askoz ere bereziagoa eta nabarmenagoa? Zeren argizaria ikusten dudala eta, baieztatzen badut bera existitzen dela, argizaria ikustearen ondorio nabarmenagoa izango baita ni existitzen naizela. Izan ere, baliteke nik dakusadana ez izatea argizaria, baliteke, halaber, nik begirik ez edukitzea ezer ikusteko, baina ezinezkoa da ni, pentsatzen duena, ezer ez izatea ikusten dudanean edo ikusten

²³ Frantsesez zera gaineratzen du: combien mon sprit a de faiblesse.

²⁴ Latinez automata dioenean frantsesez des spectres ou des hommes feints qui ne se remuent que par ressorts dio.

²⁵ Diskurtsoko bon sens eta meditazioetako sens commun edo sensus communis kontzeptuek gauza ezberdina adierazten dute Descartesengan. Lehena arrazoiarekin identifikatzen da, eta ondo irizteko eta egia eta faltsuaren artean bereizteko ahalmena adieraten du. Bigarrenak, berriz, zentzu aristotelikoa hartzen du, eta gehiago adieraziko du sentitzen duen subjektuaren osotasuna gaia baino. Sentigarritasun orokorra adieraziko luke eta sentimen bakoitzak bat egingo luke beste guztiekin beraren baitan. Berak batzen ditu sentimen guztiak gai sentigarriari zentzua emanaz.

dudala pentsatzen dudanean (eta ez dut egoera bi hauen artean bereizten). Era berean, argizaria existitzen dela baderitzot, bera ukitu dudala eta, hortik gauza bera ondorioztatuko da; eta argizaria existitzen dela baderitzot nire irudimenak konbentzitu nauelako, edo beste edozein arrazoiengatik, hemendik ere ondorio bera aterako dut, existitzen naizela, alegia. Eta argizariaz oharrarazi dudanak niregandik kanpo dagoen edozein gauzarentzat balio du.

Alabaina, argizariaz dudak hautemaketa²⁶ bereziagoa iruditzen zait ikusmenaz eta ukimenaz gain beste zenbait zergatien bidez ezagutzen dudadanean; ba arrazoi berarengatik nire buruaz izango dudak ezagupena ere askoz bereziagoa²⁷ izango da, zeren argizaria edo beste edozein gorputz ezagutzen laguntzen duten arrazoi guztiak lagungarriagoak izango baitira nire adimenaren natura ezagutzeko. Eta badira adimenaren baitan bertan beste zenbait gauza beraren natura ezagutzen lagunduko dutenak, eta eurak asko direnez ez du merezi kontutan hartzea gorputzaren menpeko direnak.

Eta azkenean, oharkabean, nik nahi nuen puntura etorri naiz. Zeren dagoeneko badakit gorputza ulermenaren bidez bakarrik burura daitekeela eta ez sentipenen edo irudimenaren bidez, eta pentsamenduz bururatzen dugunaren bidez ezagutzen dugula eta ez ikusten dugunagatik, edo ukitzen dugunagatik; eta hori guztia horrela denez badakit ez dela ezer ezagutzeko errazagoa nire adimena baino. Baina ia ezinezkoa denez antzinako iritzi bat berehala baztertzea, ona izango da puntu honetan gelditzea pixka bat; honela ezaguera berri hau, meditazioaren luzapena dela eta, nire oroimenean sakonkiago errotuko dut.

HIRUGARREN MEDITAZIOA

Jainkoaz: bera existitzen dela

Nire begiak itxiko ditut, nire belarriak estaliko ditut, alde batera utziko ditut nire sentimenak, nire pentsamendutik ezabatuko ditut gauza fisikoen irudi guztiak, edo, hau ia ezinezkoa denez, gutxienez alferrikakotzat edo faltsutzat joko ditut; honela, nire buruarekin bakarka jardun eginaz, eta nire barnekotasuna aztertuz, saiatuko naiz nire burua niretzat ezagunago eta hurbilago bihurtzen. Ni pentsatzen duen zera bat naiz, hau da, zalantza egiten duena, baieztatzen duena, ukatzen duena, gauza bakarren batzuk ezagutzen dituen, asko ezagutzen ez dituen²⁸, nahi duena, nahi ez duena, eta gainera irudikatzen eta sentitzen duena. Zeren, lehenago oharrarazi dudak legez, nik sentitzen eta irudikatzen ditudan gauzak niregandik kanpo ezer izango ez balira ere, seguru nago gutxienez sentipenak eta irudipenak deritzedan pentsatzeko erak nire baitan daudela²⁹

²⁶ Latinez: perceptio, frantsesez: la notion et la connaissance.

²⁷ Latinez: quanto distinctius, frantsesez: d'évidence, de distinction et de netteté.

²⁸ Frantsesez zera gaineratzen du: qui aime, qui hait.

²⁹ Latinez: in me esse, frantsesez: résident et se rencontrent en moi.

pentsatzeko erak besterik ez diren neurrian. Eta esan ditudan gauza gutxi hauekin uste dut benetan dakidan guztia laburtu dudala, edo gutxienez orain arte badakidala onartu dudan guztia. Orain gogartuko dut zehaztasun handiagoz ea badagoen nire baitan beste ezagupenik, zeinaz orain arte jabetu ez naizen. Ziur nago pentsatzen duen zera bat naizela, baina ba al dakit zer den beharrezkoa zerbaitez ziurtasuna izateko? Lehen ezagupen honetan aurkitzen den gauza bakarra zera da: ezagutzen dudanaren hautemaketa argi eta bereizia, besterik ez, eta hau, egia esan, ez litzateke nahikoa izango bera egia dela ziurtatzeko, noizbait aterako balitz argi eta bereizitzat dudan hori faltsua dela. Honegatik, iruditzen zait arau orokor bezala zera ezar dezakedala: oso argiro eta oso bereizirik bururatzen ditugun gauza guztiak egia direla.

Hala ere, lehenago oso ziurtzat eta oso nabarmentzat hartu ditudan zenbait gauza, gero konturatu naiz zalantzarriak zirena. Zer gauza ziren hauek? Lurra, zerua, izarrak, eta sentimenen bidez nireganatzen nituen gainerako guztiak. Zer hautematen nuen horietan argi eta bereizirik? Hots, nire adimenean agertzen ziren eurei buruzko ideiak edo pentsamenduak, besterik ez. Eta oraindik orain ez dut ukatzen ideia hauek niregan aurkitzen direla. Baina bada oraindik beste zerbaitez baieztatzen nuena eta, bera sinesteko nuen ohitura zela eta, nire ustetan oso argiro hautematen nuena, nahiz eta egiatan ez nuen inolaz ere hautematen. Hau da, baieztatzen nuen nire baitatik kanpo bazirela zenbait gauza, nire ideien jatorri zirenak, eta nire ideiek gauza horien antz bete-betea zutela. Eta hementxe nengoen oker, edo, hori egia balitz ere, ez zen oinarritzen nire hautemaketatik ateratako ezagupen batean.

Baina aritmetikari edo geometriari buruz zenbait gauza arras sinpleak eta arras errazak bururatzean (esaterako, bi eta hiru batuz gero bost ematen dutela, eta antzerakoak) ez al ditut eurak atzemango egiak direla baieztatzeke adinako argitasunez? Egia esan, gauza horiei buruz zalantza egin daitekeela izan bada nire iritzia, honako arrazoiagatik izan da: bururatu zaidalako, Jainkoren batek niri emandako natura zela eta, bazitekeela ni oker egotea are errazena iruditzen zaizkidan gauzetan ere. Baina Jainko ahalguztidunaren ideia -aldeztatik pentsatutakoa- bururatzen dudana bakoitzean, onartu beharra daukat Jainko horri erraza izango zaiola, berak hala nahi badu, ni nahasaraztea, are oso nabarmenak iruditzen zaizkidan gauzetan. Eta beste aldetik, nire ustez argiro bururatzen ditudan gauzei so egiten diedanean, hainbesteraino limurtzen naute eurek, non bat-batean honelako gauzak esaten ditudan: "Edonork nahasten nauela ere, ezin lortuko du ni ezer ez izatea ni zerbaitez naizela pentsatzen dudan artean, edo ezin lortuko du, ezta ere, noizbait egia izan dadila ni ez naizela ezer izan iraganen orainean zerbaitez banaiz, edo bi eta hiru batuta bost baino gehiago edo gutxiago ematen dutela, edo antzerako gauzak, zeintzuk niretzat argi eta garbi dagoen ezin izan direla nik bururatu baino beste modu batekoak".

Eta, egia esan, ez dut inolako arrazoirik pentsatzeko Jainko engainatzailerik badagoenik, eta, bestalde, ez ditut oraindik kontutan hartu Jainkoa badela frogatzen duten arrazoiak; hori dela eta, Jainko engainatzailearen suposizio horretan oinarritzen den zalantza funtsgabea izango da eta, nolabait esateagatik, metafisikoa. Baina zalantza hori erabat baztertzeko ea Jainkorik dagoen aztertu behar dut ahalbait eta azkarren, eta Jainkoa badela ateratzen badut, aztertu beharko dut ea engainatzailea den, zeren bi egia hauen

ezagutza izan gabe ez baitakit nola egon ahal izango naizen ezertaz ziur. Baina badirudi³⁰ ordenak eskatzen duela lehenago nire pentsamenduak multzotan banatzea, eta bilatzea ea zeinetan datzan egia eta zeinetan faltsutasuna.

Nire pentsamenduen artean batzuk gauzen irudiak bezalakoxeak dira, eta hauei dagokie zehatz-mehatz ideia izena: adibidez, gizakiaz, kimeraz, zeruaz, aingeru batez edo Jainko beraz pentsatzen dudanean. Beste pentsamendu batzuek beste forma batzuek izaten dituzte: adibidez, nahi dudanean, beldur naizenean, baieztatzen dudanean, ukatzen dudanean; kasu hauetan zerbait nire pentsamenduen gai bezala agertzen zait, baina gai horri buruz dudak ideiar³¹ zerbait gaineratzen diot; eta pentsamendu hauen artetik batzuei nahimen edo eraspen deritze, eta besteei irizpen. Orduan, ideiei dagokienez, bakarrik berez hartzen badira kontutan, eta ez badira beste ezerekin lotzen, ezin dira, zuzen hitz eginez gero, faltsutzat jo; zeren nahiz ahuntza nahiz kimera irudikatu, maila berdineko egiak dira ahuntza irudikatzen dudala nola kimera irudikatzen dudala.

Eta eraspenei edo nahimenei dagokienez ere, ez gaitu kezkatu behar faltsutasunik aurkituko ote dugun; zeren gauza txarrak nahi izan ditzakedan arren, nik nahi baititut, eta hau egia izango da benetan sekula emango ez balira ere.

Beraz, irizpenak bakarrik geratzen zaizkit, eta arreta handia izan beharko dut hauetan ez hutsik egiteko. Alabaina, aurki daitekeen errurik nagusia eta arruntena zera da: pentsatzea nire baitan dauden ideiak kanpoan dauden gauzen antzekoak direla edo eurei dagozkiela. Zeren, benetan, ideiak nire pentsaeraren modutzat jotzen baditut, kanpoko gauzaren batekin egokitu gabe, nekez huts egin ahal izango dut.

Alabaina, ideia hauetatik batzuk iruditzen zait nirekin batera jaio direla, beste batzuk kanpotik datozkidala, eta besteak nik neuk sortu ditudala. Zeren oro har gauza edo egia edo pentsamendua deritzona ulertzeko ahalmena dut, eta nire ustez ahalmen hau nire naturatik datorkit, beste inondik ez. Baina hots bat entzuten badut, eguzkia ikusten badut edo beroa sentitzen badut, orain arte nire iritzia izan da sentipen hauek niregandik kanpo existitzen diren gauzetatik datozela. Eta, azkenik, sirenak, hipogrifoak eta antzerakoak nik asmatutakoak dira. Baina era berean suposa dezaket ideia guztiak kanpotik etorritakoak direla edo guztiak jaiotzetikoak direla edo guztiak neuk sortu ditudala, ez dut eta euren benetako jatorria aurkitu argi eta garbi oraindik. Eta arlo honetan nire eginbehar nagusia zera da: niregandik kanpo dauden gaietatik datozela ematen duten ideiei dagokienez galdegingo diot nire buruari ea zer arrazoik bultzatzen nauten pentsatzera gai horien antza dutela.

Lehenengo arrazoa da ematen duela naturak irakasten didala hori, eta, bigarrena, nire baitan sumatzen dudala ideia horiek ez direla nire menpeko, sarritan burura etortzen zaizkidalako nire gogoaren kontra: esaterako, orain beroa sentitzen dut nik nahi edo nahi ez, eta honegatik konbentzitura nago beroaren sentipen hau edo ideia hau nitaz ezberdina den zerbaitek ekoizten duela nire baitan, hots nire aurrean dagoen suaren beroak. Eta ez da ezer begien bistakoago zera iriztea baino: kanpoko gauza batek, eta ez beste ezerk, bidaltzen didala eta inprimatzen duela nire baitan bere itxura.

³⁰ Frantsesez zera gaineratzen du: Et afin que je puisse avoir occasion d'examiner cela sans interrompre l'ordre de méditer qui je me suis proposé, qui est de passer par degrés des notions que je trouverai les premières en mon esprit à celles que j'y pourrai trouver par après.

³¹ Latinez similitudinem dio, frantsesez idée dioen artean.

Orain arrazoi hauek ea nahikoa sendoak³² diren ikusi behar dut. Zerbait naturak irakatsi didala diodanean, natura hitzaz zera ulertzen dut: nik gauza hori sinesteko dudana joera, eta ez ordega gauza hori egia dela erakusten didan naturaren argitasuna; eta gauza bion artean alde handia dago. Zeren ezingo dut nik zalantzatan jarri naturaren argitasunak egia dela erakutsi didana, esaterako erakusten didanean nik zalantza egiten dudala eta hortik ateratzen dela ni banaizela. Eta ez dut nire baitan egiaren eta faltsuaren artean bereizteko beste ahalmenik, edo gaitasunik, zeinak irakatsi ahal izango didan ez dela egia naturazko argiak egia bezala erakusten didana eta naturazko argi hori bezain fidagarria izango dena. Eta nire joera naturalei dagokienez, euretz baliatu naizenean bertuteen eta bizioen artean aukeratzeko, sarritan iruditu zait bide okerretik³³ eraman nautela, eta honegatik ez dut inolako arrazoirik ikusten euretz fidatzeko egiari eta faltsuari dagokienean.

Eta ez zait iruditzen konbentzigarriagoa beste arrazoia, alegia ideia horiek kanpotik etorri behar dutela nire borondatearen menpeko ez direlako. Zeren oraintxe aipatu ditudan joera horiek nire baitan aurkitzen diren bezala (nahiz eta ez datozen bat beti nire borondatearekin), baliteke nire baitan izatea ere ahalmenen bat, nik oraindik ezagutzen ez dudana, ideia horiek ekoizteko gai izango dena kanpoko laguntzarik gabe. Izan ere, lotan nagoela beti iruditu izan zait ideiak eratzen direla niregan eurei dagozkien kanpoko gairik gabe. Eta azken batean, niregandik kanpo dauden gai horietatik etorriko balira ere, ez da hortik derrigorrez ondorioztatzen gai hauen antza izan behar dutenik. Haatik, sarritan oharrarazi dut, adibide ugariaren bidez, alde handia dagoela gaia eta berari dagokion ideiaeren artean³⁴. Esaterako, eguzkiari buruz bi ideia ezberdin aurkitzen ditut niregan: bata sentipenetatik ateratzen da eta kanpotik datozen ideien multzoan jarri behar da, eta honen arabera eguzkia oso txikia iruditzen zait; bestea astronomiaren arrazoietatik eratortzen da, hau da, nirekin jaiotako zenbait noziotatik, edo nik neuk sortzen dut beste moduren batean³⁵, eta beraren arabera eguzkia lurra baino zenbait aldiz handiagoa iruditzen zait. Egia da eguzkiaren bururatzen ditudan bi ideiaak ezin direla biak batera niregandik kanpo existitzen den eguzkiaren antzekoak izan; izan ere, eguzkiaren itxuratik zuzenean eratortzen den ideia benetako eguzkiaren antz txikiena daukana da, hori sinestarazten baitit arrazoimenak.

Honek guztiak erakusten dit nire sinesmen hori (hots, bazirela gauzak niregandik kanpo eta nitaz ezberdinak, eta gauza hauek eurei dagozkien ideiak edo irudiak helarazten³⁶ zizkidatela nire sentipenen bidez, edo beste bideren batetik) ez dela orain arte irizpen ziur batean oinarritu, bultzada itsu batean baino. Baina bada oraindik beste bide bat ikertzeko ea badagoen niregandik kanpo nik gauzez ditudan ideiei dagokien zerbait. Hau da, ideia horiek pentsatzeko moduak diren neurrian hartzen baditugu kontutan bakarrik, ez dut ikusten euren artean ezberdintasunik eta iruditzen zait denak nire baitatik sortzen direla modu berdinean. Baina iruditzen hartzen baditugu, bata gauza bat eta besteak beste bat irudikatzen dutelarik, garbi dago elkarren artean oso ezberdinak direla. Zeren, izan ere, substantziak irudikatzen dituzten ideiak moduak edo akzidentekak irudikatzen dituztenak baino zerbait gehiago dira, eta, nolabait esateagatik, errealitate objektibo

³² Frantsesez zera gaineratzen du: et convaincant.

³³ Latinez: in deteriore parte fuisse impulsus. Frantsesez: elles ne m'ont pas moins porté au mal qu'au bien.

³⁴ Frantsesez gaineratutakoa: entre l'objet et son idée.

³⁵ Azken esaldia Frantsesezko edizioan gaineratutakoa da: ou enfin est formée par moi-même de quelque sorte que ce puisse être.

³⁶ Frantsesez zera gaineratzen du: et y imprimèrent leur ressemblance.

handiagoa biltzen dute euren baitan³⁷; eta, modu berean, substantzia amaikorrek irudikatzen duten ideiak baino errealtate objektibo handiagoa du Jainko soberanoa bururatzeko duten ideiak (hau da, Jainko betierekoa, amaigabea, aldaezina, orojakilea, ahalguztiduna eta berarengandik kanpo dauden gauza guztien sortzailearen ideiak).

Baina artean ere, naturaren argitasunak nabarmentzen du kausa eragile eta erabatekoa eta bere ondorioa gutxienez neurri berdinean direla errealak; nondik aterako ote du bestela ondorioak errealtatea, bere kausatik ez bada? Eta nola emango ote dio kausak bere baitan ez duen zerbait?

Eta hortik ateratzen da ezerezetik ezin dela sortu ezer, baina ateratzen da, halaber, perfektuagoa dena, hau da, bere baitan errealtate handiagoa duena, ez dela perfektio txikiagokoaren menpeko. Eta egia hau argia eta nabarmena da filosofoek aktuzko edo formazko errealtatea deritzotenari dagokionean, baina baita objektiboa deritzoten errealtatea gogartzen duten ideiei dagokienean ere. Adibidez, lehenago existitu ez den harriak ezin ekin dio izateari ez badu bera ekoizten bere osagarri guztiak dituen zerbaitek -bai formalki dituela bai bere hastapenean³⁸-, hau da, ez badu ekoizten harriaren dauden gauza berdinak edo horiek baino gorenagoak dituen zerbaitek³⁹. Eta beroa ere ezin da sortu aurretik berotasunik ez duen subjektu baten baitan, baldin eta ez badu bera ekoizten gutxienez berotasuna bezain perfektua den zerbaitek, eta horrela gertatzen da gainerako kasuetan. Baina, are gehiago, berotasunaren edo harriaren ideia ezin da nire baitan egon, ez badu bertan beste kausa batek ezarri, zeinak izango duen nik berotasunean edo harriaren bururatzen duten bezainbateko errealtatea gutxienez. Zeren, nahiz eta kausa horrek ez dion helarazten nire ideiarenean honek duen aktuzko edo formazko errealtatea, ez baita horregatik suposatu behar kausa hau errealtate txikiagokoa izango denik. Alabaina, jakin beharra dago ideia oro izpirituak sortzen duela, eta horregatik pentsamendutik jasotzen duen errealtatea baino ez duela behar, ideia pentsamenduaren edo izpirituaren modua besterik ez baita. Baina ideia batek errealtate objektibo bat, eta ez bestea, izan dezan errealtate hori kausa batetik jaso behar du, eta kausa honetan formazko errealtateak egon behar du, ideian errealtate objektiboa dagoen neurri berdinean gutxienez. Zeren suposatzen badugu ideian badagoela zerbait bere kausan aurkitzen ez dena, beharrezkoa izango da hori ezerezetik etorri dakion. Baina zerbait beraren ideiarenean bidez existitzen bada adimenean objektiboki, izateko modu hau, oso inperfektua izan arren, ezin da esan ez dela ezer, eta, beraz, ezin etorri da ezerezetik, eta ezin atera du bere jatorria ezerezetik.

Era berean, ez dut suposatu behar nire ideien kausak ez duela formalki errealak izan behar, nahiz eta nire ideietan kontutan hartzen ari naizen errealtatea objektiboa baino ez den, eta ez dut pentsatu behar ere nahikoa denik ideia horien kausaren errealtatea objektiboa izan dadila. Zeren, ideiei berez badagokie objektiboki izateko modu hau, era berean, berez dagokie ideien kausei (lehen eta nagusienei gutxienez) formalki izateko modua. Eta ideia bat beste ideia batetik sor daitekeen arren, katea hau ezin da

³⁷ Frantsesez zera gaineratzen du: *c'est-à-dire participant par représentation à plus de degrés d'être ou de perfection.*

³⁸ Latinez: *eminenter*; frantsesez: *éminemment*. Hitz honek zentzu etimologikoan gorena esan nahi du. Filosofia eskolastikoan nagusiki Jainkoari aplikatzen zaio eta izaki amaikorraren aurrean duen bere nagusitasuna adierazteko balio du. Descartesek eskolastikoen erabilpenari jarraitzen dio eta horiek bezala errealtate formalari eta objektiboari kontrajartzen die. Descartesek, izaki bat hiru eratarik existitu daitekeela deritzo: *objectivement*, hau da, guk berataz dugun ideian; *formellement*, hau da, ideia horrek adierazten duen gaian; *éminemment*, hau da, bere hastapenetan, bere funtsapenetan, nondik aterako duen bere errealtatea.

³⁹ Frantsesez gaineratutako esaldia: *c'est-à-dire qui contient en soi les mêmes choses, ou d'autres plus excellentes que celles qui sont dans la pierre.*

amaigaberaino joan, eta beharrezkoa da lehen ideia batera heltzea, honen kausa arketipo bat izango litzatekeelarik. Arketipo honetan errealtate⁴⁰ osoa bilduko litzateke formalki⁴¹ ideia horietan objektiboki⁴² egongo dena. Era honetara, naturaren argiak ezagutarazten dit nabarmentasunez ideiak guregan irudiak bezalakoak direla; irudiok eurek antzeratzen duten gauzen perfektzioa erraz gal dezakete, baina hauen handitasuna edo perfektzioa ezin gainditu dute.

Eta zenbat eta denbora luzeagoz eta arreta handiagoz aztertu gauza hauek guztiak, modu argiagoan eta bereziagoan ezagutzen dut egia direna. Baina zer ondorioztatuko dut hemendik? Zera aterako dut: bururatzen badut nire ideietako baten baten errealtate objektiboa ez dela nire baitan, ez formalki ez hastapenean, eta, beraz, ezin izan naizela ni ideia honen kausa, hortik ateratzen da derrigorrez ez nagoela bakarrik munduan, baizik eta badela beste zerbait existitzen dena eta ideia honen kausa dena. Eta egongo ez balitz nire baitan halako ideiarik ez nuke inolako argudiapenik izango nire burua konbentzitzeko nitaz beste den zerbait existitzen dela; arretaz bilatu ditut beste argudiapenok, baina ez dut nik ezta bakarra ere aurkitu orain arte.

Alabaina, nire ideien artetik -ni neu adierazten nauena kenduta, ez baitago berarekin zailtasunik- beste batek Jainkoa adierazten du, beste batzuek gauza korporal eta arimagabeak, besteek aingeruak, besteek animaliak, eta besteek nire antzeko gizakiak. Beste gizaki batzuk edo animaliak edo aingeruak adierazten duten ideiei dagokienez, erraz burura dezaket ideioi osa daitezkeela gauza korporalei eta Jainkoari buruz ditudan ideiak nahastuz, eta berdin izango litzateke ez egotea munduan, niregandik kanpo, ez beste gizakirik, ez animaliarik, ez aingerurik. Eta gauza korporalei dagozkien ideiez ez dut aurkitzen ezer euren baitan bere handitasunagatik ezin atera dena niregandik. Zeren gauza korporalok hurbilagotik gogartu eta banaka aztertzen baditut, atzo argizariaren ideia aztertu nuen bezala, idoroko dut oso gauza gutxi aurkitzen dela euren baitan argiro eta bereizirik burura dezakedana: adibidez, hedadura ezagutuko dut argiro eta bereizirik alde batetik (luzeerakoa, zabalerakoa eta sakonerakoa), bestetik, halaber, irudia (hedadura horren mugetatik sortzen dena), kokapena (era ezberdinetako irudia duten gorputzek batak bestearekiko dutena), mugimendua (edo kokapen horren aldaketa), eta hauei erants dakizkieke substantzia, iraupena eta zenbakia. Gainerako gauzei dagokienez (hala nola argia, koloreak, hotsak, usainak, zapoak, beroa, hotza, eta ukimenean sartzen diren nolakotasunak), hain nahasiak eta ilunak bururatzen ditut nire pentsamenduan, ezen ez dakidan ezta egiazkoak edo gezurrezkoak diren ere ez; hau da, ez dakit nolakotasun horietaz nik ditudan ideiak benetako zerbaiti dagozkien ala ez⁴³. Zeren oharrarazi badut lehenago bakarrik irizpenetan aurki daitezkeela faltsutasuna, benetakoa nahiz formala, hala ere, ideietan nolabaiteko faltsutasun materiala aurki daitezke, hots, ezer ez dena zerbait bailitzan adierazten dutenean. Adibidez, hotzaz eta beroaz ditudan ideiak benetan argitasun gutxikoak eta bereizezinak dira, hainbesteraino ezen ezin dudana euren bidez jakin ea hotza berotasun falta den ala berotasuna hotz falta den, ala biak benetako nolakotasunak diren, ala ez diren. Eta ideiak irudien antzekoak direnez⁴⁴, ezin da euren artean batere egon zerbait adierazten ez duena, eta horregatik

40 Frantsesez zera gaineratzen du: ou perfection

41 Frantsesez zera gaineratzen du: et en effet.

42 Frantsesez zera gaineratzen du: ou par représentation.

43 Frantsesez zera gaineratzen du: ou bien si elles ne me représentent que des êtres chimériques, qui ne peuvent exister.

44 Azken esalditxo hau frantsesezko testuan gaineratzen du: étant comme des images.

egia bada hotza berotasun falta dela, orduan hoztasun hori zerbait erreal eta positibo bezala adierazten duen ideia faltsutzat joko da arrazoiz, eta honek berdin-berdin balio du antzerako beste ideietarako ere.

Idea hauentzat ez dut zertan beste egilerik bilatu niregandik kanpo. Zeren faltsuak badira, hau da, ez diren gauzak adierazten badituzte, naturaren argiak jakinaraziko dit ezerezetik datozela, hau da, naturaren argiak jakinaraziko dit nire baitan baldin badaude honako arrazoi honegatik dela: nire naturari zerbait falta zaiolako eta ez delako guztiz perfektua. Eta ideia horiek egia badira ere, ez dakit zergatik ez diren izango nire ekoizpen, erakusten didaten errealitate maila eskasagatik ezin bereizi badut euren eta ez izatearen artean.

Gauza korporalei buruz ditudan ideia argi eta bereiziei dagokienez, iruditzen zait horietako batzuk nire buruaz dudan ideiatik ateratakoak izan daitezkeela, adibidez, substantziaren ideia, iraupenarena, zenbakiarena eta antzerako beste zenbait ideia. Harria substantzia dela pentsatzen dut, edo berez existi daitekeen zerbait dela, ni neu ere substantzia naizela pentsatzen dudalako. Honegatik ematen du biak bat datozela substantzia izate horretan, nahiz eta bi kontzeptuon arteko ezberdintasuna handia den; izan ere, nik nire burua zerbait pentsalaria eta ez hedatua bezala bururatzen dut, eta harria, alderantziz, zerbait hedatua eta ez pentsalaria bezala. Era berean, ni orain banaizela pentsatzen dudanean eta beste garai batean izan naizela gogoratzen dudanean, eta bururatzen dudanean zenbait pentsamendu, euren kopurua ezaguna zaidalarik, orduan iraupenaren eta zenbakiaren ideiak nireganatzen ditut, eta ondoren ideaok beste edozein gauzari atxiki diezazkieket.

Gauza korporalen ideiek osatzen duten gainerako nolakotasunei dagokienez, hala nola hedadura, irudia, kokapena eta leku aldaketa, egia da ez daudela formalki niregan, ni pentsatzen duen zerbait besterik ez naiz eta, baina ematen du nire baitan bai egon daitezkeela hastapenean, substantziaren moduak baitira⁴⁵, eta ni neu substantzia bat bainaiz.

Hau dela eta, Jainkoaren ideia besterik ez da geratzen aztertzeke, ea badagoen berarengan zerbait niregandik ezin dena etorri. Jainkoaren izenarekin nik zera ulertzen dut: substantzia amaigabea, betierekoa, aldaezina, burujabea, ezagutza gorenekoa, ahalguztiduna, bera nire eta existitzen diren gainerako gauza guztien (egia bada existitzen direla) sortzailea delarik. Alabaina hain handiak eta funtsezkoak dira ezaugarriok, ezen zenbat eta arreta handiagoz gogartu eurak, orduan eta gehiago konbentzitzen naizen ideia hori ezin dela atera niregandik bakarrik. Beraz, esan dudanetik ondorioztatu behar da Jainkoa existitzen dela. Zeren substantziaren ideia nire baitatik ateratzen badut, ni neu substantzia naizelako, ni mugatua naizenez ezingo dut izan substantzia amaigabearen ideia, baldin eta ez badu ideia hori ezarri nire baitan benetan amaigabea den substantzia batek.

Eta ez dut pentsatu behar ez dudarik atzematen amaigabea benetako ideia baten bidez, baizik eta amaikorren ukaziotik atzematen dudala (hots, gelditasuna eta iluntasuna higiduraren eta argitasunaren ukazioaren bidez atzematen dudan modu berean). Haatik, nik argi eta garbi baitakusat errealitate handiagoa aurkitzen dela substantzia amaigabearen substantzia amaikorrean baino, eta horregatik lehenago dago nolabait nire baitan amaigabearen nozioa amaikorrena baino, hau da, Jainkoaren nozioa nirea

⁴⁵ Frantsesez zera gaineratzen du: et comme les vêtements sous lesquels la substance corporelle nous paraît

baino. Nola liteke, bestela, nik jakin ahal izatea zalantzatan nagoela eta nahi dudala (hau da, nik zerbait faltan dudala eta ez naizela perfektua), ez badut nire baitan ni baino perfektuagoa den izaki baten ideia, zeinaren bidez nire naturaren akatsak ezagutuko ditudan bi naturak parekatuz.

Eta ezin esango da, agian, Jainkoaren ideia materialki faltsua dela, eta ondorioz ezerezetik etor dakidakeela⁴⁶, lehenago berotasunaren eta hotzaren ideiez, eta antzerakoez, esan dudana legez. Zeren, ostera, ideia hau oso argia eta oso bereizia denez, eta bere baitan beste edozein ideiak baino errealitate objektibo handiagoa duenez, ez baita egongo beste ideiarik bera baino egiazkoagoa izango denik, eta faltsua izatearen susmotik urrutiago egongo denik.

Nik diot izaki subirano, perfektu eta amaigabe honen ideia guztiz egiazkoa dela. Zeren suposa daitekeen arren halako izaki bat existituko ez dela, ezin suposatu baita bere ideiak ez duenik benetako ezer adierazten, nik hotzari buruz esan dudana legez.

Idea hori, gainera, oso argia eta oso bereizia da, zeren bertan biltzen baita egiaz eta errealitateaz argiro eta bereizirik bururatzen dudana guztia, bere baitan nolabaiteko perfekzioa biltzen duen guztia, alegia.

Eta honek egia izaten jarraituko luke amaigabetasuna ulertuko ez banu ere, edo Jainkoarengan aurkituko balira ere niretzat ulertezinak eta pentsamenduarekin ezin nireganatu ditudan kontaezineko gauza pila. Izan ere, amaigabetasunaren naturari dagokio nik bera ezin ulertze hori, nire natura amaikorra eta mugatua baita. Eta Jainkoaz dudana ideia niregan daudenetatik egiazkoena, argiena eta bereiziena izan dadin, nahikoa da nik hori ondo uler dezadan, eta iritz diezaiodan Jainkoarengan formalki edo hastapenean direla nik argiro bururatzen ditudan (eta perfekzioaren bat badutela dakidan) gauza guztiak, eta ezagutzen ez ditudan beste ezin konta ahala gauza ere.

Baina baliteke, halaber, ni izatea nire buruaz uste dudana baino zerbait gehiago, eta Jainkoaren naturari atxiki dizkiodan perfekzio guztiak niregan egotea gaitasunean nola edo hala, nahiz eta eurak oraindik ez gauzatu eta ekintzetan ez agertu. Izan ere, konturatu naiz nire ezagutza pittinka-pittinka handiagotzen⁴⁷ dela, eta ez dakusat zerk eragotz dezakeen bera gero eta handiagotzen joan dadin amaigaberaino. Ondoren, ez dakusat zer eragozpen egon daitekeen ni Jainkoaren perfekzio guztiez jabe nadin nire ezagutzaren handiagotze horren bidez. Eta azkenik, badirudi perfekzio horiek nireganatzeko dudana indarrak, niregan badago, perfekzio horiei dagozkien ideiak sortzeko gauza izan behar duela. Hala ere, pixka bat hurbilagotik begiratu gero, jabetzen naiz hori ezinezkoa dena, zeren, hasteko, egia balitz nire ezagupena egunero handiagotzen dela mailaka⁴⁸, eta niregan gauza ugari daudela gaitasunean oraineratuak ez daudenak, hala ere, hau guztia ez litzaioke egokituko, inolaz ere, nik Jainkoaz dudana ideiarik, honetan ez dago eta ezer gaitasun hutsean, dena oraineratua dago ordea⁴⁹. Eta nire ezagutza mailaka handiagotze hori ez al da izango bere inperfekzioaren aldeko argudio ziurra? Gainera, nire ezagutza geroago eta handiagoa izanda ere, ez da sekula amaigabea izango; izan ere, ahalbait eta mailarik gorenenera heldu arren, beti lortu ahal izango du maila gorenagoa. Baina Jainkoa, ostera, aktuz amaigabetzat dut hain maila

⁴⁶ Frantsesez zera gaineratzen du: c'est-a-dire qu'elle peut être en moi pour ce qui j'ai du défaut.

⁴⁷ Frantsesez zera gaineratzen du: et se perfectionne.

⁴⁸ Latinez: cognitionem meam gradatim augeri dio; frantsesez, berriz: ma connaissance acquit tous les jours de nouveaux degrés de perfection dioelarik.

⁴⁹ Azken hau frantsesez gaineratutakoa da: mais tout y est actuellement et en effect.

handian, ezen ezin gaineratu zaion ezer bere perfekzio gorenari. Eta azkenik, argi eta garbi ulertzen dut ideia baten izate objektiboa ezin dela sortu bakarrik gaitasunean existitzen den izaki batetik; izan ere, hau ez baita ezer izango, egitez edo formaz den izaki batetik sortu behar baita.

Eta esan berria dudan horretan ez dut, egiatan, ezer ikusten gai horretaz arretaz pentsatzen duenak oso erraz ezagutuko ez duena naturaren argiaren bidez. Baina nire arreta moteltzen denean eta nire adimena gauza sentigarrien irudiekin itsutzen denean, ez zait erraza egiten gogoratzea zer dela eta etorri behar zaidan ni baino perfektuagoa den izaki baten ideia, derrigorrez, benetan ni baino perfektuagoa den izaki batetik.

Horregatik aurrera jarraituko dut eta aztertuko dut ea ni, Jainkoaren ideia hori duena, zerbait izango ote nintzatekeen Jainkoa existituko ez balitz.

Eta nik zera galdegingo dut: nondik ote dut nik nire existentzia bestela? Niregandik etorriko ote zait? Nire gurasoengandik? Ala Jainkoa baino perfekzio gutxiagoko zerbaitetik? Izan ere, ezin baita ezer irudikatu Jainkoa baino perfektuagoa denik, ezta bera bezain perfektua ere.

Alabaina, ni guztiz nire buruaren jabe banintz eta ni neu banintz nire izatearen sortzailea, ez nuke nik ezertaz zalantzarik egingo, ez nuke nahirik izango, eta ez nuke batere perfekzioaren faltarik izango. Zeren nik edozein perfekzioaren ideia izanda, perfekzio hori emango nioke nire buruari, eta horrela Jainkoa nintzateke.

Eta ez dut uste falta ditudan gauzak baditudanak baino zailagoak direnik eskuratzeko; haatik, egia-egia baita askoz ere zailagoa dela ni (hau da, pentsatzen duen substantzia) ezerezetik sortzea, ezagutzen ez ditudan zenbait gauzaren ezagutza eskuratzeta baino, substantzia horren akzidente diren zenbait gauzaren ezagutza nireganatzea baino, alegia. Eta horrela, nire buruari emango banio aipatu dudan beste perfekzio hori, hau da, ni neu banintz nire jaiotzaren eta nire existentziaren sortzailea, ez nituzke faltan izango eskuratzeko errazagoak diren gauzak, hots, nire naturak falta dituen zenbait ezagupen, eta ez nuke faltan izango Jainkoaren ideian bilduta dagoen ezer, nire ustez ez baitago ezer eskuratzeko zailagoa existentzia baino. Eta izango balitz zerbait eskuratzeko zailagoa izango litzatekeena (eta suposatzen badut ditudan gainerako ideia guztiak nirez ditudala), zailtasun horren arrazoia nire ahalmenen agorketan aurkituko nuke⁵⁰.

Eta suposa dezakedan arren beti orain naizen modukoa izan naizela, ezin saihestuko nuke, hala ere, argudio honen indarra, eta onartu beharko nuke Jainkoa dela nire existentziaren sortzailea. Izan ere, nire bizitzaren denbora osoa amaigaberaino zati baitaiteke, eta denboraren zati bakoitza ez da beste zatien menpeko izango inolaz ere; eta honegatik, ni lehenago existitu banaiz, ez da hortik ateratzen nik orain existitu behar dudala, baldin eta ez badago une honetantxe sortzen nauen, hau da, iraunarazten didan, kausa bat.

Denboraren naturari arretaz so egiten diotenezat nahikoa gauza nabarmena⁵¹ da honakoa: indar eta ekintza berdina behar direla bai lehenago existitu ez den substantzia berri bat sortzeko, bai substantzia baten iraupenari eusteko berak irauten duen denbora guztian. Honela naturaren argitasunak ikustarazten digu iraupenaren eta sorketaren arteko bereizketa arrazoimenezkoa baino ez dela. Beraz, nahikoa da nire buruari

⁵⁰ Frantsesez zera gaineratzen du: et ne serait nas capable d'y arriver.

⁵¹ Frantsesez: bien claire et bien évidente, latinez: perspicuum.

galdegitea jakin nahi badut ea badagoen niregan gaitasunen bat bermatuko duena ni orain naizen gauza bera izan nadin etorkizunean ere. Izan ere, pentsatzen duen zerbait besterik ez banaiz -edo orain arte nire izatearen zati honetaz baino ez badut jardun egin-, eta gaitasun hori nire baitan badatza, horretaz jabetuta egon beharko nuke, baina nik ez dut niregan horrelakorik igartzen, eta honen ondorioz ezagutzen dut nitaz ezberdina den zerbaiten menpeko naizela.

Baliteke, halaber, izaki hori⁵² ez izatea Jainko deritzodana, eta ni nire gurasoen emaitza izatea, edo Jainko hori baino perfekzio gutxiagodun kausa baten emaitza bestela. Baina ez, hori ezin da honela izan. Lehenago esan dudan legez, nabarmena da kausan ondorioan adinako errealitate maila egon behar duela gutxienez. Beraz, pentsatzen duen gauza bat naizenez, eta nire baitan Jainkoaren ideia dudanez, nire naturaren kausak ere, edozein gauza dela bera, gauza pentsatzailea izan behar du eta berarengan bildu behar ditu Jainkoari atxikitzen dizkiodan perfekzio guztien ideiak. Ondoren, iker dezakegu berriro ea kausa honi existentzia berezkoa zaion ala beste zerbaitetik datorkion. Zeren berezkoa bazaio ondorioztatzen baita -lehenago eman ditudan arrazoiengatik- berak Jainkoa izan behar duela. Izan ere, berez existitzeko gaitasuna badauka, era berean, perfekzio baten ideia duen kasu guzti-guztietan izango du gauzatuta berak perfekzio hori, hau da, Jainkoarengan daudela bururatzen dudan perfekzio guztiak izango ditu gauzatuta. Eta bere existentzia bera ez den beste zerbaitetik badatorkio, arrazoi berarengatik galdegingo da berriro bigarren kausa honetaz ea berez existitzen den ala beste zerbaitetik datorkion existentzia, honela mailaka azken kausa batera iritsiko garelarik, Jainkoa izango dena. Eta nabarmena da ezin dela honetan amaigaberaino jo, bereziki kontutan izanda ez dihardudala ni beste garai batean sortu ninduen kausaz, baizik eta orainean irauarazten didanaz.

Gainera, ezin da suposatu agian kausa anitz ezberdinek jokatu dutela batera ni sortzeko, eta kausa batetik jaso dudala Jainkoari atxiki diodan perfekzio baten ideia eta beste kausa batetik beste batena, eta perfekzio hauek guztiak unibertso leku bakar batean egongo direla elkaturik seguru, baina ez Jainkoa izango litzatekeen leku bakar batean. Zeren, haatik, Jainkoarengan eman daitekeen perfektiorik nagusienetako bezala zera bururatzen baitut: berarengan ematen diren gauza guztien batasuna, bakuntasuna edo banaezintasuna. Eta Jainkoaren perfekzio guztien batasunaren ideia kausa batek ezarriko badit, derrigorrean, beste perfekzio guztien ideiak ere kausa horretatik jaso beharko ditut. Zeren ezin ulertaraziko dizkit denak batera eta banaezinak bezala, aldi berean jakinarazi gabe zer diren eta zeintzuk diren.

Nire gurasoei dagokienez⁵³, euri buruz sinetsi dudan guztia egia balitz ere, horrek ez du esan nahi eurek irauarazten didatenik, ezta eurek sortu nautenik ere gauza pentsatzaile naizen neurrian; eurek egin duten gauza bakarra zera izan da: ni -hau da, nire adimena, orain nitzat hartzen dudana- biltzen nauen materia taxutu egin dute, eta, beraz, nire gurasoei dagokienez ezin egon daiteke inolako zailtasunik. Baina ni existitzen banaiz eta nire baitan izaki goren baten ideia (hau da, Jainkoaren ideia) badago, orduan, Jainkoaren existentzia ebidentzia osoz frogatuta egongo da.

Nola jaso dudan Jainkoaren ideia hori da aztertzeko geratzen zaidan gauza bakarra. Ez dut sentipenetatik jaso, ez zait ustekabean agertzen, gauza sentigarrien ideiek sarritan

⁵² Frantsesez zera gaineratzen du: *duquel je dépends*.

⁵³ Frantsesez zera gaineratzen du: *desquels il me semble que je tire ma naissance*.

egiten duten bezala nire sentimenen kanpoko organoei agertzen zaizkienean (edo agertze antza egiten dutenean) bezala. Ez da, ezta ere, nire adimenaren fikzioa, ez baitago nire esku berari ezer kentzea edo gaineratzea. Eta ondorioz esan dezakedan gauza bakarra da ideia hori jaiotzetikoa dudala, niaren ideia jaiotzetikoa dudan bezalaxe.

Eta ez da harriztekoa izango Jainkoak, ni sortzean, ideia hori niregan ezar zezan, langileak bere lanean inprimatzen duen bere ikurra bailitzan. Eta ikur honek ez du izan behar lan horretaz ezberdina. Baina Jainkoak sortu nauenez, sinesgarria da berak bere irudira edo antzera sortu nauela nola edo hala, eta sinestekoa da, halaber, nik antz hori (Jainkoaren ideia biltzen duena) burura dezadan nia bururatzen dudan ahalmen berdinez. Alegia, nire buruaz gogoeta egiten dudanean ezagutzen dut ni imperfektua, osagabea eta beste zerbaiten menpeko naizela, eta ni naizena baino zerbait handiagoa eta hobea irrikatzen dudala, baina hori ez ezik, ezagutzen dut, aldi berean, nire gaintik dagoenak nik irrikatzen ditudan⁵⁴ gauza handi horiek badituela, ez bakarrik zehaztugabe eta gaitasunean, baizik eta zertuta, oraineratuak eta amaigabeki, eta, ondorioz, berak Jainkoa izan behar du. Eta Jainkoaren existentzia frogatzeko erabili dudan argudioaren indarra zeran datza: aitortzen dudala ezinezkoa izango litzatekeela ni naizen modukoa izatea eta Jainkoaren ideia izatea, Jainkoa benetan existituko ez balitz. Eta Jainko hau nik dudan Jainkoaren ideiarekin bat dator, berak perfekzio horiek guztiak ditu -nik ulertzen ez ditudanak, baina pentsamenduarekin niregana ditzakedanak-, ez du akatsik, eta ez du imperfekzioen baten seinale izan daitezkeen ezer.

Naturaren argiak irakasten digunez iruzurra akats batetik datorrela, nahikoa garbi dago, orduan, bera ezin dela izan engainatzailea.

Baina, hau arretaz aztertu aurretik, eta hortik atera daitezkeen beste egia batzuk kontutan hartu aurretik, oso gogokoa iruditzen zait guztiz perfektua den Jainkoaren kontenplazioan gelditzea apur batean, bere ezaugarri zoragarriak soseguz aztertzea, argitasun itzel horren edertasun paregabea mirestea eta jaurestea, gutxienez nire gogoaren indarrak, nolabait itsututa dirauenak, uzten didan artean.

Zeren, fedeak irakasten digunez beste bizitzako zoriontasun gorena Jainkoaren maiestatearen kontenplazioan datzala eta ez beste ezertan, horrelako meditazio batekin -askoz ere perfekzio gutxiagoduna den batekin alegia- esperimintatzen baitugu bizitza honetan igar dezakegun asetasun handienaz gozatzen dugula.

LAUGARREN MEDITAZIOA

Egiaz eta faltsuaz

Aurreko egunotan nire adimena sentimenetatik bereiztera ohitu naiz, eta ohartu naiz zehaztasun handiz gorputzezko gauzei buruz ondo gauza gutxi ezagutu daitezkeela ziurtasunez, eta gauza korporalei buruz baino askoz gauza gehiago ezagutzen dugula giza adimenari buruz, eta gehiago oraindik Jainkoari berari buruz. Horregatik guztiagatik

⁵⁴ Frantsesez zera gaineratzen du: et dont je trouve en moi les idées.

ez dut batere zailtasunik izango nire pentsamendua urruntzeko gai sentigarrietatik edo irudien bidez bururatzen ditudan gaietatik⁵⁵, materiatic erabat bananduta dauden gaietara zuzentzeko, adigarri hutsak diren gaietara, alegia.

Eta egiatan, giza adimenari buruz dudana ideia -zeina pentsatzen duen gauza bezala bururatzen dudana, hedaturarik ez duena ez luzeeran, ez zabaleran eta ezta sakoneran ere- gauza korporalez dudana ideia baino askoz ere bereziagoa da, ezin dira parekatu. Eta zalantzak egiten ditudala uste dudanez, hau da, osagabea eta menpekota naizela deritzodanez, izaki oso eta burujabe baten ideia, hau da, Jainkoarena, guztiz bereizirik eta argiro agertzen zait nire adimenean. Ideia hori nire baitan dago edo ni, ideia horien jabea, existitzen naiz, eta hortik ondorioztatzen dut Jainkoaren existentzia eta ondorioztatzen dut, halaber, nire existentzia nire bizitzaren momentu guztietan beraren menpekota dela; eta hain ebidente agertzen zaizkit ondoriook, ezen ez dudana uste giza gogoak ezagutu ahal izango duenik ezer modu ebidenteagoan ezta seguruagoan ere. Eta honela iruditzen zait bide bat aurkitu dudala zuzenduko gaituena benetako Jainkoaren (zientziaren eta jakituriaren altxor guztiak biltzen dituen) kontenplaziotik unibertsoa beste gauzen ezagupenera.

Zeren, lehenik, ezagutzen dut ezinezkoa dela berak ni engainatzea, iruzur eta amarrukeria ororen baitan nolabaiteko inperfekzioa dago eta. Eta iruzur egiteko gaitasunak zolitasunaren edo indarraren seinalea dela ematen duen arren, hala ere, inor nahasteko nahiak ahultasun eta maltzurkeria lekukotzen du. Eta, beraz, hau ezin da Jainkoarengan aurkitu.

Eta, gainera, juzgatzeko gaitasuna igartzen dut nire artean, bera zalantzarik gabe Jainkoarengandik jaso dudalarik, nik ditudan gainerako gauza guztiak bezala. Eta Jainkoak ni nahastea nahi ez duenez, orduan seguru da ez didala emango ahalmen bat huts egitera eramango nauena, bera behar den moduan erabiltzen badut. Eta ez litzateke egia honetaz inolako zalantzarik egongo, aterako ez balitz ondorio bezala (hala iruditzen zait niri) ni ezin naizela nahastu. Izan ere, nik dudana guztia Jainkoarengandik jaso badut, eta eman ez badit huts egiteko ahalmena, badirudi ezingo nukeela inoiz nire burua nahastu. Eta egiatan, Jainkoarengan bakarrik pentsatzen dudanean⁵⁶, ez dut aurkitzen niregan ez erruaren ez faltsutasunaren kausarik; baina nire baitara itzultzean jabetzen naiz esperientziaren bidez ezin konta ahala erruei makurtuta nagoela, eta euren kausa hurbilagotik bilatzean konturatzen naiz Jainkoaren benetako ideia positiboaz gain, edo erabat perfektua den izakiaren ideiaz gain, nire pentsamenduan agertzen zaidala, nolabait esateagatik, ezerezaren ideia negatiboa, hau da, edozein motatako perfekzioetik erabat urrunduta dagoen zeraren ideia. Eta konturatzen naiz, era berean, ni Jainkoaren eta ezerezaren bitartean nagoela, hau da, izaki gorenaren eta ezerezaren artean kokatua, honela izaki gorenak sortu nauen neurrian ez litzateke ezer egongo errura eramanez nazakeenik, baina ezerezaren edo ez izatearen partaide naizen neurrian (hau da, ni neu izaki gorena ez naizen neurrian) orduan gauza askoren faltan egongo naiz, eta niretzat ez du harritzekoa izan beharko huts egiten badut.

Horrela konturatzen naiz errua, berez, ez dela Jainkoaren menpeko den benetako gauza, baizik eta akatsa dela; eta, hortara, huts egiteko ez dudala gaitasun baten premiarik, Jainkoak hain zuzen horretarako emanikoa, baizik eta nire huts egitea sortzen dela egia

⁵⁵ Latinez: a rebus imaginabilibus; frantsesez: choses sensibles ou imaginables.

⁵⁶ Latinez frantsesera itzuli gabeko zatia dator: totusque in eum me converto.

eta faltsuaren artean bereizteko gaitasuna (Jainkoak eman didana) amaigabea ez delako.

Hala ere honek ez nau asetzen oraindik, errua ez baita ukazio hutsa⁵⁷, baizik eta niregan egon beharko lukeen ezagutza baten gabezia. Eta Jainkoaren natura kontutan izanda ez zait iruditzen litekeena denik berak niri eman diezadan inperfektua izango den ahalmen bat, hau da, dagokion perfekzioaren bat faltako duen ahalmena. Zenbait eta artetsuagoa artisaua, orduan eta perfektuagoa berak sortzen duen gaia; hau egia bada, ez al da egia izango sortzaile goren honek sortu duen edozein lan bere zati guztietan perfektua izango dela? Eta ez da zalantzarria Jainkoak sor nintzakeela sekula hutsik egingo ez nuen zerbaiten gisara, eta egia da, halaber, berak beti onena nahi duela; izango al da, orduan, hobe huts egitea hutsik ez egitea baino?

Honi arreta gehiago jarriz burura etortzen zait ez naizela harritu behar nire adimenak ezin duelako ulertu zergatik egiten duen Jainkoak egiten duena; izan ere, esperientziaren bidez zenbait gauza ikusten dut ulertu gabe zergatik edo nola sortu dituen Jainkoak, baina ez nuke horregatik beraren existentziaz zalantzarrik egin beharko. Zeren badakidan arren nire natura ahula eta mugatua dela, eta Jainkoarena, haatik, neurrigabea, ulertezina eta amaigabea, aitortzen dut eragozpenik gabe badirela ezin konta ahala gauza Jainkoaren gaitasunean, zeintzuen kausak ezagutzen ez ditudan. Eta arrazoi bakar hau nahikoa da ni konbentzitzeko xedezko kausa hauek guztiek ez dutela ezertarako balio gauza fisikoei dagokienez, ausartegia iruditzen baitzait pentsatzea Jainkoaren xedeak aurkitu ahal izango ditudanik.

Jainkoaren lanak perfektuak ote diren ikertu nahi dudanean iruditzen zait ez dudala kontutan hartu behar sorkari banandu bat bakarrik, sorkari guztiak euren osotasunean baino. Izan ere, gauza batek, erabat bananduta dagoenean, oso inperfektua eman dezake, baina unibertso osoaren zati bezala begiratzen bazaio guztiz perfektu bezala ikusiko da. Eta gauza guztiez zalantza egin nahi izan dudanean ziurtasunez ezagutu dudana gauza bakarra nire eta Jainkoaren existentzia izan bada, hala ere, Jainkoaren gaitasun amaigabea ezagutu eta gero, ezin ukatuko dut berak gauza asko sortu dituela edo sor ditzakeela, eta horrela ni munduko zati izango naiz, unibertsoko izaki guztien artean.

Ondoren, nire burua hurbilagotik begiratuta eta nire erruak kontutan harturik (hauek lekukotzen dutelarik niregan inperfekzioa badagoela), jabetzen naiz nire erru horiek bi kausaren ondorio direla, hots, niregan dagoen ezagutzeko gaitasunarena eta aukeratzeko gaitasunarena edo hautamen askearena, hau da, nire adimenarena eta nire borondatearena. Adimen hutsarekin⁵⁸ baieztatu edo uka ditzakedan gauzen ideiak bururatzen ditut bakarrik. Alabaina, errua hitza bere zentzu propioan ulertzen bada, ezin da esan, orduan, errua aurki daitekeenik bere baitan. Eta ezin konta ahala gauza egon daitekeen arren munduan nire adimenak eurei dagokien ideiarik izan gabe⁵⁹, ezin da esan bera ideia horien faltan dagoenik bere naturagatik, esaten dugun gauza bakarra da ideia horiek ez dituela. Izan ere, ez dago batere arrazoirik frogatuko duena Jainkoak eman didan ezagutzeko ahalmena baino handiagoa eman behar zidanik. Eta honegatik ez dut pentsatu behar berak ipini behar zuenik bere lan bakoitzean lan batzuetan jar

⁵⁷ Frantsesez zera gaineratzen du: *c'est-à-dire, n'est pas le simple défaut ou manquement de quelque perfection qui ne m'est point due.*

⁵⁸ Frantsesez zera gaineratzen du: *je n'assume ni ne nie aucune chose, mais.*

⁵⁹ Frantsez zera gaineratzen du: *en mon entendement.*

zitzakeen perfekzio guztiak. Eta ez naiz arranguratu behar Jainkoak ez didalako eman hautamen askea, edo borondate nahikoa zabala eta perfektua, izan ere, nire borondateak mugarik ez duela somatzen dut eta. Eta nabarmengarria iruditzen zaidana zera da: nire baitan dauden gainerako gauza guztien artetik ez dagoela ezta bakarra ere (bere perfekzioa eta bere hedadura kontutan izanez gero) ezin dena izan oraindik handiagoa eta perfektuagoa. Adibidez, nire baitan dagoen adimena hartzen badut kontutan ohartzen naiz oso hedadura txikikoa eta oso mugatua dela, eta berehala bururatzen dut beste ahalmen baten ideia, askoz ere zabalagoa eta amaigabea, eta ideia hau irudikatzen ezagutzen dut zailtasunik gabe Jainkoari dagokiola bera. Era berean, oroimena, irudimena edo beste edozein gaitasun aztertzen badut, ez dut aurkitzen ezta bakarra ere niregan oso mugatua eta txikia eta Jainkoarengan neurrigabea eta amaigabea izango ez dena. Bakarrik borondateari, edo hautamen askeari, dagokionean somatzen dut ez dela beste ideiarik bera baino zabalagoa izango dena, eta nagusiki borondate honek ezagutaraziko dit niregan daramadala Jainkoaren irudia eta antza. Jainkoarengan niregan baino askoz ere handiagoa da, ez dago parekatzerik -bai berarekin lotuta dauden ezagutzak eta gaitasunak irmoagoa eta eraginkorragoa bihurtzen dutelako, bai, gaiaren aldetik, askoz gauza gehiagotara zabaltzen delako-, baina, hala ere, formalki eta zehaztasunez hartzen badut kontutan ez zait handiagoa iruditzen. Borondatearen mamia da zerbait egin ala ez aukeratzeko ahalmena (hau da, zerbait baieztatu edo ukatu, aurrera egin edo saihesteko ahalmena); edo, beste era batera esanda, borondatearen oinarria zera da: gure jardutean guk ez dugula igartzen inolako kanpoko indarririk mugak jarriko dizkigunik adimenak proposatzen dizkigun gauzak baieztatzean edo ukatzean, aurrera egitean edo saihestean. Zeren ni askea izan nadin ez baita beharrezkoa aurkako bi aukeren aurrean ni ezaxola izatea, haatik, zenbat eta joera handiagoa dudana bataren alde -bai ezagutzen dudalako ona eta egia biltzen duela, bai Jainkoak nire pentsamenduaren baitan ezarri duelako- orduan eta askatasun handiagoarekin aukeratuko dut bera. Eta Jainkozko dohainak eta naturaren ezagutzak ez dute nire askatasuna murrizten, handitu eta indartu egiten dute ordea. Honela, bi aukeretatik bata, eta ez bestea, hartzera bultzatuko nauen arrazoiren bat aurkitzen ez dudanean igartzen dudana ezaxolatasun hori askatasunaren mailarik txikiena izango da, eta gehiago ematen du ezagupenaren akatsa borondatearen perfekzioa baino. Izan ere, argiro ezagutuko banu beti zer den egia eta ona, ez nuke hausnarketa egin beharko erabakitzeke zein irizpen edo zein aukera egin beharko nukeen, eta horrela erabat aske izango nintzateke, ezaxola izan gabe sekula.

Honetatik guztitik jabetzen naiz nire erruen jatorria ez dela nahi izateko gaitasuna, Jainkoarengandik jaso dudana, oso zabala eta bere motan oso perfektua da eta, eta ezta ulertzeko gaitasuna ere, zeren guztia Jainkoak eman didan gaitasun horren bidez bururatzen dudanez, bururatzen dudana guztia, zalantzarik gabe, behar den moduan bururatzen dut, eta ezin dut errurik egin. Non jaiotzen dira, orduan, nire erruak? Hara hor: nahimena adimena baino askoz ere zabalagoa denez, ez dut bera honen muga berdinetan mantentzen, eta ulertzen ez ditudan gauzetara zabaltzen dut, nahiz eta hauei buruz ni ezaxola izan; honela nahimena oso erraz okertzen da, eta onaren lekuan gaitza aukeratzen du eta egiaren lekuan faltsutasuna. Eta hemen, eta ez beste inon, jaiotzen dira nire erruak eta bekatuak.

Adibidez, aurreko egunetan aztertu dut ea existitzen den zerbait mundu honetan, eta konturatu naiz gai hori aztertze hutsetik ondorioztatzen dela txit ebidente ni existitzen

naizela; eta hau kontutan izanik hain argiro agertzen zaidanari egia dela iritzi beharko nioke derrigorrean, ez kanpoko kausa batek behartuko nindukeelako, baizik eta nire adimenean eragiten duen argitasun handi batetik nire borondatearen baitan joera handia atera delako. Eta zenbat eta axolagabetasun txikiagoa, orduan eta askatasun handiagoarekin sinetsiko dut hau. Haatik, pentsatzen duen zerbait naizen neurrian ezagutzen dut ni existitzen naizela, baina horretaz gain, gorputzezko naturaz ideia bat agerikoa egingo zait halaber, eta honen ondorioz zalantza egingo dut ea pentsatzen duen natura hori -niregan dagoena edo, hobe esanda, ni neu egiten nauena- eta gorputzezko natura ezberdinak izango ote diren ala biak gauza berdina izango ote diren. Eta hemen suposatzen dut ez zaidala arrazoirik etortzen burura bat az bestiaz konbentzituko nauena, eta horregatik ondorioztatzen dut guztiz berdina zaidala bata ala bestea ukatu ala baieztatu, edo irizpenik ez eman.

Eta axolagabetasun hau ez da bakarrik zabaltzen adimenarentzat guztiz ezezagunak diren gauzetara. Zabaltzen da, oro har, borondateak zerbaiti buruz hausnarketa egiten duen bakoitzean, adimenari argitasun osoarekin agertzen ez zaizkion gauza guztietara. Zeren, zerbaiti buruz iritzi jakin bat izatera bultzatzen nauten aieruak oso gertakorrak izan arren, aieruak direla -eta ez arrazoi ziurrak eta zalantzarik gabekoak- jakitea nahikoa baita nik horren aurkako iritzia eman ahal izateko. Eta hau nahikoa esperimendu dut aurreko egunotan, faltsutzat jo dudanean aurretik oso egiazkotzat nuena berataz zalantzarako aukeraren bat zegoela somatu bezain laister.

Alabaina, irizpenik ematen ez badut zerbait nahikoa argitasunez eta bereizitasunez bururatzen ez dudanean, orduan zuzen jokatuko dut eta ez dut hutsik egingo, eta, ostera, gauza hori ukatzen edo baieztatzen badut, ez dut erabiltzen nire hautamen askea behar den moduan. Izan ere, egia ez dena baieztatzen badut, garbi dago oker egongo naizela, eta egia dena baieztatzen badut, hau halabeharrez gertatuko da eta hemen ere nire hautamen askea gaizki erabilia izango da, naturaren argitasunak irakasten digulako adimenaren ezagutza nahimenaren erabakiaren aurretik dagoela. Eta hautamen askearen erabilera oker honetan datza erruaren forma den gabezia. Gabezia, nire iritzi, ekintzan datza, ekintza hori niregandik datorren neurrian, eta ez da aurkitzen Jainkoarengandik jaso dudana gaitasunean, eta ezta ekintzan ere bera Jainkoaren menpeko den neurrian. Izan ere, ez dut motiborik kexatzeko Jainkoak ez didalako eman adimen handiagoa edo berarengandik jaso dudana baino naturazko argitasun handiagoa; adimen mugatu bati baitagokio ezin konta ahala gauza ez ulertzea, eta sortutako adimen bati dagokio mugatua izatea. Baina berari eskerrak eman beharrean nago ditudan perfekzio bakarrak eman dizkidalako, nahiz eta ez zuen berak hori egiteko inolako premiarik. Eta ez nituzke bidegabeko sentimenduak bururatu beharko pentsatuz eman ez dizkidan gainerako perfekzioak ukatu egin dizkidala arrazoirik gabe.

Era berean, ez dut motiborik kexatzeko Jainkoak eman didan nahimena adimena baino zabalagoa izateagatik. Izan ere nahimena bat eta bakarra da eta beraren oinarria zatiezina da, honegatik ematen du ezin zaiola ezer kendu bera deuseztatuz gabe. Eta benetan, zenbat eta handiagoa izan nahimen hau orduan eta esker hobekoa izan beharko dut bera eman didanarekin.

Eta azkenik, ez dut motiborik kexatzeko Jainkoak nirekin batera moldatzen dituelako nahimen honen ekintzak, esaterako iritzi okerra ematen dudanean, ekintzaok guztiz egiazkoak eta onak baitira Jainkoaren menpeko diren neurrian, eta, nolabait, ni perfektuagoa naiz horiek era baditzaket, era ezin baditzaket baino. Gabeziak, erruaren

eta pekatuaren arrazoi formala denak, ez du Jainkoaren partehartzearen premiarik, ez baita gauza bat edo izaki bat; eta Jainkoari atxikitzen bazaio gabezia horren kausa, ez dugu esan behar gabezia dela, ukazioa baino⁶⁰.

Izan ere, ez baita Jainkoaren inperfekzioa berak niri eman diezadala zerbaiti buruz iritzi emateko askatasuna -edo ez ematekoa- ezarri ez duenean nire adimenean zerbait horri buruzko ezagutza argi eta bereizia. Alabaina, nire inperfekzioa izango da askatasun hori zuzen ez erabiltzea eta era nahasian bururatzen dudana nire iritzia ematea.

Konturatzen naiz, dena dela, Jainkoarentzat erraza izango zatekeela ni askea eta ezagutza mugatuarekin sortzea, eta, era batera, ni taxutzea sekula hutsik egingo ez zukeen zerbaiten gisara. Adibidez, nire adimenari noizbait erabaki beharko nituzkeen gauza guztiei buruz ulerpen argi eta bereizia eman ahal izango ziokeen, edo, bestela, nire oroimenean inprimatu ahal izango zukeen sakonki -sekula ez ahazteko moduan- honako erabakia: ez nuela inolako iritzirik emango argiro eta bereizirik ulertuko ez nuenari buruz. Eta nire burua bakarka hartzen badut kontutan -munduan besterik ezer ez bailitzan- erraz ohartzen naiz orain naizena baino askoz ere perfektuagoa izango nintzatekeela, baldin eta Jainkoak sortu izan banindu hutsik egingo ez zukeen zerbaiten gisara. Alabaina, nolabaiteko perfekzio handiagoa egongo da unibertso osoan beraren zati batzuek erruak izan baditzakete eta beste batzuek ez, denak antzekoak badira baino, eta hau ezin dut nik ukatu. Eta ez dut nik motiborik kexatzeko, Jainkoak mundu honetan jarri nauenean ez banau jarri nahi izan gauzarik perfektuenera eta nobleenera mailan. Gainera, niretzat poztekoa da ez didala eman hutsik ez egiteko gaitasuna aipatu dudana lehen baliabide horren bidez (hots, noizbait erabaki beharko nukeen gauza guztiei buruz ezagupen argi eta bereizia eskainiz) eta nire esku utzi duela bigarrenari sendo eustea (hots, iritzirik ez emateari argiro eta bereizirik ezagutzen ez nuenaz). Izan ere, nire naturan honako ahulezia hau igartzen dut: hots, ezin dudala nire adimenean eten gabe pentsamendu bera atxiki, baina, hala ere, azken pentsamendu hori nire oroimenean sendo inprima dezaket meditazio arretatsu eta errepikatu baten bidez, eta honela lor dezaket hutsik ez egiteko ohitura.

Eta hutsik ez egitean datzanez gizakiaren perfekziorik nagusiena eta lehena, uste dut meditazio honetan asko irabazi dudala faltsutasunen eta erruen kausa aurkituz.

Eta, benetan, erruaren kausa ezin da izan azaldu dudana baino. Zeren ezin baitut hutsik egin nire nahimena⁶¹ murriztuz eta iritzia emanaz bakarrik adimenean argiro eta bereizirik agertzen zaidanari buruz. Izan ere, buruera argi eta bereizi oro benetako zerbait da, zalantzarik gabe, eta, beraz, ezin da ezerezetik etorri, baizik eta Jainkoak izan behar du derrigorrean bere sortzailea, eta Jainkoa erabat perfektua denez ezin da inolako erruren kausa izan, eta ondorioz buruera hori egiazkoa izango da.

Gaur ikasi dut, beraz, zer saihestu behar dudana hutsik ez egiteko, baina ikasi dut, halaber, zer egin behar dudana egiara heltzeko. Iritsiko naiz egiara nahikoa arreta jartzen badut modu perfektuan bururatzen ditudan gauza guztietan eta banantzen baditut nahasirik eta ilun bururatzen ditudan gauzez. Eta hemendik aurrera kontu izango dut honekin.

⁶⁰ Frantsesez zera gaineratzen du: selon la signification qu'on donne à ces mots dans l'École.

⁶¹ Frantsesez zera gaineratzen du: dans les bornes de ma connaissance.

BOSGARREN MEDITAZIOA

Gai materialen zerizanaz; eta Jainkoaren existentziaz atzera

Zer aztertu ugari geratzen zait Jainkoaren ezaugarriei dagokienez eta baita nire naturari edo adimenari dagokionez ere, baina beharbada beste aldi batean ekingo diot ikerketa horri. Orain (egiaren ezagutzara heltzeko zer egin behar den edo zer saihestu behar den oharrarazi eta gero) nire eginbehar nagusia izango da aurreko egunetan sortu zaizkidan zalantza guztiak baztertzea, eta ikustea ea ezagut daitezkeen zerbait egiazkoa gai materialei dagokienean.

Baina aztertu aurretik ea gauza horiek existitzen diren niregandik kanpo, eurei dagozkien ideiak hartu beharko ditut kontutan, nire pentsamenduan dauden neurrian, eta begiratu beharko dut zeintzuk diren bereziak eta zeintzuk nahasiak.

Lehenik, bereiziki irudikatzen dudana zera da: filosofoek eskuarki kopuru jarraia deitzen dutena edo kopuru horri, edo neurtzen den gauzari, dagokion hedadura (bai luzeerakoa, bai zabalerakoa, bai sakonerakoa). Gainera, gauza horietan zenbait zati bereiz ditzaket eta zati bakoitzari atxiki diezazkioket era guztietako neurriak, irudiak, kokapenak eta higidurak; eta, azkenik, higidura hauei era guztietako iraupenak izenda diezazkieket.

Eta gauza hauek guztiak orokorki gogartzen ditudan neurrian ezagutzen ditut bereizturik; alabaina, zenbakiei, irudiei, higidurei eta antzerako gauzei dagokienez, ezin konta ahala zehazpen ere bururatzen dut. Eta hauei buruzko egia ebidentea agertzen zaio nire naturari eta erabat egokitzen zaio: hainbestearino, ezen egia horretaz jabetzen hastean ez zaidan iruditzen ezer berria ikasten dudarik; ematen dit, ostera, aurretik banekien zerbait gogoratzen dudala, hau da, aurretik nire adimenean zeuden gauzak atzematen ditudala, orain arte nire pentsamenduak arreta jarri ez dien arren.

Eta hemen garrantzitsuena iruditzen zaidana zera da: nire baitan zenbait gauzari dagozkien ezin konta ahala ideia aurkitzen ditudala; eta gauza horiek ezin ditut ezereztat jo, nahiz eta agian ez duten izango existentziarik niregandik kanpo, eta ez ditut nik asmatu, nahiz eta nire kontua izan haietaz pentsatu ala ez pentsatu; eurek, izan ere, egiazko eta aldaezineko natura dute. Adibidez, hirukia irudikatzen dudanean, nahiz eta seguruenik ez den existituko (eta ez zen lehenago ere existituko) munduan halako irudirik nire pentsamendutik kanpo, hala ere, bada irudi horren nolabaiteko natura edo forma edo zerizan jakin bat, aldaezina eta betierekoa dena, nik asmatu ez dudana, eta ez dena, inolaz ere ez, nire adimenaren menpeko. Agerikoa egiten da hau hirukiaren zenbait ezaugarri frogatu daitezkeen neurrian, hala nola, hirukiaren hiru angeluek bi zuzenen balioa dutela edo alderik handienak angelu handienari eusten diola, eta antzerako beste zenbait; ezaugarriok, nik nahi edo nahi ez, argiro eta ebidenteki somatzen ditut orain hirukian, nahiz eta aurretik, hirukia lehen aldiz irudikatu dudanean, ez zaizkidan ezta burutik pasatu ere egin, eta, beraz, ezin da esan neuk asmatu ditudanik.

Eta ez da eragozpen aproposa esatea agian hirukiaren ideia nire barrura sentimenean bidez etorri dela, nik noizbait hirukierako irudia duten gorputzak ikusi ditudala eta. Izan ere, nire baitan ezin konta ahala beste zenbait irudi burura ditzaket, eta ezin dut

suposatu eurak noizbait nire sentimenen pean egon direnik, eta, hala ere, nik euren naturari buruz zenbait ezaugarri frogatuz ditzaket, hirukiari buruz legez. Eta ezaugarri horiek argiro bururatzen ditudanez guztiek egiazkoak izan behar dute. Eta, hortara, zerbait dira eta ez ezer ez, zeren oso nabarmena baita egia den guztia zerbait dela, eta ondo frogatua dut jadanik argiro eta bereizirik ezagutzen ditudan gauza guztiak egia direna. Eta frogatu izan ez banitu ere, nire adimenaren natura dela eta, ezin diot egiak direla uste izateari utzi eurak argiro eta bereizirik bururatzen ditudan artean. Eta gogoratzen naiz sentimenezko gaiei oso atxikia nengoenean ere, egia iraunkorren artean sartzen nituela irudiei, zenbakiei, eta aritmetikari eta geometriari dagozkien beste gauzei buruz, argiro eta bereizirik bururatzen nituen egia.

Alabaina, nire pentsamendutik zerbaiti buruzko ideia ateratzean ondorioztatzen baldin bada gauza horri buruz argiro eta bereizirik ezagutzen dudana guztia gauza berorren ezaugarria dela, ez ote dut nik hortik aterako Jainkoaren existentzia frogatuko duen argudio bat? Egia da beraren ideia, hau da, izaki erabat perfektuarena, niregan aurkitzen dudala, eta ez irudi batena edo zenbaki batena baino argitasun gutxiagorekin. Eta baldin badakit irudi bati edo zenbaki bati buruz frogatuz guztia benetan irudi horri edo zenbaki horri dagokiola, ez dut argitasun eta berezitasun gutxiagorekin jakingo betiereko existentzia Jainkoaren naturari dagokiola. Eta, hortaz, nik aurreko meditazioetan ondorioztatu dudana guztia egia izango ez balitz ere, Jainkoaren existentziaz izan beharko nukeen ziurtasunak matematikaren egia guztiez⁶² orain arte izan dudana ziurtasuna bezainbatekoa izan beharko luke. Honek ez du ematen hasieran guztiz nabarmena, sofisma antza edo duela ematen du eta. Izan ere, ohituta nago beste gauza guztietan existentziaren eta zerizanaren artean bereiztera; hau dela eta erraz limurtzen dut nire burua pentsatzera Jainkoaren existentzia eta zerizana erraz bereiz daitezkeela, eta Jainkoa burura daitezkeela existituko ez bailitzan. Baina, hala ere, arreta gehiago jartzen dudanean jabetzen naiz existentzia ezin dela banandu Jainkoaren zerizanetik, hirukiaren zerizanetik bereizi ezin den bezala bere hiru angeluen batuketak bi zuzenen balioa duela, edo mendiaren ideiatik haranarena bereizi ezin den bezala. Hontara, berdin izango da higuigarria pentsatzea Jainkoa (hau da, guztiz perfektua den izakia) existentziarik gabe (hau da, perfekzio baten faltan), nola pentsatzea mendia haranik gabe.

Ezin dut bururatu, beraz, Jainkoa existentziarik gabe, mendia haranik gabe bururaezina zaidan legez. Baina, hala ere, mendia haranarekin batera bururatzeak ez dakar munduan mendirik dagoenik, eta, era berean, badirudi Jainkoa existentziarekin bururatzeak ez dakarrela bera existitzen denik. Izan ere, nire pentsamenduak ez die ezartzen gauzei ezer derrigorrean, eta zaldi hegaduna irudika dezakedan bezala, zaldi hegadunik ez existitu arren, era berean existentzia atxiki diezaioket Jainkoari, inolako Jainkorik existitu gabe. Baina eragozpen honen ostean sofisma bat ezkututzen da, zeren ezin badut bururatu mendia haranik gabe, horrek ez baitu esan nahi mendirik edo haranik ez dagoela munduan, horrek esan nahi duen gauza bakarra da mendia eta harana ezin direla banandu, eta berdin da existitzen diren ala ez. Eta, ostera, Jainkoa existentziarik gabe bururatu ezin denez, ondorioztatzen da existentzia ezin dela banandu Jainkoarengandik, eta, ondorioz, bera benetan existitzen dela; baina ez da ondorioztatzen nire pentsamenduak ezar dezakeenik hori horrela izatea eta gauzei beharizan bat ezartzen dienik, alderantziz, errealitateak berak, Jainkoaren existentziak,

⁶² Frantsesez zera gaineratzen du: qui ne regardent que les nombres et les figures.

alegia, behartzen du nire pentsamendua horrela pentsatzera. Ez dut askatasunik bururatzeko existentziarik gabeko Jainkoa (hau da, izaki guztiz perfektua, baina perfekzio goren bat falta duena), nahiz eta badudan askatasuna bururatzeko zaldia hego gabe nola hegoekin.

Baina honen aurka ezin da honako hau argudiatu: existentzia perfekzio bat denez, derrigorrean onartu beharra dudala Jainkoa existitzen dela, baldin eta suposatu badut Jainkoak perfekzio guztiak dituela, baina nire suposapen hori (Jainkoak perfekzio guztiak dituela alegia) ez dela derrigorrean onartu beharrekoa. Honen antzerako argudioa zera litzateke: nik pentsatzen badut lau aldeko irudi guztiak zirkuluan inskriba daitezkeela, onartu beharko dut erronboa zirkuluan inskriba daitezkeela, baina suposapen hori onartzea ez da derrigorrezkoa eta ni faltsua den zerbait onartzera behartua egongo nintzateke. Ezin da eragozpen hori jarri nire ustez; izan ere, egia da ez dela derrigorrezkoa nik Jainkoaz pentsatzea, baina, hala ere, lehen izaki goren bati buruz pentsatzen dudanean, eta ideia hori nire adimenaren altxorretik ateratzen dudan bakoitzean, derrigorrean perfekzio guztiak atxiki behar dizkiot berari, nahiz eta ez zehaztu perfekzio horiek guztiak eta nahiz eta ez jarri arreta perfekzio bakoitzean bereziki. Eta, existentzia derrigorrean perfekzio bat dela onartzea nahikoa da nik ondorioztatzeko lehen izaki goren hori benetan existitzen dela. Era berean, ez da beharrezkoa nik hirukia irudikatzea sekula, baina hiru angeluz osatutako irudi lerrozuzena kontutan hartzen dudan bakoitzean, derrigorrezkoa zait berari atxikitzea behar diren ezaugarri guztiak ondorioztatu ahal izateko bere hiru angeluak ezin direla bi zuzen baino handiagoak izan, nahiz eta, agian, nik ez dudan kontutan izan arazo hau. Baina aztertzen dudanean zeintzuk irudi inskriba daitezkeen zirkuluan, ez da niretzat derrigorrezkoa pentsatzea lau alde duten irudi guztiak hauen artekoak direla. Ostera, ezin dut ezta pentsatu ere egin hori horrela izan daitezkeenik, ez baitut nire pentsamenduan onartu nahi ezer argiro eta bereizirik bururatu ezin dudana. Eta, beraz, alde handia dago horiek bezalako suposapen faltsuen eta nirekin jaio diren ideien artean, eta hauen artean lehen eta nagusia Jainkoaren ideia da.

Izan ere, era askotara ezagutzen dut Jainkoaren ideia hau ez dela asmatutakoa, ez dela nire pentsamenduaren menpekoa, baizik eta benetako natura aldaezin baten irudia dela. Lehenik, Jainkoaz bakarrik burura dezakedalako bere zerizanari existentzia dagokiola. Gainera, ezin dudalako bururatu Jainko bi edo gehiago egon daitezkeenik. Eta, orain existitzen den Jainko bat badagoela emanaz gero, argi eta garbi ikusten dudalako derrigorrezkoa dela bera, lehenago, betikotasunetik existitu izana eta etorkizunean betikotasuneraino existi dadila ere. Eta azkenik Jainkoaren beste ezaugarri pila bat hautematen dudalako, kendu ezin dizkiodanak eta aldatu ezin dizkiodanak ere.

Gainerakoan, edozein frogapen erabiltzen dudala ere, beti berdinerantz itzultzen naiz, hots, bakarrik argiro eta bereizirik bururatzen ditudan arrazoiek konbentzitzen nautela oso-osorik. Eta, hala ere, honela bururatzen ditudan gauzen artean batzuk jende guztiak ezagutzen ditu nabarmentasunez, eta beste batzuk bakarrik hurbiletik behatu eta arretaz aztertzen dituztenek aurkitzen dituzte, baina azken hauek, behin aurkitu direla, besteak bezain egiazkotzat joko dira. Adibidez, hiruki angeluzuzenetan hasieratik ebidentea da oinarria angelu handienari oposatzen zaiola, baina ez du ematen, era berean, oinarriaren berbidura beste bi aldeen berbiduraren berdina dela; hala ere, behin hau ezagutu denean, bien egiaz indar berdinarekin egongo gara konbentzitura. Eta Jainkoari dagokionez ez litzateke ezer egongo bera baino lehenago eta errazago

ezagutuko nukeenik, baldin eta nire adimenean aurreiritziak izango ez banitu eta nire pentsamendua nahastuko ez balitz gauza sentigarrien irudiekin. Ba al dago ezer Jainkoa badela pentsatzea baino argiagoa eta nabarmenagoa? Jainkoa, hau da, izaki gorena, bere zerizanari existentzia dagokiona eta, beraz, existitzen dena.

Eta egia honetaz ondo jabetzeko nire adimenaren arreta handia behar dut, baina, hala ere, konbentzituta nago bera iruditzen zaidala niri gauzarik ziurrena, eta, gainera, beste gauza guztiei buruzko ziurtasuna bere menpeko da erabat, hala non ezagupen hau gabe ezinezkoa izango litzatekeen beste ezertaz ezagupen perfektua izatea.

Zeren nire naturak zerbait egia dela sinestera bultzatzen nau gauza hori guztiz argiro eta bereizirik ulertu bezain laster. Alabaina, baita nire naturagatik ere, ezin dut nire adimena denbora guztian gauza bati lotuta izan, eta gainera sarritan gogoratzen dut zerbait egia dela iritzi izan diodala, iritzi hori izatera eraman nauten arrazoiak gogotan ez ditudan arren; honegatik, Jainkoa existitzen dela ez badakit, baliteke beste arrazoi batzuk agertzea gauza horietaz ni iritzi aldatzera eramango nautenak erraz, eta honela nik ez dut izango sekula eurretaz benetako zientziarik, iritzi nahasiak eta aldakorrak baino.

Adibidez, hirukiaren natura kontutan hartzen dudanean nabarmenki ezagutzen dut beraren hiru angeluen batuketa bi zuzenen berdina dela, eta ezinezkoa da niretzat, geometriari piska bat jantzia naizenez, hori ez sinestea nire pentsamenduarekin horren frogapenari arreta jartzen diodan artean. Baina nik oso argiro gogoratu arren frogapen hori ulertu dudala, ez badakit Jainkoa badela, erraza izan daiteke egia horretaz niri zalantza sortzea frogapen hori nire arreta kentzen diodanean. Izan ere, kontutan badaukat sarritan gauza asko egiazkotzat eta ziurtzat jo ditudala, eta gero, beste arrazoi batzuegatik, guztiz faltsutzat jo behar izan ditudala, nire burua konbentzi dezaket zeraz: naturak egin nauela erraz huts egin dezakeen zerbaiten gisara, eta huts egin, gainera, baita ziurtasun osoz ulertzen ditudan gauzetan ere.

Baina, orain badakit Jainkoa badela, eta aldi berean, badakit gauza guztiak beraren menpeko direla, eta ez dela engainatzailea, eta hemendik ondorioztatzen dut argiro eta bereizirik bururatzen dudanean edozein gauza derrigorrean egia dela. Eta gogoratzen badut egia hori argiro eta bereizirik ezagutu dudala, ezingo da eman batere arrazoirik egia hori zalantzatan jartzera bultzatuko nauena, eta berdina da nik arretarik ez jartzea hori egia dela ondorioztatzeko erabili ditudan arrazoiak. Eta honela badut egiazkoa eta ziurra den zientzia bat. Eta zientzia hau zabaltzen da lehenago frogatu izan ditudan gauzetara ere, hala nola, geometriara nola antzerako beste zenbait egiatara. Izan ere, zer eragozpen jarriko dit inork ni hauek zalantzatan jartzera behartzeko? Esango al dit baten batek nire naturagatik erraz huts egin dezakedala? Baina badakit ezin dudala hutsik egin argi eta garbi ulertzen ditudan egietan. Inork esango dit egiazkotzat izan ditudan gauza asko gero faltsuak zirela jakin dudala. Baina nik gauza horiek ez nituen hautematen argiro eta bereizirik, eta ezagutzen ez nuen oraindik egiaren arau hau, sinetsi egin nituen nik uste baino ahulagoak ziren arrazoietan oinarrituz. Zer gehiago esan ahal izango didate? Agian, nik nire buruari lehenago jarri diodan eragozpena, lotan nagoela alegia, edo nik orain ditudan pentsamendu guztiak ez direla lotako ametsak baino egiago. Baina, lotan nagoela ere, adimenari argiro agertzen zaion guztia erabat egia izango da. Eta honela nik oso argi ikusten dut zientzia guztien egiaren ziurtasuna Jainkoaren egiaren ezagupenean datzala, eta ez beste ezertan, eta hau ezagutu gabe ezin dut besterik ezer ezagutu perfektuoz. Eta dagoeneko bera ezagutzen dudanez, nire esku dago zientzia perfektua lortzea ezin konta ahala gauzei buruz; eta ez bakarrik Jainkoari buruz eta adimenezko

beste zenbait gauzari buruz, baizik eta baita gorputzezko natura duten gaiei buruz ere, bera matematikaren frogapenen gaia izan daitekeen neurrian.

SEIGARREN MEDITAZIOA

Gauza materialen existentziaz eta arimaren eta gorputzaren arteko benetako bereizketaz

Geratzen zaidan gauza bakarra da aztertzea ea existitzen diren gauza materialak. Eta, egia esan, nik badakit existi daitezkeela matematika hutsaren gaiak diren neurrian behintzat, ikuspegi honetatik argiro eta bereizirik bururatzen baititut eurak. Izan ere, Jainkoak nik bereizirik burura ditzakedan gauza guztiak ekoizteko gaitasuna du, ez dago horretaz zalantzarik, eta ez dut uste ezer egongo denik berarentzat eginezina, argiro bururatzeko kontraesankorrak iruditzen zaizkidan gauzak salbu. Gainera, nik dudan irudikatze ahalmenak, zeina erabiltzen dudan gauza materialak kontutan hartu behar ditudanean (horrela irakasten dit nire esperientziak), horien existentziaz konbentzi nazake; zeren, irudimena zer den arretaz gogartzen dudanean, jabetzen bainaiz ezagutzeko ahalmenaren erabilpen bat besterik ez dela, zuzenean aurrean duen gorputzari atxikitzen zaiona, eta, beraz, gorputz hori existitzen dela.

Eta hau nabarmena bihurtzeko lehenik aztertuko dut irudimenaren eta ulermen hutsaren artean dagoen ezberdintasuna. Adibidez, hirukia irudikatzean, ez dut bera ulertzen bakarrik hiru lerroz osatutako irudia bezala, horretaz gain hiru lerro horiek ulertzen ditut nire adimenaren indarren eraginez agertuko bailiran; eta honi deritzot nik, hain zuzen, irudikatzea. Kiliogonoaz pentsatu nahi badut, ondo ulertuko dut mila alde dituen poligonoa dela, hirukia hiru alde osatutako irudia dela bezain erraz ulertuko dut nik hori; alabaina, ezin irudikatu ditut kiliogonoaren mila aldeak hirukiaren hiru aldeak irudika ditzakedan legez, eta ezin ikusi ditut mila alde horiek oraineratuak nire adimenaren begiekin. Gorputzezko gauzei buruz pentsatzean irudimena erabiltzen dut, baina kiliogonoa ohitura honi jarraiki bururatzean irudi nahasi bat adierazten dut; argi eta garbi dago irudi hau ez dela kiliogonoa, ez baita inolaz ere bereizten miriagonoaz (edo alde ugari izango lituzkeen beste edozein irudiz) pentsatzean adieraziko nukeen irudiarekin, eta berak ez du inolaz ere balio kiliogonoa beste poligonoetatik bereizteko balio duten ezaugarriak aurkitzeko.

Pentagonoa gogartu behar badut egia da bere irudia kiliogonoarena bezain ondo uler dezakedala irudimenaz baliatu gabe. Baina irudika dezaket, halaber, nire adimenaren arreta bere alde bakoitzean ezarriz eta, era batera, eurek inguratzen duten azaleran ezarriz ere. Honela jabetzen naiz adimenaren ahalegin berezi bat behar dudala gauzak irudikatze ahalmenaren erabilpen ez dudana gauzak ulertzeko. Eta adimenaren ahalegin berezi honek erakutsiko du, argi eta garbi, irudimenaren eta ulermen hutsaren artean dagoen aldea.

Oharrazi nahi dut, gainera, niregan dagoen irudikatzeko gaitasun hau, ulertzeko gaitasunaz bereizten den neurrian, ez dela beharrezkoa inolaz ere ez nire zerizanarentzat, hau da, nire adimenaren zerizanarentzat. Izan ere, bera izango ez banu ere, nik neuk beti berdina iraungo nuke zalantzarik gabe, eta horregatik badirudi ondoriozta daitekeela irudimena ez dela nire adimenaren menpeko, beste zerbaiten menpeko baino. Eta gorputzen bat existitzen bada eta berari adimena lotuta baldin badagokio (adimenak gorputza nahi beste aztertu ahal izango duelarik), erraz ulertuko dut balitekeela era honetara adimenak gorputzeko gauzak irudikatu ahal izatea. Honela, pentsatzeko era honen eta adimen hutsaren arteko ezberdintasuna honako hau da bakarrik: adimena zerbait ulertzean beraren barrura bihurtzen dela nolabait eta beraren baitan dauden ideietako batzuk hartzen dituela kontutan; baina irudikatzean gorputzera bihurtzen dela eta berak aurretik gauzatu duen edo sentimenen bidez jaso duen ideia baten arabera hartzen duela kontutan. Egia bada gorputza existitzen dela, nik erraz ulertzen dut irudimena era honetara ematen dela. Eta ezin aurkitu dudanez beste biderik irudimena nola gauzatzen den azaltzeko, hortik susmatzen dut gorputzik badela; baina hau gertakorra da besterik ez, eta gauza guztiak arretaz aztertu arren, nire adimenean dudak gorputzeko naturaren ideiatik ezin dut atera batere argudiorik ondorioztatzeko derrigortasunez gorputzen baten existentzia.

Alabaina, gorputzeko natura horretaz gain, zeina matematika hutsaren gaia den, beste zenbait gauza irudikatu ohi dut, baina ez hain era bereizian: hots, koloreak, hotsak, zaporeak, mina eta antzerako beste zenbait gauza. Eta gaiok askoz ere hobeto hautematen ditut sentimenen bidez -izan ere, badirudi sentimen hauen eta oroimenaren bidez datozela gai horiek nire irudimeneraino-, hau dela eta, uste dut eurak hobeto aztertzeke ikertu beharko dudala sentitzea zer den. Eta pentsatzeko era honen bidez (sentitzea deritzodana) nire adimenean jasotzen ditudan ideietan oinarrituta begiratu beharko dut ea atera dezakedan gorputzeko gauzen existentziari buruzko frogaren bat. Eta hasteko ekarriko dut nire oroimenera orain arte egiaztat izan ditudan gauzak, nire sentimenen bidez jasotakoak, eta nire sinesmena funtsatu duten oinarriak. Eta ondoren eurak zalantzatan jartzera eraman nauten arrazoiak aztertuko ditut. Eta azkenik orain zertan sinetsi behar dudak finkatuko.

Lehenik, burua, eskuak, oinak eta gainerako gorputzadarrak ditudala sentitu dut. Eta hauek nire gorputza osatzen dute, nire zati bat dena edo agian nire osotasuna. Gainera, sentitu dut gorputz hori beste askoren artean dagoela eta beste horiengandik laguntza nola traba jaso dezakeela, laguntza horiek gozamen sentipen baten bidez igartzen ditudalarik eta traba horiek min sentipen baten bidez. Eta gozamen eta min horretaz gain niregan igartzen dut gosea, egarria, eta antzerako beste zenbait gogo, eta, halaber, pozerako, tristurarako, haserrerako, eta antzerako beste zenbait grinatarako joera korporalak. Eta niregandik kanpo hedadura, irudiak, gorputzen higidurak, igartzen ditut, eta hauetan gainera nabaritzen dut gogortasuna, berotasuna eta ukimenean biltzen diren gainerako nolakotasun guztiak. Gainera argitasuna, koloreak, usainak, zaporeak eta hotsak igartzen ditut, eta hauen aniztasunari esker bereiz dezaket zerua, lurra, itsasoa eta gainerako gorputz guztiak elkarren artean.

Nire pentsamenduari nolakotasun hauei guztiei dagozkien ideiak agertzen zitzaizkion eta ideia horiek berez eta bitartekorik gabe sentitzen nituen; ideiak kontutan izanik uste nuen -eta ez nuen arrazoirik falta- nire pentsamenduaz guztiz beste ziren gauzak sentitzen nituela, eta gauza hauek nire ideien jatorri ziren gorputzak zirela. Izan ere,

sumatzen bainuen ideiak nire pentsamenduari agertzen zitzaizkiola nire onespeneren premiarik gabe, hala non ezin sentituko nuen inolako gairik, nik nire gogo guztia jarri arren, baldin eta bera ez bazegoen nire sentimenen organo baten aurrean, eta bera aurrean bazegoen ezin geratuko nintzen bera sentitu gabe.

Eta sentimenen bidez jasotzen nituen ideiak nik neuk meditatuz irudika nitzakeen beste edozein baino biziagoak, zehatzagoak eta (euren erara) bereiziagoak ziren, eta baita ere oroimenean inprimatua aurki nezakeen beste edozein baino; horregatik ematen zuen ezin sortu zirela eurak nire adimenetik, eta beharrezkoa zen, beraz, beste zerbaiten eraginagatik etor zitezen niregana. Eta gauza hauei buruz ideia horiek ematen didaten ezagupena besterik ez daukat, eta horregatik eurei buruz burura etor dakidakeen gauza bakarra da gauza horiek ideia horien antzekoak direla.

Eta gogoratzen nuen, gainera, sentimenak erabili nituela arrazoimena baino gehiago, eta aitortzen nuen nik niri buruz eratzen nituen ideiak ez zirela sentimenen bidez jasaten nituenak bezain zehatzak eta askotan haiek hauen zatiz osatuta zeudela; hori guztia zela eta, erraz konbentzitu nuen nire burua zeraz: nire adimenean ez zegoela batere ideiarik lehenago nire sentimenetatik pasatu ez zena.

Eta ez nuen arrazoirik falta pentsatzeko gorputz hau (eskubide berezi batengatik nirea neritzona) niri beste edozein baino gehiago zegokidala. Izan ere, ezin bainuen nire burua berataz banandu, beste edozein gorputzekin egin nezakeen bezala. Berarengan eta beraren bidez sumatzen nituen nire gogo eta nire eraspen guztiak, eta azkenik bere zatietan -eta ez banandua legokeen beste gorputz batenetan- igartzen nituen plazerrezko eta oinazezko sentipen guztiak.

Baina aztertzen nuenean zergatik delako sentipen bati jarraitzen dion arimaren tristurak, edo zergatik plazeraren sentipenetik sortzen den poza, edo zergatik urdaileko zirrara batek, gose deritzoguna, eragiten digun jateko gogo, edo zergatik eztarri lehorrak eragiten digun edateko gogo, eta abar, arrazoi bakarra eman nezakeen: naturak horrela irakasten didala alegia. Ez baitago, benetan, inolako antzik (ez behintzat nik uler dezakedanik) urdaileko zirrara horren eta jateko gogoaren artean edo mina eragiten duen gauzaren sentipenaren eta sentipen horrek sorrarazten duen tristuraren artean. Eta iruditzen zitzaidan nire sentimenen gaitzat nituen gainerako gauza guztiak ere naturatik ikasi nituela, eta honegatik konturatu nintzen gai horiek horrela zirela nik eurak frogatu ahal izateko arrazoirik izan aurretik.

Baina ondoren zenbait esperientziek pittinka-pittinka suntsitu egin zituzten sentimenei buruz mamitu nituen sinesmen guztiak. Izan ere, sarritan ohartu naiz urrutitik borobilak iruditzen zitzaizkidan dorreak hurbiletik karratuak iruditzen zitzaizkidala, eta dorre horietako goienean eraikita zeuden kolosoak behetik begiratzean estatua txikiak iruditzen zitzaizkidala. Eta horrela, ezin konta ahala egoeratan, kanpoko sentimenetan oinarritutako irizpenak oker zeudela aurkitu dut, eta kanpoko sentimenetan ez ezik baita barrukoetan ere. Zeren ba al da mina baino zerbait barnekoagorik? Eta, hala ere, noizbait jakin dut, besoak eta hankak moztuta zituzten zenbait pertsonaren bidez, oraindik iruditzen zitzaizkidan mina sentitzen zutela moztuta zeukaten zati horretan. Eta honek pentsarazi zidan ez nuela zertan seguru egon nire gorputzadar bat gaizki izanaz, nik bertan mina sentitu arren.

Eta zalantza egiteko bi arrazoi hauei beste bi gehiago gaineratu nizkien, oso orokorrak eurak. Lehena da iratzarrita nagoela ustez sentitu ditudan gauzen artean ez dagoela

bakarra ere lotan nagoela ezin senti dezakedana nola edo hala. Eta iruditzen ez zaidan bezala lotan nagoela ustez sentitzen ditudan gauzak niregandik kanpoko gaietatik datozela, ez nuen ulertzen zergatik iruditu behar zitzaidan hori iratzarrita nagoenean ustez sentitzen ditudan gauzei buruz. Eta bigarrena zera zen: nire izatearen egilea ezagutzen ez nuenez (edo ezagutzen ez nuenaren itxura egiten nuenez), ez nekusan ezer eragotz zezakeena naturak ni egin nintzan huts egiten duen zerbait bezala -eta huts egiten duena gainera, baita egiazkoenak iruditzen zitzaizkidan gauzetan ere-.

Eta ez nuen arazo handirik gezurtatzeko lehenago gauza sentigarrien egiaz konbentzitu ninduten arrazoiak. Zeren ematen bazuen naturak bultzatzen ninduela arrazoiak onartzen ez zituen gauzetara, ez nuen uste kasu handirik egin behar nienik natura horren irakaspenei. Eta sentimenetatik jasotzen nituen ideiak ez ziren nire nahimenaren menpeko, baina, hala ere, ez nuen pentsatzen hortik ondorioztatu behar nuenik nitaz ezberdinak lirakeen gauzetatik zetozela izan ere, agian aurki liteke niregan ahalmen bat (oraindik niretzat ezezaguna) horiek sorrarazten dituen.

Baina dagoeneko nire burua, nahiz ni sortu nauen egilea, argiroago ezagutzen hasi naizela eta, ez dut pentsatzen onartu behar ditudanik sentimenek ustez irakasten dizkiguten gauza guztiak, baina era berean ez ditut guztiak zalantzatan jarri behar orokorki.

Eta lehenik, badakit Jainkoak nik argiro eta bereizirik burura ditzakedan gauza guztiak egin ditzakeela bururaten ditudan bezalaxe, eta horregatik, nik gauza bat beste batetik argiro eta bereizita bururatu ahal izatea nahikoa da bata besteaz bereziak eta ezberdinak izan daitezen, Jainko ahalguztidunak bananduta egin ditzakeelako besterik ez bada. Eta gauza horiek ezberdintzat jotzeko berdina da zer gaitasunen bidez burutu den bereizketa hori. Eta nik ziurtasunez dakit existitzen naizela eta nire naturari edo zerizanari pentsatzen duen gauza bat izatea dagokiola eta ez dudala aurkitzen berari derrigorrez dagokion besterik ezer; eta hortik zuzen ondoriozta dezaket ni pentsatzen duen zerbait naizela⁶³ eta horretan datzala nire zerizana. Hortaz, beharbada, (edo agian ziurtasunez, geroxeago esango dudan legez) nik gorputz bat izango dut, niri oso lotuta dagoena. Baina hori horrela izanda ere, egia da ni⁶⁴ nire gorputzaz erabat eta benetan berezia naizela eta bera gabe existi naitekeela, eta hau ondoko arrazoi honegatik: alde batetik, pentsatzen duen eta hedaturarik ez duen gauza bat besterik ez naizenez nire buruaz ideia argi eta berezia dudalako eta bestetik gorputzaren ideia berezia dudalako -bera hedatua eta pentsatzen ez duen zerbait den neurrian-.

Gainera, niregan aurkitzen ditut pentsatzeko ahalmen batzuk guztiz bereziak eta niregandik ezberdinak direnak, hots, irudimena, eta sentimenak. Hauek gabe nire burua oso-osorik uler dezaket argiro eta bereizirik, baina ez eurak ni gabe, hau da, ezin uler ditzaket eurak adimenezko substantzia bat gabe zeinari atxiki ahalmen horiek guztiak. Zeren⁶⁵ ahalmen hauetaz dugun kontzeptu formalean eurek nolabaiteko adimena gordetzen baitute, eta hemendik nik bururaten dut nitaz ezberdinak direla, gauza baten moduak edo akzidenteak gauzaz ezberdinak diren bezala.

⁶³ Frantsesez zera gaineratzen du: ou un substance dont toute l'essence ou la nature n'est que de penser.

⁶⁴ Frantsesez zera gaineratzen du: c'est-à-dire mon âme, par laquelle je suis ce que je suis.

⁶⁵ Frantsesez zera gaineratzen du: dans la notion que nous avons de ces facultés, ou (pour me servir des termes de l'École).

Niregan beste ahalmen batzuk ere ezagutzen ditut, hala nola lekuz aldatzea, jarrera ezberdinetan jartzea eta antzerako beste zenbait, eta hauek, aurrekoak bezala, ezin dira ulertu substantzia bat gabe zeinari eurak atxiki, eta existitu ere ezin dira existitu halako substantzia gabe. Baina oso ebidentea da ahalmenok, benetan existitzen badira, substantzia korporal edo hedatu bati atxiki behar zaizkiela, eta ez adimenezko substantzia bati; izan ere, eurei dagokien kontzeptu argi eta bereizian hedadura jasotzen da, baina ez adimena.

Gainera, sentitzeko ahalmen pairakor bat aurkitzen da niregan, hau da, gauza sentigarrien ideiak jasotzeko eta ezagutzeko ahalmena. Baina berak ez lidake ezertarako balioko⁶⁶ egongo ez balitz niregan, edo beste inorengan, beste ahalmen eragile bat ideia horiek eratzeko eta ekoizteko gai izango litzatekeena. Alabaina, ahalmen eragile hau ezin da niregan⁶⁷ egon, ez duelako nire pentsamendua auresuposatzen eta ideia horiek sarritan sortzen zaizkidalako nik ezertan lagundu gabe, eta askotan nire gogoz kontra. Beharrezkoa da, beraz, bera izan dadila nitaz ezberdina izango den substantzia baten baitan. Eta substantzia horretan errealitate osoa bilduko da formalki edo hastapenean, objektiboki ahalmen horrek ekoizti dituen ideietan egongo den artean (lehenago oharrarazi dudana bezala). Eta substantzia hau gorputz bat da, hau da, natura korporal bat, zeinak bilduko duen formalki⁶⁸ ideietan objektiboki⁶⁹ dagoena; edo bestela Jainkoa bera da, edo gorputza baino nobleagoa den beste sorkari bat, berak gorputza bilduko duelarik hastapenean.

Alabaina, Jainkoa ez denez engainatzailea, nabarmena da ez dizkidala berak zuzenean bidali ideia horiek, ezta beste sorkari baten bidez ere, zeinak errealitatea ez formalki baizik eta hastapenean bilduko duen. Izan ere, berak ahalmen bat eman dit hori horrela dela ezagutzeko, eta, hala ere, joera handia eman dit sinesteko ideia horiek gauza korporaletatik datozela, horregatik ez dakit nik nola defendatu ahal izango litzatekeen engainatzaile izatearen salaketatik, ideia horiek, benetan, etorriko balira ez gauza korporaletatik, baizik eta beste kausa batzuetatik; eta hemendik ondorioztatzen da gauza korporalak existitzen direla.

Hala ere, agian, eurak ez dira guztiz izango guk sentimenen bidez hautematen ditugun modukoak, hautemaketa hau zenbait gauzari dagokienean oso nahasia eta iluna da eta. Baina aitortu behar da, gutxienez, gauza koporal horietan argiro eta bereizirik bururatzen dudana guztia benetan euren ezaugarri dela, esaterako matematika hutsean biltzen diren gauza guztiak oro har. Baina badira beste gauza batzuk bai partikularrak direnak (eguzkia halako neurritako izan dadila eta halako irudia izan dezala), bai modu ilunagoan eta nahasiagoan bururatzen direnak (argia, hotsa, mina eta antzerakoak); hauei dagokienez, oso zalantzarriak eta ez seguruak diren arren, egiatan uste dut ondoriozta dezakedala baditudala niregan baliabideak eurak ziurtasunez ezagutzeko, Jainkoa ez baita engainatzailea eta, ondorioz, ez zukeen jarriko nire iritzietan inolako gezurrik ahalmen bat eman gabe gezur hori zuzentzeko gauza izango litzatekeena.

Eta, lehenik, ez da zalantzarik naturak irakasten didan guztian badagoela nolabaiteko egia. Zeren naturaz, orokorki hartuta, zera besterik ez dut ulertzen: Jainkoa bera edo

⁶⁶ Frantsesez zera gaineratzen du: et je ne m'en pourrais aucunement servir.

⁶⁷ Frantsesez zera gaineratzen du: en tant que je ne suis qu'une chose qui pense.

⁶⁸ Frantsesez zera gaineratzen du: et en effet.

⁶⁹ Frantsesez zera gaineratzen du: et par représentation.

Jainkoak sortutako gauzetan ezarri duen ordena. Eta nire natura bereziaz ulertzen dut Jainkoak eman dizkidan gauza guztien uztarketa, besterik ez.

Alabaina, natura honek modu zehatzenean eta sentigarrienean erakusten didan gauza da nik gorputza daukadala, mina sentitzean ondoezik dagoena, goseak eta egarriak nagoenean jateko edo edateko premia daukana, eta abar. Eta, hortara, honetan nolabaiteko egia dago, ez dut honetaz inolako zalantzarik. Min, gose eta egarri sentipen horien bidez naturak irakasten dit, gainera, ni nire gorputzean nagoela, baina ez bakarrik pilotua bere untzian dagoen bezala, baizik eta berarekin estuki uztartzen naizela eta nahasten naizela osotasun bat egin arte. Zeren horrela izango ez balitz, nire gorputzean zauri bat jasotzean nik -pentsatzen duen zerbait naizen honek- ez nuke minik igarriko; zauri hori adimen hutsaren bidez hautemango nuke, pilotuak bere untzian zerbait apurtzen bada, ikusmenaren bidez hautematen duen bezala. Eta nire gorputzak edateko edo jateko premia izango balu, horren berri izango nuke gose eta egarri sentipen nahasiak izan beharrik gabe. Izan ere, gose, egarri, min eta abarreko sentipen horiek pentsatzeko modu nahasiak besterik ez dira, adimenaren eta gorputzaren arteko batasunetik eta nahasketatik datozenak.

Gainera naturak irakasten dit nire inguruan beste zenbait gorputz ugari existitzen direla, eta horien artean batzuei jarraitu eta beste batzuei ihes egin behar diedala. Eta, egiatan, mota ezberdinetako koloreak, usainak, gustuak, hotsak, berotasunak, gogortasunak eta abar sentitzen ditudanez, hemendik zuzen ondorioztatuko dut hautemaketa horien guztien jatorri diren gorputzetan badirela eurei dagozkien aldakuntzak, hauek agian izango ez duten arren hautemaketa horien antza. Eta, era berean, sentimenen hautemaketa ezberdin hauen artean batzuk atsegin eta beste batzuk ezatsegin zaizkidanez honako ondorioa atera dezaket ziurtasunez: nire gorputzak -edo are gehiago nik neuk oso-osorik, gorputzaz eta arimaz osatua nagoen neurrian- bere inguruan dituen gorputzetatik laguntzak, nola trabak, jasan ditzakeela.

Ematen du naturak beste zenbait gauza ere irakatsi dizkidala, nahiz eta ez ditudan eurak benetan berarengandik jaso. Hauek sartu dira nire adimenean gauzei buruz hausnarketa egin gabe iritzia emateko ohitura dudalako, eta hau dela eta baliteke horiek faltsuak izatea. Esaterako, uste dudanean espazioa hutsik dagoela bertan nire sentimena ukituko dituen ezer ez delako mugitzen; edo uste dudanean gorputz bero bat egonez gero, egon behar duela nire baitan berotasunaren ideia antzerako zerbait; edo uste dudanean gorputz txuri edo beltz batean nire adimenean dagoen zurtasuna edo belztasuna egon behar duela; edo gorputz garratz edo gozo batean nire adimenean dagoen gustu edo zapora bera egon behar duela; edo izarrak, dorreak eta urruti dauden beste gorputz guztiek gure begiei urrutitik agertzen zaizkien bezalakoxeak izan behar dutela, etab.

Baina definitu behar dut zehaztasunez zer ulertzen dudan naturak zerbait irakasten didala diodanean, horrela esandako honetan egon ez dadin ezer bereiziki bururatzen ez dudana. Izan ere, hemen natura ez dut ulertzen Jainkoak eman dizkidan gauza guztien multzoa bezala, hori baino adiera estuagoan ulertzen dut eta. Multzo horrek adimenari bakarrik dagozkion gauza asko biltzen baititu eta ez dut horietaz hitzik egingo naturaz dihardudan artean (adibidez, pentsatzen dudanean zerbait egin izan bada noizbait, ezinezkoa zaiola gauza horri egin ez izatea, eta era honetako beste hamaika gauza, naturaren argiaren bidez ezagutzen ditudanak) eta biltzen ditu, halaber, beste zenbait

gauza gorputzari bakarrik dagozkionak⁷⁰, eta horiek ere ez dira nire mintzagaia orain (adibidez, pisua eta antzerakoak). Orain hitz egiten ari naiz Jainkoak eman dizkidan gauzez gorputzaz eta arimaz osatuta nagoen neurrian. Natura honetatik ikasten dut minezko sentimendua sorrarazten didaten gauzei ihes egin behar diedala eta plazerrezko sentimendua sorrarazten didatenak bilatu behar ditudala. Baina natura horrek, nire ustez, ez dit irakasten nire sentimenen hautemaketetatik atera dezakedanik ondoriorik guregandik kanpoko gauzei buruz, aldeztatik hauek adimenarekin ondo aztertu gabe. Niri iruditzen zait kanpoko gauza hauen egia ezagutzea adimenari dagokiola eta ez arimaren eta gorputzaren arteko konposatuari.

Hortara, izar batek nire begietan egiten duen inpresioa ez da zuzi txiki baten suarena baino handiagoa, baina, hala ere, ez dago niregan benetako joera naturalik bultzatuko nauena sinestera izar hori zuziaren neurri berekoa dela, nahiz eta horrela uste izan dudan umetatik inolako arrazoirik gabe. Eta sutara hurbiltzean beroa sentitu arren, eta pixka bat gehiago hurbiltzean mina sentitu arren, ez dut arrazoirik ikusten konbentzitu nauena suan berotasun horren edo min horren antzeko zerbait dagoela. Zera sinesteko arrazoa besterik ez daukat: badela zerbait suan niregan berotasunezko eta minezko sentimenduak pizten dituen.

Era berean, espazio batzuetan ez egon arren ezer nire sentimenak piztuko dituen, ezin dut hortik ondorioztatu espazio horietan ez dagoela inolako gorputzik. Ni konturatzen naiz gauzen ordena naturala bihurtzeko ohitura dudala, bai arazo honetan eta baita antzerako beste zenbaitetan ere. Izan ere, nik sentimenduak edo hautemaketak jaso ditut eurek adieraz diezaioten nire adimenari zer komeni zaion eta zerk egiten dion kalte berak partekatzen duen konposatuari; eta, hala ere, nahikoa argiak eta bereziak direnez, ni hautemaketa horietaz baliatzen naiz oso arau zurrak bailiran ezagutu ahal izateko niregandik kanpo dauden gorputzen zerizana, nahiz eta irakatsiko didaten guztia oso iluna eta nahasia baino ez den izango.

Baina nahikoa aztertu dut lehenago zer arrazoiengatik izan daitezkeen okerrak nire irizpenak, Jainkoa guztiz ona izanda ere. Hala ere, hemen oraindik zailtasun bat agertuko da, eta berak zerikusia du, alde batetik, naturak irakasten didanarekin egin behar dudani buruz edo saihestu behar dudani buruz, eta, bestetik, naturak niregan jarri dituen barne sentimenduekin; zeren hauetan erruak somatu ditudala noizbait iruditzen zait eta. Adibidez jaki baten gustu gozoak pozoia jatera eraman nazake berarekin pozoia nahastu bada, eta horrela oker egongo naiz. Egia da, dena dela, naturak gustu gozoa duen jakia nahi izatera naramala, eta ez berarentzat ezezaguna den pozoia. Hemendik ondoriozta dezakedan gauza bakarra da nire naturak ez dituela gauza guztiak oso-osorik ezagutzen, eta hau ez da harrizkoa kontutan izanda gizakia amaikorra dela eta berak duen ezagutzaren perfekzioa mugatua dela.

Baina sarritan naturaren bultzadagatik nahi ditugun gauzetan ere huts egiten dugu, adibidez gaixoek kalte egingo diena jateko edo edateko gogoia izaten dutenean. Esan daiteke hemen hauek huts egiten dutela euren natura ustela delako, baina honekin ez dugu zailtasuna saihesten; izan ere gizaki gaixoa Jainkoaren sorkaria baita benetan, gizaki osasuntsua adina, eta horregatik Jainkoaren ontasunarentzat berdina da higuigarria batak nola besteak natura iruzurtia izatea. Eta gurpilez eta kontrapisuz egindako erlojuak zehaztasun berdinarekin betetzen ditu naturaren lege guztiak, bai

⁷⁰ Frantsesez zera gaineratzen du: et ne sont point ici non plus contenues sous le nom de nature.

gaizki eginda dagoenean eta orduak gaizki ematen dituenean eta baita erlojugilearen nahiak oso-osorik betetzen dituenean ere. Ba berdin gertatzen da giza gorputzarekin nik bera makinatzat jotzen badut, hezurrez, nerbioz, giharrez, zainez, odolez eta azalez moldatu eta osatutakoa, orain dituen mugimendu guztiak izango lituzkeena (borondateak zuzentzen dituenak edo adimenaren laguntzatik datozenak salbu⁷¹), inolako adimenik izango ez balu ere. Gorputz hori, adibidez, hidropikoa balitz, erraz onartuko nuke naturala izango litzatekeela berarentzat eztarriko lehortasuna jasatea; lehortasun honek adimenari egarria adierazi ohi dio eta berarengatik gorputzaren nerbioak eta gainerako zatiak mugituko lituzke edateko mugitu behar diren gisara, eta honela bere gaitza larriagotuko luke bere buruari kalte eginaz. Eta hau naturala izango litzateke naturala den bezalaxe gorputz horrentzat, gaitzik jasaten ez duenean, eztarriaren antzerako lehortasunak bere onerako edatera bultza dezala. Orduan, begiratzuz gero zer erabilpen mota izendatu dion erlojugileak erlojuari, esan dezaket orduak ondo ematen ez dituenean erlojua bere naturatik urrundu dela; eta, era berean, kontutan badugu Jainkoak giza gorputza sortu duela gorputz horrek bere baitan izan ohi dituen mugimendu guztiak izan ditzan, pentsa dezaket ez duela bere naturaren araua betetzen eztarria lehorra duenean edateak kalte egiten badio bere iraupenari. Hala ere, aitortzen dut naturaren azken adiera hau besteaz oso ezberdina dela. Honako hau izendatze hutsa besterik ez baita, eta izendatze hori nire pentsamenduaren menpekoa da erabat; honek gaixorik dagoen gizakia eta gaizki egindako erlojua parekatzen ditu gizaki osasuntsuaz eta ondo eginiko erlojuaz dudana ideiekin eta ez du adierazten dagokion gauzari buruzko ezer. Alderantziz, natura azaltzeko beste moduz gauzetan egiatan aurkitzen den zerbait ulertzen dut eta, beraz, neurri batean egia den zerbait.

Alabaina, gorputz hidropikoa esaten badugu bere natura ustela dela, edateko premia izan gabe bere eztarria lehorra duelako, berari kanpotiko izena ematen ari gatzazkio, besterik ez; baina, hala ere, adimenaren eta gorputz horren arteko konposatuari dagokionez, hori ez da izen emate hutsa, naturaren benetako errua da ordea, edatea oso kaltegarria zaionean egarriak dagoelako. Eta honegatik, aztertzeke dago oraindik nolatan Jainkoaren ontasunak ez duen eragozten giza natura, honela ulertuta, gezurtia izan dadin.

Azterketa honi ekiteko nabarmenduko dut, hasteko, alde handia dagoela adimena eta gorputzaren artean: gorputza berez beti zatigarria da eta adimena, ostera, erabat zatiezina da. Izan ere, nire adimena hartzen dudanean kontutan (hau da, nire burua pentsatzen duen gauza hutsa naizen neurrian kontutan hartzen dudanean) ezin dut inolako zatirik bereizi, nire burua zerbait bakarra eta osoa bezala bururatzen baitut. Eta ematen du adimen osoa gorputzaren osotasunari lotuta dagokiola, baina, hala ere, gorputzetik oin bat edo beso bat edo beste edozein zati bananduta ere, horiekin batera ez da ezer nire adimenetik banantzen. Eta ezin da esan berez nahimena, sentimena, ulermena, etab., gorputz horren zati direla. Adimen bakarra baita nahi duena, sentitzen duena eta ulertzen duena. Gorputzeko gauzei edo gauza hedatuei dagokienez, berriz, guztiz aurkakoa gertatzen da: hauen artean ez baita bakarra ere nire pentsamendurekin erraz zatituko ez dudana hainbat tartetan, eta, beraz, zatigarri bezala ezagutzen ditut denak. Eta lehenago jakin izan ez banu, hau nahikoa izango litzateke nik ikasteko giza adimena edo arima bere gorputzaz ezberdina dela erabat.

71 Frantsesez zera gaineratzen du: mais seulement par la disposition de ses organes.

Nabarmendu behar dut, gainera, adimenak ez duela jasotzen gorputzeko zati guztien eragin zuzena, burmuinarena jasotzen duela bakarrik, edo agian honen zatirik txikienetako batena, hots, sena [sensus communis] deritzona biltzen duen zatiarena. Sen [sensus communis] honek, modu berdinean taxututa dagoen guztietan, gorputzeko gainerako zati guztiak era ezberdinetan taxututa egonda ere, gauza berdina sentiaraziko dio adimenari, eta hau hamaika esperientziak lekukotzen du, orain zehaztu beharra ez dagoenak.

Bestalde, zera nabarmenduko dut: gorputzaren natura dela eta, bere zati bat urrun dagoen beste zati batek mugitu ahal badu, orduan bi zati horien artean dauden zati guztiek mugitu ahal izango dutela lehena, nahiz eta urrutien dagoen beste zatia ez mugitu. Adibidez ABCD sokari⁷² azken zatitik (Dtik) tira egiten badiogu A zatia mugitu egingo da, baina A zati hau mugitu ahal izango litzateke, halaber, tarteko zatietatik (B edo Ctik) tira eginez gero D zatia geldirik dagoela. Era berean fisikak irakasten dit oinean mina igartzen dudanean min sentimendu hori komunikatzen dela oinean zabaldua dauden nerbioen bidez; hauek sokak bezala luzatzen dira oinetatik burmuinerano eta oinean tira egiten zaienean tira egiten diote eurek burmuineko zati bati, euren iturri eta helmuga den zatiari alegia, eta bertan mugimendu bat pizten dute, zeina naturak finkatu duen adimenari mina sentiarazteko min hori oinean existituko bailitzan. Baina nerbio horiek oinetik burmuinera heldu aurretik, hankatik, izterretik, giltzurrunetik, bizkarretik eta lepotik pasa behar dute. Eta baliteke inork ez ukitzea oinetako nerbio horien muturrak eta bai ukituak izatea giltzurrunetik edo lepotik pasatzen diren zatiak; baina, hala ere, honek burmuinean piztuko dituen higidurak oinean jasandako zauri batek piztuko lituzkeen berdinak izan daitezke, eta ondorioz adimenak, ezinbestez, min berdina igarri beharko du. Eta iritzi berdina izan behar da gure gainerako sentimenen hautemaketei buruz.

Azkenik, zera nabarmenduko dut: adimenean zuzenean eragiten duen burmuineko zatian egiten den mugimendu bakoitzak sentimendu bakarra sortuko duela. Horregatik, pentsa daitekeen gauzarik onena da mugimendu horrek (eragin ditzakeen sentimendu guztien artetik) gizaki osasuntsuaren gorputzarentzat egokiena den sentimendua eragingo duela, hau da, bere iraupenerako baliotsuena den sentimendu. Alabaina, esperientziak irakatsi digu naturak eman dizkigun sentimendu guztiak nik azaldu dudan modukoak direla, eta, beraz, sentimendu horien baitan aurkitzen den guztiak Jainkoaren indarra eta ontasuna erakutsiko du, hau euren sortzailea baita.

Adibidez, oinean dauden nerbioei eragiten zaienean indartsu eta ohi baino gehiago, euren mugimenduek, bizkarrezurreko muintetik burmuineraino abiatzean, adimenean inpresio bat eragiten dute oinetik baletor bezala, minezko inpresioa hain zuzen. Hori dela eta min horren kausa baztertzeko ahaleginak egitera behartua izango da adimena, oinarentzat arriskutsua eta kaltegarria delakoan.

Jakina Jainkoak molda zezakeen giza natura burmuineko mugimendu horrek adimenari beste zerbait sentiaraziko liokeen modura. Esaterako, senti lezake mugimendu hori burmuinean balego bezala, edo oinean balego bezala, edo oinaren eta burmuinaren arteko gunean, edo beste edozein lekutan; baina gorputzaren iraupenerako ezer ez da lagungarriagoa sentiarazi diona sentitzea baino.

⁷² Frantsesez zera gaineratzen du: qui est toute tendue.

Era berean, edateko premia dugunean, gure eztarriko lehortasuna sortzen da; honek nerbioak mugiarazten ditu, eta hauen bidez burmuinaren barruko zatiak ere. Mugimendu honek adimenean egarri sentimendua nabariarazten du, une horretan guretzat, gure osasunaren iraupenerako, baliagarriena delako edateko premia dugula jakitea. Eta berdina gertatzen da gainerako sentimenduekin.

Hemendik argi eta garbi agertzen da, Jainkoa erabat ona izan arren, giza naturak (adimenaz eta gorputzaz osatua dagoenez) noizean behin engainatzailea izan beharra duela.

Zeren egongo balitz kausa bat kitzikatuko lukeena oinetik burmuinera luzatzen den nerbioa, baina ez oinean, tarte horretako zati batean baino, edo burmuinean bertan, eta piztuko balu oina min hartuta dagoenean egiten den mugimendu bera, mina oinean balego bezala sentituko litzateke eta, jakina, sentipen hori okerra izango litzateke. Izan ere, burmuineko mugimendu batek beti sentimendu bera eragiten badu adimenean, eta sentipen hori oina zauritzen duen kausa batek eragiten badu (beste ezer zauritzen duenak baino askoz gehiagotan), orduan askoz ere arrazonagarriagoa izango da mugimendu horrek oineko mina eraman dezala adimenera eta ez beste inongoa. Eta eztarriko lehortasuna ez dator beti gorputzak bere osasunaren onerako duen edateko premiatik; haatik, batzuetan aurkako kausa batetik dator, hidropikoengan esaterako. Hala ere, hobe da huts egin dezala hauen egoeran, gorputza osasuntsu dagoenean baino. Eta gauza berak balio du gainerako kasuetarako.

Eta benetan, iritzi hau oso baliagarria zait nire naturari gailentzen zaizkion erru guztiak ezagutzeko, baina baita eurak saihesteko eta errazago zuzentzeko ere. Izan ere, badakit gorputzarentzat eroso⁷³ diren gauzei buruz nire sentimen guztiek egia adierazten didatela gezurra baino sarriagotan, eta gauza bat aztertzeke zenbait sentimenez balia naitekeela ia beti, eta gainera nire oroimena erabil dezakedala (oraineko eta iraganeko ezagupenak lotzeko) eta baita nire ulermena ere (nire erruen zergatiak aurkitu dituen); hau guztia dela eta, aurrerantzean ez dut kezkatu beharrik izango gehienetan sentimenek adierazten dizkidaten gauzetan gezurra aurkituko ote dudan. Eta errefusatu behar ditut aurreko egunotako zalantza guztiak, hiperbolikoak eta barregarriak direlako, bereziki loarekin lotuta zegoen zalantza, iratzarrita egoteaz bereizi ezin nuena. Alde handia aurkitu dut dagoeneko bi egoera horien artean, gure oroimenak ezin baititu ametsak lotu bata bestearekin, ezta gure bizitzaren osotasunarekin ere, iratzarrita gaudenean gertatzen zaizkigun gauzak lotu ohi dituen moduan. Izan ere, iratzarrita nagoela inor agertzen bazait bat-batean, eta desagertu ere berehala desagertzen bazait, lotan nagoenean bezala, nik jakin ezin dudalarik ez nondik datorren ezta nora doan ere, orduan, arrazoi guztiarekin, nire burmuinean sortutako mamutzat joko dut⁷⁴ eta ez benetako gizakitzat. Baina nik hautematen ditudan gauzez ezagutzen dudanean bereiziki zer lekutatik datozen, non dauden eta zer denboratan agertu zaizkidan, eta eurretaz dudan sentimendua lotu ahal dudanean nire bizitzaren gainerako joatearekin, inolako hausturarik gabe, seguru egongo naiz iratzarrita nagoela hautematen ditudala eta ez lotan. Eta ez dut inolako zalantzarik egin behar gauza hauen egiaz, baldin eta eurak aztertzeke nire sentimen guztiak, nire oroimena eta nire ulermena erabili baditut, eta aurkitu badut ez dagoela ezer sentimen batek jakinarazi eta beste batek arbuizten

⁷³ Frantsesez zera gaineratzen du: et incommodités.

⁷⁴ Frantsesez zera gaineratzen du: et semblable à ceux qui s'y forment quand je dors.

duena. Zeren Jainkoa engainatzailea ez denez ondorioztatzen da ez nagoela oker honetan.

Alabaina, gure eginbeharrek erabakiak hartzera behartzen gaituzte gauzak ondo aztertzeko astia hartu aurretik, eta honegatik aitortu behar da giza bizitza gauza partikularretan huts egiteen menpe dagoela, eta, azkenik, onartu behar da gure naturaren ahultasuna.